

Lidia Txukovskaia

URPEAN MURGILDU

Itzulpena:
Josu Zabaleta



Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Lidia Txukovskaia

URPEAN MURGILDU

Lidia Txukovskaia

URPEAN MURGILDU

Itzultzailea:
Josu Zabaleta



katakarak
liburuak

Jatorrizko izenburua (1967): *Спуск под воду*

Egilea: Lidia Korneievna Txukovskaia

Lidia Chukovskaya's Russian text copyright © by Dmitry Chukovsky, 1967

Basque publishing rights are required via FTM Agency, Ltd., Russia, 2021

Barruko argazkiaren egilea: Herbert Ponting (Domeinu Publikoa)

Itzulpena: Josu Zabaleta Kortaberria

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2021eko apirila

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartearen erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-55-6

Lege gordailua: NA 563-2021

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

...49ko otsaila	13
...49ko otsaila	17
...49ko otsaila	25
...49ko otsaila	29
...49ko otsaila	35
...49ko otsaila	45
...49ko otsaila	51
...49ko otsaila	59
...49ko otsaila	69
...49ko otsaila	79
...49ko otsaila	91
...49ko martxo	99
...49ko martxo	115

...49ko martxoa	123
...49ko martxoa	129
...49ko martxoa	141
...49ko martxoa	149
...49ko martxoa	155
...49ko martxoa	159
...49ko martxoa	163
...49ko martxoa	169
...49ko martxoa	173
...49ko martxoa	177
ARGIALETXEAREN OHARRA	183





*Hitzarekiko duen jarreran ikusten da
pertsone baten moralitasuna.*

Lev Tolstoi

...49ko otsaila

–Hor duzu zure Litvinovka hori –esan du auto-gidariak, nire begien aurrean basoa eta elurra bat-batean biraraziz. Finlandiar etxetxoak gureganantz hegan ikusi ditudanean, ondoezik sentitu naiz. Trenean hiru ordu eta autoan ordubete hotzik egin ondoren, ez nuen gogoko horrelako bidaia-bukaera bat. Eskuak garbitzeko konketak sarreran egongo dira, seguru asko, sukalde usaina izango da, egur hezea berogailu kaxkar batzuen ondoan. Haizea sartuko da ateetatik eta leihoetatik...

–Iritsi gara!... –Nikolai Aleksandrovitx Bilibin, bainuetxeko autoan halabeharrez bidaia-lagun nuena, zamar astuna askatu eta bere paper-zorroaren bila ari zen auto-gidariaren oinetan. Autoak aurrera jarraitu du, ordea; finlandiar etxetxoen multzotxoa, alde banatara bereizirik, atzean geratu da; beste bihurgune bat, eta bi solairuko harrizko etxetzar baten sarreran gelditu da autoa.

Zamar bigungarridunen gainean mantal zuriak zituzten neskak atera zaizkigu hotzetan bidera.

Sarrera igaro dugu. Neskak gure mailetak ekartzten ari ziren dagoeneko.

-Hemendik, mesedez... Erantzi itzazue bero-kiak, mesedez... -esan du ilea tindatua eta aurpegi musugorrian orezta bat duen emakume sendokote batek-. Ania, lagundu iezaiezu berokia kentzen. Izoztuta daude lagunok, ikusten duzu... Maletak 14.era eta 8.era. Hotz handia izan duzue? Ez dio axola, oraintxe berotuko zaituztegu. Etxean zaudete... Oraintxe bertan hartuko dizuegu izena.

Dokumentuak erregistratu ondoren, emakume sendokoteak -administratzailea zen, inondik ere-, urrats batzuez aurea harturik, gora ekarri gaitu, bi tarteko eskailera zabal batetik. Alfonbrak egongelan, piano distiratsu bat, parket distiratsua; ez, ez da datxa bat, ongi prestatutako hotel bat baizik. Beroa, isila; berogailu zentralaren burrunba eta hots pixkatxo bat, ozta-ozta entzuteko moduan. Alfonbra gorri luze bat hedatzen da korridore osoan zehar. Eta hemen goian, pauso-hots batek ere eteten ez duen isiltasun sakon bat.

Administratzaileak ate bat zabaldu dio Bilibini, eta beste bat niri, urrunxeago.

Eta hemen nago, neure etxean. Egongelatik ordulari baten hots harmoniatsu, sakona iritsi da, eta ondoren, bat-batean, indarretxearen tik-tak betiberdin, jarraikia hasi da entzuten. Gela batean bakar-bakarrik egongo naiz azkenik, gerraz gero lehenengo aldiz. Leningraden, neure etxean banengo bezalaxe. Egunean hiru aldiz jateko mahai bihurtu beharrik izango ez den idazmahai batean eseri. Isiltasunean lan egin. Besteek sukaldean esandako hitzek gogoetak edo susmoak trabatu eta eragotzi gabe... Lurrunezko berogailuaren hodi urdinaren gainean pausatu dut eskua: erre egiten zuen.

Horma arrotz hauen artean aukera izango dut, azkenik, gogoeta egiteko, neure buruarekin topo egiteko.

Baina topaketa hori ez zait batere erraza gertatu behar, nonbait, ahalean saihesten hasia bainaiz dagoeneko. «Zer adin ote du andre horrek?» -hasi naiz pentsatzen, nagi-. Begi hilduak, ile horia, modako orrazkera, harri berde karratudun eraztunak behatze-tan... Herriko etxebizitzak ez zaizkio gustatzen, nik uste, eta honelako etxe dotore batean lan egitea oso atsegina irudituko zaio. «Bai jende interesgarria, idaz-leak! Gisagabeak ere badira, jakina; baina lanbide libre batek, nahi dena esango da, baina prestutasuna ematen du»... Zenbat urte ote ditu gure administratzaileak? 28? 38? Faltan emango du Mosku, seguru asko, eta edo-zer gauza egingo luke noizean behin autoreen batek hara eramango balu, manikura egiteko edo antzerkira joateko. Hemengo aire garbiak eta baso elurtuek hiltze-ko moduan aspertzen dute seguru asko.

Badaezpada ere begiratu bat egin dut leihotik. Ilunabarra. Basoa troka baterantz jaisten da; han elurra lodi dago, trinko; aurreraxeago muinotxo bat, eta hartan izeitxo batzuk, gazteak oraindik, horixkak, txitak bezala, eta, haien aurrean, gorenean, izeirik ederren, lirainen eta gazteena. Lehenengoa iritsi gorenera, eta hantxe dago. Eta han, izeitxoaren atzean, herrixka bat. «Kuzminskoie», esan du auto-gidariak. Haur-esku ziurtasun gaberren batek marraztuak dirudite etxetxoek: bi lerro oker, elkarrekin gurutzatuak, teilatua; lauki oker handixeago bat, hormak; lauki oker txikixeagoak, atea eta leihoak.

Argia piztu dut. Leiho ostean dena desagertu da, elurra eta etxetxoak.

Errezelak hedatu eta itzuli egin naiz. Gelaren aurrez aurre nago orain. Hona non biziko naizen 26 egunez. Kontu handiz, errezeloz miatu dut ingurua. Horma urdinak, hodi urdinak, ohe apal, zabal bat, ohe-mahaia, alfonbratxoa, idazmahaia... Bizkor-bizkor, tintontzia eta Katiaren argazki bat jarri ditud mahai gainean; nire ikurrinak jaso... Hemen gertatu behar du, beraz, topaketak. Mahai hau, errezel ilun hauek, estore ilun hauek, errezel zuri hauek lekuko, beren leiho soi-letan, leiho atzeko izeitxoak bezala.

-Afaltzeko ordua -esan du ahots gazte batek korridorean. Eta agindu-doinu nabarmenagoz:- Afaltzera, mesedez!

Baina ni gelan geratu naiz.

...49ko otsaila

Bart goiz oheratu nintzen, eta behin ere esnatu gabe egin dut lo, lo sakona, estoreetatik argia sartzen hasi den arte. Salto batez jaiki naiz, gosarira berandu iristeko beldurrez. Eta zortziak ziren, egia. Baina, garbitu eta jangelara jaitsi naizenean, hutsik zegoen oraindik. Gela luze bat: leihotxo argi txiki batzuk eta mahai biribilak. Mahai-zapieak, beren zurtasun almidoitu trinkoaz, leihoz kanpoko elurraren azala gogoratzen zuten. Mahaitxoek distira egiten zuten, baxeragatik eta ahozapien piramideengatik, baina jangelan ez zegoen inor. Lehenengoa nintzen, itxuraz. Ez, txoko bateko mahaitxo urrun batean, emakume gazte, argal, begi-beltz bat, galtzaz jantzia, zegoen eserita, eta dotorezia handiz ari zen arrautza baten oskola puskatzen.

Inbidia izateko arrosa-kolorea zuen zerbitzari batek adeitasunez erakutsi dit nire lekua, arretaz galdetu dit zer nahi nuen, eta bizkor-bizkor zerbitzatu dit. Leihotik kanpora begiratu dut; garbiaren garbiz distira egiten zuen: hura dena niretzat! Nire izeitxo muino gorenean, hain samurgarria bere seriotasunean; ba-

daki, nola ez bada!, zer xarma duen! Etxeen teilatuak, haur-esku batek muinoan marraztuak, zuri-zuri zeuden gaur, lurraren kontra zapalduta.

Nire mahaian beste bi plater zeuden prestatuta, baina ez diet itxaron nire beste bi mahaikide ezezagunei; gosaria bizkor-bizkor bukatu eta kanpora, mende batez arnastu ez dudan aire horretara.

Jantzi eta oinek nora eraman, harantz abiatu naiz, aurrera zuzen-zuzen. Etxe inguruan lokatza zegoen, urrutixeago elur biguna, harroa, eta urrutiago baizik ez, soroetan, elur izoztuzko zamau laua. Zuzendariaren etxetxo, urdina, ukrainar khata¹ bat bezala, egurtegia, txakurra lotuta. Utzikeria, hezetasuna, dena alferrik galdua. Aurrera! Hodeitzar grisak, urruntasun gris bat, eta adar beltzen artetik, zeru horia. Zein harri-garriro profetikoa izango litzatekeen hori Leningraden –zeru horia eta adar beltzak–, eta hemen ez da ezeren iragarpena, egunsenti hori soil bat baizik ez. Aurrera, noragabe; oilo batzuen eta soka batean lehortzen jarritako arropa batzuen hurbiletik igaro naiz. Hara, begira zer dagoen han! Urkidityo bat!

Etxe inguruan lokatzik ez balitz bezala. Hemen elurra lodi dago, trinkoa, nire leihopeko trokan bezala. Eta elur lodi horretatik urkiak hodeietarantz luzatzen...

Elur pila batetik igaro eta bidezidor batetik jo dut. Inguruan dena gris, dena egongaitz, dena hezetasunez ase. Urkiak familiatan hazi dira, sustrai beretik binaka, hironaka, zenbat eta gorago orduan eta elkarrengandik bereziago, bals finko baina laster batean bezala. Gelditu eta burua atzera bota dut, eta bat-batean biraka hasi zait, kulunkatzen ari ziren zuhaitz-buru haiengatik eta geldiro mugitzen ziren hodei gris, puztuengatik. Hodeiek erabat estaltzen zuten zerua, elur pilak balira

1 Ukrainako nekazari-etxea [Ohar guztiak itzultzailearenak dira].

bezala han, zeru-zolan. Bidezidorrean aurrera jarraitu dut, enbor gris-zuri lirainen agertze-desagertzeak mozkorturik, eta tristurak sufriarazten zidan, zoriontasun nabarmenegiko une guztietan bezala... Lapurtu egiten baitizute. Itzuli egin beharko dut. Ez dit inork lapurtuko, «denbora» deitzen dugun gauza ulertezinezko hori gertatuko da, horixe; egutegiaren orrian lau baten edo bederatz baten gisako gauza bat azalduko da eta, haren aginduz, auto bat agertuko da atarian, maleta prestatzen hasiko naiz, eta basoa ez da nirea izango gehiago, eta galarazita edukiko dut hartarako sarrera... Etxe eroso honetako isiltasunean muinoko indarretxearen tik-tak berbera entzungo da, lanparak berdin piztuko dira orain biziago eta hurrena ilaunago, berdin zutituko dira urkiak hodeietarantz, buruak haizetara eskainiz, eta hori guztia ez da nirea izango dagoeneko. Kito! Ezin da! Laugarrena du egutegiak. Ordua da.

Basoan egon hutsarekin, dagoeneko tristatzen hasia naiz noizbait nahitaez agur esan beharko diodalako.

Bidezidorra korapilatuz eta sigi-sagaka zihoan. Urkiak otzan-otzan bereizten ziren; itxuraz bakarrik, ordea, ni erakartzeko; baina, egiaz, geroz eta estuago inguratzen ninduten, eta bidezidorra trikimailuz baliatzera behartuta zegoen, sigi-sagan, biribilak eratzten zituzten haien familiak saihesteko. Goian haizeak zarata egiten zuen. Adarretan kimuen bolatxo distiratsuak dirdiraka eta biraka. Kimuak? Neguan?... Arretaz begiratu dut. Ur-tantak ziren.

–Pasieran?

Andre garai bat atera zait bidera: galtzak zituen zamarraren azpian eta besapean metalezko itxigailudun poltsa handi bat. Aurpegi hautseztatua hotzak ubelduta zekarren, eta azala handituta zeukan bekain

depilatuen azpian. Haren atzetik gizonezko beltzaran bat, nagi, eski-jantziz. Haren bizarrak, dotorezia handiz moztuak, ekialdeko ukitu bat zuen.

–Zer moduz gauzak Mosku aldean? –galdetu dit, agurtuz batera–. Ongi?... Zu gaur iritsi zara, ez da? Hemen hildakoak bezalaxe aspertzen zara...

–Bai zakarra zarela, Lado! –esan du andreak, klik batez poltsa itxiz, tiro egingo balu bezala, eta aurrean nuena Gori, Stalinen jaioterriari buruz egindako filmagatik Stalin saria irabazitako Lado Kantxelo zinema-zuzendari ospetsua zela ohartu naiz.

Elkar jotzen geunden bidezidor estuan, elurretan elkarrekin estropezu ez egiteko. Nire mahuka maiztuagatik lotsatuta. Hemen gustura nengoen galdetu didate, nirekin etorritako gizon bizkar-zabal hura, zamar astunekoa, nor zen, zein gelatan jarri nauten; eta azkenean joan egin dira.

Jende aberatsa, dotorea! Eta nire zamar zaharraz, nire ile kizkur eta tindatu gabeaz gogoratu naiz. Ez naiz, bada, hemen neure oroitzapenekin eta lanekin bakar-bakarrik egongo, basoarekin, zeruarekin eta liburuekin, aspertuta eta dibertitzeko gogoz dagoen jende gehiagorekin baizik, nonbait. Ez zitzaidan bururatu, hona bakardadean egotera nentorrenean. Aurrez bururatu ere ez, jende gehiago izango zenik.

Aurrera eta aurrera jarraitu dut, eta urkiek biraka jarraitzen zuten nire inguruan. Ia sarrarazten ninduten neu ere beren biraketan. Enborren artean airea trinkoa zen, ikusi egiten zen. Baso honetan Holanda gogoratzen zidan zerbaitek, ni han inoiz izan ez banaiz ere. Hezetasunez aseta dena, gandututa, astun, lauso. Ostroumova-Lebedevaren² koadro-erakusketa batean

2 Ostroumova-Lebedeva (1871-1955): margolaria eta grabatzailea, olerki-giroko paisaia finen egilea; Leningradeko ikuspegi ugari, besteren artean.

ikusi nuen horrelako Holanda bat, astuna, margula, bustia. Leningraden ere badira horrelako egunak, Unibertsitateko moilatik ibaiatz beste aldean San Isaaken katedraleko kupula urreztatua ikusten ez duzunak.

Itzuli egin naiz. Banuen nora joana: gaur telefono-deirik gabe, hormaz beste aldeko solasak entzun gabe, Katiarengatik, non moldaturik ez duelako, errukitu gabe lan egingo dut.

Etxean ez nagoenez, eskolatik etxerakoan, niri trabarik egin gabe egin ahal izango ditu etxeko-lanak sukaldeko mahaian.

Han daude, urruti, soka eta alkandora bihurrituak. Eta zapi zuriez haraindi, izeiak eta etxeko atari argitua.

Aditzen geratu naiz: estutasuna dut oraindik?... Bai, nire ama-estutasunak ez du atsedetik, itxuraz: oraintxe ere gauza izango nintzateke, bere taupada erregularragatik, estutasun hori bihotzeko zein lekutan bizi dudan zehazki adierazteko. Ondo ote dago nire Katia? Ez ote zuen labain egingo eskolatik etxerakoan? Ez ote zion negar eragingo dena buruz ikasazten dien irakasle horrek: «Gauzak dena segidan atera arte ikasi behar dira». Eta Elisabeta Nikolaievna... Baina hobe Elisabeta Nikolaievna ez gogoratzea...

Etxea bere argi guztiekin atera zait bila; jantzi-tegiak epel-usaina zuen, jantzizainak liburua utzi eta jantziak kentzen lagundu dit. Airez beteta nengoen alderik alde, burutik oinetaraino. Ez, ez txanoa, eskalapoiak, zamarra bakarrik, baizik eta baita masailak, bularra, oinak ere, den-dena. Etxeak berogailuaren hiritar berotasun ziurrarekin, parketaren distirarekin eta sendagileen arretarekin hartu nau. Sendagilearengana joateko deitu didate. Gero pinu-bainu bat hartzera.

Ondoren sendagaiak eman dizkidate. Bai sendagilea, bai erizaina, nire gela atontzen topatu dudan neska ilehori, sudurmotza, arreta adiskidetsu batez interesatu dira denak nire gaixotasunez, tratamenduez, elikaduraz, nire jantzi bakarrarentzat armairuan behar nuen arropa-uztaiaz, idazteko gehien gustatzen zaidan tinta-koloreaz... Izan, ez zitzaien askorik axola, jakina, baina ongi dago itxura-egite adeitsu hori beren eginbeharretan sartuta egotea.

Handik kanpo gauzak ez dira horrela.

Demagun etxeko administraritzan zaudela, ziurtagiri baten zain. Ez dago aulkirik, non eseririk ez. Eta neskaitila bere mutil-lagunarekin berriketan: gaur zinemara joan ala ez, eztabaida. Mutila mahai gainera etzanda, aurpegira botatzen dio arnasa, zuzenean, bekainak mugituz. Jolas horretan harrapaturik, laugarren inprimakia hondatzen du, eta ni zain.

-Zergatik ez duzue aulkirik bezeroentzat?

-Zuk baduzu osasuna, egon zintezke zutik. -Eta mutilari, argazki bat emanetz -: Begira argazki honi. Eta jatorrizkoa gogoratuko dik.

-Baina nik ez dut batere gogorik zure aurrean zutik egoteko.

-Etzaten bazara ere, niri bost!

Ez, hemen ez da horrelakorik.

Neskatoak, mahai gaineratik han ez dagoen hautsa jasoz, gela jasotzera geroago etortzerik nahiago dudan galdetu dit. Ez dit traba egiten? Hamaseiren bat urte ditu, Katia baino hiru bat urte zaharragoa, hor nonbait. Hain mehea, hain xuria, hain izua; kontuz-kontuz ari da tintontzia garbitzen: tintontzi arrotz bat, idazle batena; hautsiz gero, arazoak. Agindua du, gainera: idazten ari direnean, ez egin trabarik. Bere aurpegitxo biribil, sudurmotzarekin, kupido bat dirudi,

egongelako piano gaineko lanpararen oinaren atzean ikusten dena bezalakoa. «Ez dizut traba egiten? Etor naiteke geroago» –esan du zezelka.

...49ko otsaila

Orain arte ondo atera zait jangelara beste inor baino lehen iristea, eta bakarrik jaten nuen ahamentxo bat; oraingo honetan, ordea, nire gelako isiltasunean goizeko itzulpen puska burutu eta jangelara jaitsi naitzenez, beste bi pertsona zeuden eserita nire mahaian.

–Ikusten duzu nola zaintzen zaitudan –esan dit Ludmila Pavlovnak, iritsi nintzen egunean haren atzetik nindoalarik imajinatu nuen doinu berebean–. Xarma handiko bi gizonen artean jarri zaitut.

Doinu hura hain zehazki egokitzen zen nik imajinatutakoarekin, non halaxe espero bainuen: ez al zituen esango imajinatu nituen hitz berberak lanbide liberalaren eraginaz? Ba, ez. Zer jaten dudan eta zer ez dudan jaten galdetu dit.

Jangelan mantal zuri almidoitu batek janzten du Ludmila Pavlovnaren betetasuna. Gure mahaian libre zegoen aulki batean eseri da, eta, zehatz-zehatz garbitutako leihoko argi distiratsutan, ez hogeita zortzi, eta ezta hogeita hemezortzi urte ere, berrogeita hamar ongi beteak dituela ohartu naiz, itxura liraina izateko

amorrutzen dagoela, gerruntzea erabiltzen duela baina, hala ere, ezin duela ezkutatu gehiegizko gantza.

«Xarma handiko bi gizon»: bainuetxerako bidaiari autoan lagun ekarria, Nikolai Aleksandrovitx Bilibin, eta ilea bakantzen hasia duen kazetari gazte bat, Sergei Dimitrievitx Sablin, *Literatura Aldizkariko*³ kolaboratzailea.

Nolakoak diren? Ez zara segituan ohartzen, baina alaiak, atseginak dira. Nire kasuan, ni baino andre gazteago eta dotoreago bat merezi dute. Baina nirekin ere oso adeitsu jokatzeko dute, Bilibinek batez ere.

Hark esan dit:

–Bikiak gaituzu, Nina Sergeievna, zuk nahi ala nahi ez: egun berean iritsi ginen, auto berak ekarri ginen tren-geltokitik, eta solairu berean ditugu gelak.

Bere adeitasun oldarkor, ausart hartan bazuen erabat konbentzitzen ez ninduen zerbait. Autoan bertan ere txoko batean ezkutatzeko nintzen haren adeitasunetik, haren antzezle ahots baxu, ederra entzunda. Auto gidariarekin ziharduen denbora guztian, baina niretzat ari zela sentitzen nuen. Horrexegatik ez nion erantzuten.

–Ukrainako frontean –ari zitzaion oraintxe kazetariari–, udaberrian ez aurrera ez atzera geratzen ginen lokatzetan. Lokatzak erabat galarazten zizun mugitzea; autoak ezin ziren igaro, eta zer egin behar duzu? Kolkhozen inbidia izaten genuen; haiek bai, erraz mugitzen ziren beren idiekin. Gidariak, idiak ikusita, «Mu-Mu 2 dira», esaten zuten. Mu-Mu 2 markako autoak...

3 *Literaturnaia Gazeta (литературная газета, Literatura Aldizkaria)*: 1929an sortutako literatura aldizkaria, Stalinen garaian Alderdi Komunistak markatutako bideari estu-estu atxikitzen zitzaiona.

Kazetaria barrez hasi da. Ni ez. Baina Bilibinek nire arreta erakarri behar zuen, inondik ere.

–Zertan ari zara lanean orain? –galdetu dit, aza eskainiz–. Har ezazu, bitamina asko du...

–Ba, zera... –erantzun diot, zehaztu gabe–, itzulpen bat egiten.

Bilibinek jaka higatu bat darabil, oinetan feltrozko botak, baina itxura dotoreagoa du beharbada kazetari gazteak bere traje argiarekin eta inportazioko gorbatarekin baino.

Badu ukitu handientsu, dotore bat bere mugimendu geldi, pausatuetan, bere bizkar zabaletan. Langile-esku zabalak ditu, baina azkazalak leunduak, luzeak.

Gizonezkoek adeitasunez itxaron dute krema bukatu dudan arte. Ondoko mahaian poltsa baten itxituraren klaska, tapoi baten eztanda eta barreak entzun dira. Zinema-zuzendaria zen, bere andreari ardoa eskaintzen, nahiz eta goiza izan. Jantziaren lepo zuri handia eta urre-koloreko kizkur oparoak freskoagoak ditu aurpegia baino.

–Gaur jende gutxi dago jangelan –esan du andreak, jangela osoari begiratur–. Ostatur dauden guztiak jaitsi gabe egongo dira oraindik, seguru asko.

–Norekin dago? –galdetu du zinema-zuzendariak gogo txarrez.

Bilibin bere eleberri berriari buruz ari zitzaigun kazetariari eta niri. (Aurrekoak irakurri gabe dauzkat). Siberiako ikatz-meatzeei buruz, harrikatza ustiatzeko teknologia berriez, mekanizazioaren sarrerari buruz omen dihardu. Ekoizteko sistemei buruzko liskarrekin batera, familia baten barneko liskarrak ere nahasten omen dira. *Znamia*⁴ aldizkarian onartua dute dagoene-

4 *Znamia* (Знамя, *Ikurrina*): joera kontserbadoreko literatura aldizkaria.

ko; alderdiko antolamendu-idazkariaren pertsonaiari leku gehixeago emateko eskatu diote, besterik ez.

–Sei ordu egiten ditut egunean eserita, alderdiko antolamendu-idazkariaren pertsonaiari leku gehiago emateko –esan du Bilibinek bere aurpegi zabal, bekoki-garai eta sudur-mehea niregana biratu eta bere begi hori lasaiez niri begietara zuzen begiraturaz–. Horretarako etorri naiz.

Haren begietan inolako gaiztakeriarik ez zegoen, baina, zabalik bazeuzkan eta zuzen begiratzen bazidaten ere, zerbait ezkutatzen zutela iruditu zait.

Mahaitik jaiki naiz. Solaskideek ateraino lagundu didate.

–Askoz ere itxura hobea duzu, benetan –esan dio Bilibinek guregana zetorren emakume begi-beltz bati. Irribarre egin dio, bere hortz txikitxo erregularrak erakutsiz–. Ez izan beldurrik, ez izan beldurrik, ez dizut begikoa egingo! Nire begiak onak dira.

Gelara igo naiz.

...49ko otsaila

Gauean bihotz-taupadek esnatu naute. Malkoak zerizkidan ileetan behera eta belarrian kilima egiten zidaten.

Gauza izugarriren bat gertatua zen, baina ezin gogoratu zer. Ez dut ametsa bera gogoratzen, sentituko izua baizik.

Ohe zabal bigunean etzanda nago. Odola kolpeka ari zait belarrietan, bihotza ezin oneratu kolpe bakoitzaren ondoren.

Gaueko isiltasun trinko, beltzak inguratzen nau. Iluntasuna ukitzeko, eskuztatzeko gogoia ematen dit, ehuna balitz bezala.

Argia ezin da piztu; indarretxea gauean ez dabil. Eta bularrean halako izua edukita, hobeto honelaxe jarraitu, ilunpetan.

Zer izan ote da? Bihotza kolpeka ari zait eztarrian, belarrietan, lokietan; bularra eta, badirudi, gela ere betetzen dit taupada bortitzez. Baliteke Alioxaren heriotza berriro ikusi izana.

Baina zein? Nolakoa? Bidean? Lagerretan?⁵ Galdeketetan?

Haren azkenaz ez dakit ezer eta, horrexegatik, edozein ere berdin dit nire imajinaziorako.

Baina udazkenean uraren ertzeko harrizko eskaileretan izandako solas hartaz geroztik askotan etortzen zait Alioxa galdeketa batean hiltzen delako ametsa. Zenbat aldiz egin ote dut amets haren heriotzarekin? Nire egunkarira begiratzuz zenbatu ditzaket zehazki, baina, egia esan, inoiz ez dut aldean erabiltzen... Beste modu batera ere kalkula nezake: 40an hasi zen, udazkenean, lanbro mehe batez, nire lagun batek bat-batean moilan elkartzeko deitu eta eskaileretatik bertan hiltzeko moduko hotza zerion ur beltzerantz jaitsi ginenean –han behean, uraren ondoko granitozko harlauza lau haietan, han seguru geunden, han ez zegoen ezer eta inor–, eta, lehengusu batek esanda, galdeketei buruz zekienaz hitz egin zidan; lehengusuak, 39an aske utzitako batek sekretupean esanda zekien. Lehendik ere bagenuen zerbaiten susmoa, jakina, baina ez ginen ausartzen susmatzen genuena sinestera, eta orain susmoa egia gertatzen zen, eta seguru genekien, beraz, zergatik aitortzen zuten denek eta zergatik salatzen zuten elkar. (Orduko hartan behatzarena ere galdetu nion: zenbat minutu eutsiko zenioke, zure us-tez, behatza atez harrapatuko balizute? Eta galdera batez erantzun zidan: Eta zuk?). Eta harrez gero, hamar urte egingo du aurki, amets hori finkatu zait nire gaue-tan: galdeketa, eta Alioxa galdeketa hiltzen.

Gaurkoan, ordea, ez zen hori. Arretaz begiratu dut gelako iluntasun sakonera, ezabatutako ametsaren islak oraindik ere hartan geratu ahal izango balira bezala.

5 Lager: Sobiet Batasunean, lan behartuzko eremua.

Gaurko ametsean Alioxaren beste era bateko azkena agertu zait. Nolakoa? Bagoi batean? Ez, ez zen hori.

Eta zergatik agertzen zait ametsean beti haren azkena galdeketa batean izatea? Baliteke hala izatea ohitura: behin agertzen dena, egon seguru berriro eta berriro agertuko zaizula. Zergatik azkena beti galdeketa batean, Alioxa oraindik ere batetik bestera zerabiltenez. Zein ahaztu ezinak niretzat datak! 38ko urtarrilaren 5ean kartzelako leihatilan erantzun zidatena: «Joan egin da!». Nora? «Berak idatziko dizu». Eta fiskalarenean, handik bi egunera: «Hamar urte postazko harremanik gabe, ondasunak bahituta... Aske geratzen denean, berak idatziko dizu». Horrek esan nahi du galdeketa guztien ondoren jarraitu egiten zuela gauzak, eta galdeketa eta galdeketa agertzen zitzaizkidan ametsetan. Ezagutzen ez den gauzarik ametsetan ikusten ez delako, seguru asko: etapak⁶, lagerra. Handik etorritakorik artean inoiz topatu gabe nengoelako. Lagerretik etorritakorik. Pentsatu ere ezinezko izumena zen niretzat. Gainerakoan, ez zidan eragozten lo egitea. Ipuinetan ametsek gauzak esaten dituzte. Horretarako dira ametsak. Ametsek badute beren ohitura. Nahi dutenean etortzen dira, eta nahi dutena esaten dute. Eman dezagun, adibidez, amets hau, «Alioxaren heriotza galdeketa batean». Egiaz nolakoa izaten zen kontatua bazidaten ere, nik ez dut hori ikusten zehazki. Honela ikusi beharko nuke: mahai bat, instruktorea, aulki bat, lanpara bat, gaua, bi morroi jotzera sartzen. Baina hotza darion ur astun, beltz bat ikusten dut beti; ura eta isiltasuna. Bai, ikusi egiten

6 Etapak: presoak lagerretara eramatean edo lager batetik bestera aldatzean, aldi baterako edukitzen zituzten erregimen gogorreko lager txikiagoak.

dut isiltasuna: lurruna bezalaxe jaikitzen da. Isiltasun-bafadak. Hori da Alioxa galdeketa. Makila batzuez uretara bultzatzen dute. Isilik beti. Granitozko ertzetik geroz eta gertuago. Hanka batek irrist egiten dio dagoeneko; aurki besteak ere irrist egingo dio; hori da «Alioxaren heriotza galdeketa batean». Garrasi egiten dut eta esnatu egiten naiz. Bihotzak gurpilek burdinbideko junturetan bezala egiten dit durundi.

Baina gaurkoan beste era batekoa izan da Alioxaren azkena. Bestelako izumen bat.

Bizkarrez behera jarri naiz, eta bi belarrietaraino isurtzen zitzaizkidan malkoak.

Zein ilunpe goibelak. Ihesi zihoakidan ametsa ezkutatzen zidaten.

Eta, bat-batean ilunpetatik agertu da. Zergatik esnatu naizen gogoratu dut. Ametsa hemen zebilen oraindik, inguruan, gelatik irten gabe, horregatik harrrapatu ahal izan dut, seguru asko.

Ez zen Alioxaren heriotza, haren itzulera baizik. Itzuli delako izumena. Itzulian zetorren, baina ez niregana.

Bigarren aldia zen horixe amesten nuena.

Alioxa bizirik zegoela. Pertsona arrotz baten bidez, Alioxaren lagun ezezagun baten bidez jakiten nuela. Pertsona hori ez nuela ezagutzen; Alioxaren laguna zela, besterik ez. Katia haurtxoa zen garaiko gelan geundela; parketak arrosa-hori koloreko orban bat zuela, eta Elbi, haurtzaina, jaia ospatzeko zapi batez igurzten ari zela iruditzen zitzaidala ametsean. Alioxaren lagunak ez zidan aurpegira begiratzen, albo batera baizik, eta begirada horretatik ulertzen nuen Alioxa bizirik zegoela, adiskideek bazekitela non zegoen, baina ez ninduela ikusi nahi. Erruduna nintzen. Alioxak

kondenatu egiten ninduela, betirako berezita egotera
kondenatzen ninduela. Zergatik?

Ez naiz saiatu bere alde,
Zerbait ukatu diot?
Beldurra eta guzti ematen zidan
Zenbat maite nuen esateak.⁷

Ohe apal bigunean nago etzanda. Isiltasun beltz
sakona. Bihotza taupaka dabilkit, zirku bateko kupula-
ren azpian ari eta sarera erori izan banintz bezala.

Gaur ohartu naiz zertan dudan errua. Ametsean
ulertu dut. Bizirik nago. Hori. Bizirik nago, bizirik ja-
rraitzen dut, bera makilez bultza eginda uretara bota
dutelarik. Une batez itzuli da, hori aurpegiratzeko. Ho-
rregatik egin dut amets.

7 Nikolai Nekrasov (1821-1878) olerkariaren poema batetik: *Neguak, sudurra gorri*.

...49ko otsaila

Egongelan kartatan eta xakean ari dira, flirtean, egunkariak irakurtzen eta irratia entzuten.

«Planto» entzuten da korridorean, esatariaren intonazio errepikatuaren gainetik; «bat gehiago». «Ez da niretzat». «Paso». «Beste jokaldi bat?».

Egunkariak irakurtzera sartu naiz. Irakurri egin behar dira egunkariak!

Bilibinek kartak bertan behera utzi eta sofa sakon bat eskaini dit. *Pravda* hartu dut. Bilibin, zinema-zuzendaria, andre begi-beltza eta kazetaria lehentasunetara jokatzeko ari dira. Zinema-zuzendariaren laguna aparte samar dago eserita, sofa behe batean, irrati ondoan, hura entzuten ariko balitz bezala. «Stalin kamaradaren idazkien tomo bakoitza ekarpen ezin baliotsuagoa da gizadiaren ondare ideologikoarentzat» –ari da esaten esataria.

Andre begi-beltz haren lepo meheak, haren jantziaren eskotetik behera zetorren harribitxiekiko kateak... halako ukitu xarmagarri eta naif bat zutela iruditzen zitzaidan. Hain da pollita, hain alai, hain doctorea. Ez da idazlea. Norbaiten emaztea, seguru asko.

Egunkariak irakurrita ez dut ezer garbirik atera, ohi bezala. Gauza bitxia: alfer-alferrik saiatsen naiz egunkariak irakurtzen. Irakurri bai, irakur ditzaket, baina ez naiz ezertaz enteratzen. Hizkiak hitzetan konbinatzen dira, hitzak lerrotan, lerroak paragrafotan, paragrafoak artikulutan, baina ideiatan, sentimendutan edo iruditan ezer ez.

«Sobietar agintariak eta kolkoz-sistemaren garaipenak lehortearen ondoriozko zoritxarretatik babestu dituzte nekazariak. Alderdiak eta gobernuak herrigintza-zentzua eman diote lehortearen kontrako borrokari. Izadia berrantolatzeko plan handi honek berriro erakutsi du alderdi boltxebikeak eta sobietar agintariak gure aberriarekiko duten arreta aitatiarra».

Irakurtzen dut eta letrak baizik ez ditut ikusten. Eta elkarri lotutako estenografia-ikurrak. «Herrigintza-zentzua», ikur bakarrean aise lotzen diren bi hitz. Forma kateatu bat. «Izadia berrantolatzeko plan handia», lau hitz horiek ere aise adieraz daitezke ikur bakar batez. Urteak dira estenografia-lanik egiten ez dudala, baina oraindik ere nahi gabe marrazten ditut hitz edo adierazpen multzoak buruz edo belaun gainean. Lehortearen kontrako borrokaz ezertaz enteratu ez naizenez, xakeaz irakurtzen saiatu naiz.

«Kultura sozialistaren ezin aienatuzko elementua den aldetik, nekazari-masen kultura-formakuntzarako baliabidea bilakatu da xakea».

Isbetan gaztetxoak eta agureak eta xake-
taulak imajinatzen ahalegindu naiz, baina ez dut lortu. Eskuak automatikoki marrazten zituen formula kateatuak: «ezin aienatuzko elementua», «kultura-formakuntzarako baliabidea». Marrak. Termi-

noak. Haien atzean ez isbarik eta elur pilarik... Bertan behera utzi dut egunkaria.

Horrexegatik, beharbada, ez naiz gauza egunkariaren bidez ezertaz enteratzeko, gauza bakar bat jakin nahi baitut, izan ere, eta horrixe buruz ez dute idazten haietan.

–Udaberrian, nolana ere, hobeto egoten da bainuetxean –esan du emakume begi-beltzak, Bilibingandik kartak hartuz (hura ari zen banatzen)–, ez esan ezetz, epel egiten duenean alaiagoa da, nolana ere. Udaberria datorrenean ezin menderatuzko indarrak sentitzen ditut pizten nire baitan, izadi osoarekin batera...

Haren lepoa ez zitzaidan xamurgarria iruditzen dagoeneko. Lepo zuri bat soilik. Zinema-zuzendaria, berriz, arras animatu da.

–Benetan? –galdetu dio, interesaturik–. Zer sentitzen duzu zehazki udaberria datorrenean?

Andreak, irratiauren aurrean eseririk, botoiari eragin dio, eta irratia uluka hasi da, sirena baten moduan.

–Ai, Jaungoikoa! –egin du oihu Ladok–. Ez bada-kizu, ez ukituta hobe!

Literatura Aldizkaria zabaldu dut. Bilibin kartak jasotzen ari zen. Jokoa bukatua zuten, itxuraz. «Sobietar literatura gorantz» –irakurri dut lehenengo orrian.

«Herriak maite dituen obrak», «eragin handikoak», Pasternaki buruzko paragrafo bat irakurri dut; nahiago omen du herriaren egintzetatik kanpo geratu eta autoanalisi egin.

–Ikusten duzu, kartetan aritzeaz aparte hemen zer eginik ez dagoela –esan du, apetatsu, andre begi-beltzak–, udaberrian, berriz, zoragarria da.

–Ez zara askorik agertzen egongelan –esan dit Bilibinek, jokalariei eskerrak eman eta bere aulkia nira ondoratuz–. Gelara zoazenean, lasterka igarotzen zara gu bekatarion ondotik. Desatsegina halakoa.

Haren begi horiak arretaz neuzkan begira, begiradaz deika ari balitzaizkit bezala. Handik une batera, ordea, berriro itxita zeuzkala iruditu zait.

Oso itzulpen neketsu batean dihardudala esan diot, eta sendagileak pasiera gehiago egiteko agindu didala, eta tratamenduak ere bere denbora behar duela. Egongelan eserita egoteko astirik ez dudala, horra.

–Baina bakar-bakarrik paseatzen tematzen zara –esan dit Bilibinek–. Benetan ihes egiten ez badiguzu, gure Sergei Dimitrievitx jatorra hartu eta elkarrekin joango gara afalondoan. Ados?

Ez zegoen zer eginik; beraz, mahaikide guztiak atera gara afalondoan: Bilibin, kazetaria eta hirurok. Eta, hara norenak ziren eskulekua otso baten buruaren itxurakoa zuen bastoia eta lepokoa igaraba larruzkoa zuen zamar dotorea: kazetariarenak. Askotan begiratu diet, neure buruari galdetuz, eta neuretzat pentsatu: norena ote da hori? Hara norena!

Asfaltatutako bide zabaletik abiatu gara, huraxe delako alboetan farol-argiak dituen bide bakarra. Hotz egiten zuen; maldan behera errekarantz jaitsi gara, elkarri besotik helduta. Dena isilik zegoen, elurra lodi, herrixka bateko baretasunaz, eta indarretxeko tik-tak hotsak baizik ez zirudien tokiz kanpokoa eta hiritarra. Berehala utzi diot entzuteari. Bide ertzetako basoa, beheko troka, izar distiratsuak goian, isiltasunez jantzita zeuden. Maldan behera gindoazen, irrist ez egiten ahaleginduz, geroz eta beherago, geroz eta errekatik hurbilago. On egiten zidan haiekin batera ibiltzeak, nire esku izoztuak haien besapean sartzeak eta haien

solas astitsu, sosegatuak entzuteak. «Pospoloak ez dituzu ahaztu?». «Bihar jende asko omen dator, Ludmila Pavlovnak esan didanez». «Eta sukaldari berri bat probatu behar dute». «Krema bat izango ahal da, eta ez sukaldaria». Hain nagusia zen elurraren, zuhaitzen, zeruaren isiltasuna, non hasieran geuk ere nahiago baikenuen isilik egon, edo gutxi eta ahots beheran hitz egin, hitz eginez gero. «Oinak ez zaizkizu izozten?». Zuhaitzak ilun, garai, ordena gabeko ilaratan hurbiltzen ziren bidera. Izei-horma trinko bat eta, haien gainean, ilargi distiratsua.

–Begira, hilobi bat –esan du kazetariak, eta arin jauzi egin du zangaren gainetik, baso aldera.

Bilibin eta biok bertan geratu gara.

Sergei Dimitrievitx makurtu eta elurrak erabat estaltzen zuen tontortxoa ukitu du, bizkarra laztanduko balio bezala.

–Gudu handiak izan ziren hemen –esan du Bilibinek–. 41eko neguan... Leiho ondoko mahaitxoan, hirugarren mahaian, bada dominak dituen olerkari judu bat. Ikusi duzue? Ile-zuri sendo bat. Veksler. Hementxe aritu zen borrokan, alemanak Bukovotik kanpora bota zituen.

Zutik egon gara. Tontortxoa, elurrez estalita, zuri-zuri nabarmentzen zen gure aurrean. Kazetariak zanga gainetik bidera itzultzeko jauzi egin du eta besotik heldu dit berriro. Erdi ilunetan aurrerago jarraitu dugu, begiak dagoeneko hartara ohituta geneuzkan eta.

Gure hankapean zubi baten durundia entzuten hasi da. Elurrak arrasto lodi, luze, betiberdin bat eratzten zuen haren barandan.

–Entzun adi, errekatxoa entzuten da, ez dago izoztuta –esan du kazetariak.

Gelditu egin gara. Eskuak haren mahukatik askatu ditut. Barandara hurbildu gara, zein bere aldetik.

–Ez, ez da entzuten –esan du Bilibinek.

–Ez, entzun ondo, entzuten da –errepikatu du kazetariak, burugogor.

Entzuten saiatu naiz. Lastima elurrezko zamau hura hondatzea, baina kazetariak dagoeneko jarria zuen bere bastoia baranda gainean, eta nik ere ukalondoaz elurra hondatzea erabaki dut. Kazetariak, belarria luzaturik, betaurrekoak zerbaitetarako kendu dituean, haren aurpegiak onbera, haur batena zirudien, zamar eder-usteko hura eta bastoi hura bereak ez baliu bezala.

–Bai, entzuten dut –esan dut.

–Batuetan bai, bestetan galdu egiten da –onartu du Bilibinek–. Gera gaitezen pixka batean.

Geratu egin gara, basora eta elkarri begira, errekatoaren xuxurla igarotzen zuten kolpe errepikatuak entzunez.

–Zer dugu gaurko egunkarian? –galdetu du Sergei Dimitrievitxek–. Irakurri duzu, ezta? Nik ez dut begiratu. Nola gaiztotzen gaituzten oporrek! Neure egunkaria ere ez dut irakurtzen-eta. Hamar egun dagoeneko, zin degizuet.

–Ezer berezirik ez –erantzun diot. Horretan arrazoa beharbada oporrek ez zirela iruditzen zitzaidan. Basoaren, elurraren presentzia, muino gaineko izeiak, hori da egunkariak irakurtzea eragozten duena.

«Musikarekin!» –gogoratu naiz.

–Badirudi berriro kargu hartu diotela Pasternaki –esan du Bilibinek, hitz horri erantzungo balio bezala. Doinu zehaztugabeagatik ezin asma zitekeen olerkaria aintzat hartzeko zen ala ez.

–Nork? –galdetu du kazetariak.

–Deituraz ez naiz gogoratzen. Bertso batzuk aipatzen ditu eta ezin ulertuzkoak direla esaten du.

–Eta egia da ezin ulertuzko moduan idazten duela –esan du gaitzespen-puntu batez kazetariak–. Oraindik aspaldi ez dela emazteak ahots goran irakurri zizkidan, eta barre ere egin genuen: ezer ez da ulertzen. Badu zerbait aise sartzen ez dena. Eta guk ulertzen ez badugu, nork eta guk!, nola ulertu behar du herriak? –gaitzespen itxuraz isildu da–. Pasternakek talentu handia du, jakina, nork ukatu, eta baita aliterazioak, forma ederra eta hori dena, baina esanahia ez du pentsatzen. Zentzurik ez du. Irakur iezaiezu hemengo neskei, Anari, Lisari, Bukovokoei edo Kuzminskokoei: ez dute deusik ulertuko.

–Jakina –azaldu da ados Bilibin, bizkor asko.

Ni ez naiz segituan hasi. Hatsa behar nuen. Kazetariaren begi miope onberak eta Bilibinen ahots neurritsua eta une horretan hiruak isilik egotea gorrotagarri bihurtzen ari zitzaizkidan dagoeneko.

–Eta Baratinskiri⁸ ulertzen diotela iruditzen zai-zue zuei? –esan diet, geldiro eta bare hitz egiten hasiz–. Bukovoko herriko neskek? Eta Fet?⁹ Nahikoa lan; bertsoak beraiek ohiturik ez dauden pentsamolde bat dira, gainera. Hortaz, zer, gure klasikoak ezabatu eta alemanei oparituko dizkiegu, ala zer? Aniak eta Lisak ez baitituzte ulertzen, atzo arte ozta-ozta ikasi baitzuten irakurtzen. Dolmatovskirekin¹⁰ ikasarazi baitzieten... Eta zeuek ere, ulertzen al dituzue klasikoak deituak, Puxkin adibidez? Nahikoa lan, baina eskolako urteetatik ohituta zaudete ulertteraza dela uste izatera... –ez nien begiratzen lagunei, zerumugako norabait begira-

8 Baratinski (1800-1837): errusiar olerkaria.

9 Fet (1820-1892): errusiar olerkari liriko eta mistikoa.

10 Dolmatovski (1915-1994): errusiar olerkari ortodoxo garaikidea, apaindura zalea.

tzen nuen-. Eta zergatik iruditzen zaigu olerkari bati dena eta beti uler diezaiokegula? Gure aurretik baitabil. Baso honek, hizkuntza honek, herri honek sortua da, eta aurrerantz urruti igorria. Hain urruti ere, non ezkutatu egiten baita igorleen bistatik. Gure eginkizuna, irakurtzen dakigunona, ahal dugun heinean ulertzea eta, ulertu ondoren, poz hori Aniari, Lisari iritsaraztea da... Gure betebeharrak horretatik urrunduz gero, traizioa egiten diegu... olerkariari eta Aniari... ulertuko balu goratu egingo bailitzateke... bera ez bada, bere haurrak... Harrokeriaz esaten dugu «ez dut ulertzen!», baina zertaz harrotu gaitezke, harrotu? «Jeginuarekin bat egin behar dugu» -idatzi zuen Puxkinek.

Biratu eta bakarrik igo dut aldapa. Hori dena aspaldidanik barrenean borborka ari eta kazetariaren hitz haiek -«Emazteak eta biok barre egin genuen gau batean»- eraginda bat-batean kanpora isuri izan balitzait bezala. Nolako harrokeria «emazteak eta biok» horretan! «Literatura Aldizkariko lankidea», a zer aditua olerkigintzan! Nekez hartzen nuen arnasa, haserreagatik eta aldapagatik. Gelditu egin naiz, lagunei itxaroteko eta arnasa bueltatzeko. Urrutitik, zubitik niregana geldiro, ur ilunetan bezala, hurbiltzen ikusten nituen haien irudi ilun handiak. Ni gabe bakarrik geratu direnean, soinak altxatu eta elkarririribarre egingo zioten seguru asko... Unetxo bat lehenago koldarkeria eta saldukeria lotsagarria irudituko zitzaizkidekeen isilik geratzea; orain, berriz, lotsatzen hasia nintzen hitz horien gehiegikeriagatik. Norekin ari nintzen hitz egiten! Jende arrotzarekin. Zerk behartzen ninduen barrena zabaltzera!

-Barkatzeko eskatu behar dizugu, Nina Sergeievna -esan dit biziro Bilibinek eta besotik heldu dit-, oker egin dugu, ez dugu zuzen jokatu gure aldetik, gehien

estimatzen duzun olerkariaz horrela hitz eginda. Baina erruki pixka bat merezi dugu, nik uste: ez genekien hainbesteraino estimatzen zenuenik. Eta aitortu beharra dut egia handiak daudela zure hitzetan.

Albait lasterren itzuli nahi nuen etxera, nire gela urdineko isiltasunera. Etxeak hiri-argiz distirutzen zuen gure aldera. Haien besoen beroa desatsegina iruditzen zitzaidan dagoeneko. Zertarako beheratu naiz nire irekitasunaz jende arrotzaren aurrean? Bakarrik egon nahi nuen. Bizkor nenbilen eta pausoa bizkortu beharra izan dute nirekin batera ibiltzeko.

...49ko otsaila

Gaurko eguna zorionez bete da.

Lo zerraldo egin dut eta goizean, salto batez jaiki naizenean, artean oinutsik nintzela, gortinak zabaldu ditut. Leihoaren beste aldean distiraz zegoen dena. Muino gainera igotako izeitxoia ez zen dagoeneko berdea, zuria baizik. Diamantezko negu distiratsua hasten ari zen!

Atzoko ergelkeriagatik neure burua ez gutxies-ten ahaleginduz, bizkor-bizkor jantzi eta gosaltzera jaitsi naiz. Nire bi kideak mahaian zeuden dagoeneko, bizarra moztuta, alai. Fusil kargatu bat banintz bezala tratatzen naute gaur: katua ukitu ere ez. Barregura ematen zidan. Andre deserosoa suertatu... Gaur neure indar guztiaz ahalegindu naiz bigunki jokatzeko, solasa Ludmila Pavlovnaren orrazkera, eguraldia edo menua baino harago behin ere eraman gabe. Esnegaina eskaintzen zidaten, haren onurak azaltzen zizkidaten, piperbeltza beste mahaietatik ekartzen zidaten, eta adeitasunezko mugimendu arduratsu horietako bakoitzean atzo gertatuaren izua ikusten nuen nik. Ez atzo esandakoaren egiagatik, ez; hitz egiteko modu zakar,

urduriagatik baizik, ez baitzen batere egokia bainuetxe baterako, gutxiena esateagatik. Hona atsedean hartzera etorriak baziren, zertarako eztabaidak? Arnastu deza-gun aire garbia eta kontsumitu ditzagun bitaminak! Nahikoa urduri ibiltzen gara, bestela ere, hirian gaudenean!

Gosaldu bezain laster, Bilibin eta Sergei Dimitrievix egongelan besaulki bigunetan hondoraino sartu eta tabakoa erretzen hasi direnean, hallera joan naiz lasterka, janztera. Bilibinek begiradaz jarraitzen zidan, baina ez da jaiki.

Bizkor-bizkor jantzi naiz, atzetik etor ez zitezen. Lehenbailehen alde egin nahi nuen handik, zuritasun distiratsura, bakar-bakarrik. Sarrerako ate astuna atzean blokatuta utzi dudanerako, hallean entzuten nituen haien ahotsak. Haize izoztuak bekokia erretzen zidan, eta arnasa hartzean izotz-mutur zorrotz bat irensten ari nintzela iruditzen zitzaidan. Atarian geratzea gustatuko zitzaidakeen, horren argitasun eta oparotasun zoragarriaz eskaintzen zitzaidan dirdira izoztu guztia begirada bakar batez besarkatzeko; baina atzetik ahotsak iristen zitzaizkidan, eta ia korrika igaro dut etxe aurreko plazatxoa, zuzendariaren etxetxoaren ondotik, arropa izoztuaren ondotik, harantz, basorantz. Elur-tontor garai bigunen arteko bidezidorrera iritsi naizenean, gelditu naiz noizbait ere, eta ingurura begiratu dut. «Dirdira» hitz hauskor horrek ezpainak zimurtzen zizkidan. Zein zehazki egokitzen den adarretako brodalan izoztuarekin! Dirdira. Hitz hauskorra, abartxo mehe, zorrotza bezala. Urkien oinetan elurretan jolas egiten duten txinparta berde-urdinak bezala. Hozkirria ematen du.

Geldiro-geldiro jarraitu dut bide zidorrean aurrera. Eskularrua kendu eta elur pila ukitu dut. Gaur

gogorra zegoen: haren azal zimur, dirdiratsuak ziztatu egiten zuen. Isiltasun zurian eskulptutakoak bailiran zutitzen ziren inguruan urkiak. Erpinak zerurantz. Bazirudien haien abartxo zuri hauskorrek dilinka egin behar zutela zeruko kupula ukitzean. Han goian bada, seguru asko, dilin-hots arin, dardarti bat.

Pauso batzuen kirrinkak izutu nau: ez dira nire kideak izango? Ez, neska bat zetorren bidezidorretik, buru-zapiarekin, zamarra bigungarridunarekin eta feltrozko botekin. Buru-zapiagatik, aurpegi-biribila zirudien. Masailak, sagarrak bezain gorriak.

–Egun on! –esan du ozen, eta elur sakonetan sartu da, bidezidorra niri utzirik. Urki batek agurtu nahi izan banindu, agurra ahots hotz, ozen harexez egingo zukeela iruditu zait.

Basoa berehala bukatu da. Urruti, muino baten gorenean, elurretan ezkutatzen zen Bukovo. Haren aurreko zabaldi elurtuan, soroak zabal, eta atzean basoa. Elur-lera batek zapaldutako marka distiratsuak soroe-tan zehar zihoazen herrirantz.

...Eta ikusiko ditugu soro hustuak,
behinola trinkoak izandako basoak,
eta hain maite nuen ibaiertza,¹¹

orduantxe ohartu naiz eta garbi geratu zait lehenengo aldiz ulertzen nituela bertso haiek. Honetaz ziren, honetaz! Eta ibaiertza, zoriontasunaren ibaiertza zen. Azkeneko bertsoak malkoak eragin dizkit begietan, gaur denak bezala, arnasten ari naizen haizeak bezala; ziztatu egiten naute malkoek.

...hain maite nuena!

11 Puxkinen olerki batetik: *Neguko goiza*.

Zoriontasunaz esaten zuen hori, oraingo zoriontasunaz edota joandakoaz, galdutakoaz, beharbada.

Goizeko elurretan irristatuz,
adiskide maitea, goazen lasterka
zaldi egongaitz honen gisan.
Eta ikusiko ditugu soro hustuak,
behinola trinko izandako basoak,
eta hain maite nuen ibaiertza.

St, s eta tz horiek elur-lerak soroak igarotzean egindako bidearen arrasto distiratsua dira. Patinen dirdira. Eta maite izandako ibaiertza, zoriontasunaren oroitzapena.

Eta ibaiertz hori orain biek elkarrekin ikusten dutelako ote da maitea?

Elur-lerak utzitako arrastoari jarraitu diot, egi-ten duen mika-distiragatik begiak erdi-itxirik. Eta bat-batean pentsatu dut: alemanak hemen izan ziren. Hementxe ibili ziren orain dela zortzi urte, bide honetan, herritxo honetatik baso honetara. Hori lehendik ere banekien, baina harrituta geratu naiz, oraintxe jakin izan banu bezala.

«Eta ikusiko ditugu soro hustuak», bertso horiek ez zituzten ulertzen; zer eskubide zuten hemen, beren arrastoak elurretan utziz ibiltzeko? Haientzat hau ez zen ez soroa edo basoa, lurralde bat, leku bat baizik.

«Ikusiko ditugu», lagunak ikustera doalako; baina Puxkinek soroei eta basoei buruz esan zuen hori. Zuhaitzak eta erreka pertsona maitatua bezalakoak ziren harentzat.

Bat-batean oso nekaturik sentitu naiz... dirdira zuriarengatik seguru asko. Atzera itzuli eta, bidetik elurretara desbideratuz, etxerantz jo dut. Aurrera baizik ez nuen begiratzen, ez urkietara, ez elur-piletara;

isiltasun distiratsua handiegia zen, ezgauza nintzen hartaz guztiaz jabetzeko.

Nire izpiritua dardarazten didan
erreinu zuri hilean,
ahots beheran xuxurlatzen dut:
«Eskerrik asko!
Eskatzen zaizuna baino gehiago ematen duzu».¹²

12 Pasternaken olerki batetik: *Antzigarra*.

...49ko otsaila

Orain badakit noiz hasten den isiltasuna hemen, etxean, noiz ez diren entzungo ezta dominoaren klaska-hotsak ere egongelan, ezta Ludmila Pavlovnaren pauso-hots arinak ere, ezta irriaren ahots nekagarria ere. Indarretxearen tik-tak zintzo, nekazina bakar-bakarrak. Astean hiru aldiz gertatzen da hori, arratsean, gure kultura-arduradunak¹³ beste film berri bat ekartzen duenean. Denak joaten dira ikustera. Denbora horretan murgildu zintezke hotsen batek edo hitzen batek, hirian gertatu ohi zen bezala, azalera ateratzera behartuko zaituen beldurrik gabe. Telefono-hotsa: nor ote da? Ateko txirrina: lau aldiz jo dute?¹⁴ Eztabaida sukaldean, nire ate ondo-ondoan. Elisabeta Nikolaievna izeba Dusia amorrarazten berriro. Hanketatik lotuta eskaileretan gora arrastaka eramango bazintuzte eta eskailera maila bakoitzean kopetaz joko bazenu

13 *Kulturnik*(*культурник*): bainu-edoopor-etxebeteankultura-propagandaren arduraduna.

14 Sobiet Batasuneko hirietan, iraultzaz geroztik eta Bigarren Mundu Gerra igaro eta nahikoz geroago arte, *komunalki* edo apartamentu-etxeetan bizi ohi zen jendea, familia bakoitza gela batean edo bitan, komuna, sukaldea, korridoreak elkarrekin partekatuz. Kanpotik zetorren bisita norentzat zen jakiteko, txirrin-joaldien kopuruaz bereizten zen.

bezala. Zenbat eta sakonago lortzen nuen murgiltzea, orduan eta oinaze gehiagoz eta luzarago eramaten ninduten arrastaka.

–Nola gustatzen zaizu garagar-zopa? –galdetzen du izeba Dusiak–. Lodi samarra ala meheagoa?

–Zopak behar duen bezalakoa izan behar du –erantzuten dio Elisabeta Nikolaievnak eta erantzun ezin zuhurrago horrek bihotz-taupadak eragiten dizkit segituan. Haren hitz bakoitzean eta haren pauso bakoitzean nabarmen geratzen da bere buruaz inoiz lotsatzen ez den arima gisagabe eta bihozgabea. Ez da lotsatzen ez bere basakeriaz ez bere arrunkeriez. «Borx-aren ezaugarria erremolatxa da» –bota zuen behin. Beste hau ez dut inoiz ahaztuko: behin banuen migraina mingarri bat eta Katia izeba Dusiarenera joan zen, sukaldean zaratarik ez egiteko eskatzera. Elisabeta Nikolaievnak zerbait eskatu zion Dusiarri eta hark ahots beheran erantzun.

–Zergatik ari zara txutxu-mutxuka? –esan zion oihuka Elisabeta Nikolaievnak–. Hitz egin ezazu jende guztiak bezala.

Izeba Dusiak arrazoa azaldu zion: «Nina Sergeievna gaixo dago».

–Ba nirean ez. –erantzun zion Elisabeta Nikolaievnak, harro, ahotsa beheratu gabe. Eta bere gelara joan zen korridorean zehar, takoi-hotsa nabarmen atereaz.

Inoiz ez dut ahaztuko nola behin, gerra garaian, gure auzoko zoritzarreko beste emakume bat, senarra hil ziotelarik, zeukan apurtxoa saltzen hasi zen. Elisabeta Nikolaievnarengana joan zen bere atorra batzuekin.

–Nik horrelako atorrarik ez dut erabiltzen! –erantzun zion Elisabeta Nikolaievnak: bere atorrak ere ez

ziren inportaziokoak edo esportaziokoak, gauzarik normalena baizik.

Iruditzen zait hementxe hasi naizela ulertzen, urruti honetan, zertan oinarrizten den haren burgoi-keria hori. Bere bizitza guztian ezertan nabarmendu ez zen gizon baten emaztea izan zen eta, gero, ezertan nabarmendu ez den alargun bat. Bere bizitza guztian bi zeregin izan ditu: bahitura-etxeetara joatea eta neska-mea esplotatzea. Nondik datorkio bere harrokeria hori, zergatik portatzen da beti bere buruari meritu handi-
ren batzuk aitortuko balizkio bezala: Galina Ulanova¹⁵ eta Anna Akhmatova¹⁶, biak batera balitz bezala? Eta ez da akademiako andre baten maila- edo kasta-harro-
tasuna, pertsonaia handi bat delako sineste sendo bat baizik: «Nik horrelako atorrarik ez dut erabiltzen».

Ez du seme-alabarik izan; etxea gobernatzen –hau da, josten, adabakiak jartzen, pastelak egiten, fruituak bere garaian eta gozokiak egiteko azukrea erosten ere ez daki; etxea gobernatzeak neskamea es-

15 Galina Ulanova: dantzari nagusia, 1910ean jaioa; bere garaiko dantza klasikoko dantzari handienetako bat izan zen.

16 Anna Akhmatova (1888-1967): errusiar olerkari handia; Stalinen garaiko esepen aldietan asko pairatu behar izan zuena; Lidia Txukovskaiaren adiskidea izan zen. Bere lehenengo senarra, Nikolai Gumiliov (1886-1921) eta hirugarrena, Nikolai Punin (1888-1953) errepresaliatuta hil ziren. Bere semea, Lev Gumiliov (1912-1992) historialaria eta etnologia izan zen. 1938ko azaroaren 9an ezagutu zuten elkar Txukovskaiak eta Akhmatovak, beren senide atxilotuen bila ari zirenean. Lagun egin ziren eta hamarkada luzetan Txukovskaiak bere egunerokoan Akhmatovarekin izandako solasaldi guztiak idatzi zituen. Poeta hil eta gero ohar horiek hiru liburukitan argitaratu ziren.

Akhmatovak, lehen aldian batez ere, askotan idazten zizkion olerkiak papertxo batean Txukovskaiari, honek buruz ikas zitzen, eta behin ikasi zituenean, erre egiten zuten papera. Hala salbatu ziren Akhmatovaren olerki asko. Samizdatez ere asko zabaldu ziren. Badirudi inoiz Stalinek harrapatu izan zuela bere alaba Akhmatovaren samizdat horietakoren bat irakurtzen, eta haren olerki-liburu bat argitarazi zuela. Gero zirkulaziotik kendu nahi izan zuten, baina agortuta zegoen ordurako. Stalinek literaturaz bazekien...

plotatzea, esestea eta akusatzea esan nahi du, haren iritzian.

–Zer ekarri didazu? –esaten zion sukaldean oihuka izeba Dusiari–. Usainduta dago-eta; usaindu! Usaindu sakonago, sakonago! Sudurretik gertuago, ez du hozka egiten-eta! Esperientzia duen sukaldari bat bidali nuela uste nuen merkatura; zuk, berriz, usainduta dagoen antzara ekarri didazu, ume mukizu bat bazina bezala...

–Ni ez naiz sukaldaria, Elisabeta Nikolaievna, behin baino gehiagotan esan dizut. Nik etxeko lanak egiten dakit, besterik ez. Ez dut etxerik, badakizu, gerrakoan galdu nuen. Bestela inorentzako lanean arituko nintzela uste duzu... Eta ez du usain txarrik, gainera...

–Ez zara sukaldaria? Zer lanetan diharduzu orduan nire etxean, irakasle gisa? Ez dakit, sukaldari izateko hartu zintudan... Zoaz merkatura, saldu ezazu zure antzara hori eta ekar ezazu dirua. Eta ez hasi negarrez, ni ez naiz Biktor Petrovitx eta...

Biktor Petrovitx! Bost urte baziren hila zela, baina alargun kontsolaezinak min hartzen zuen oraindik ere hark jendearekin zuen tratu gozoa gogoratuta.

Oinpean zeukan, erabat. Katiuxa bera ere harritu egiten zen, eta xuxurlaka esaten zidan: «Nik honezkerro eman nion jipoi on bat!». Batzuetan matxinatzen ahalegintzen zen gure Biktor Petrovitx gaixoa, baina berehalaxe amore eman eta damutzen zen. Eta argi eta garbi entzuten genuen, bizilagunen lotsarik gabe:

–Ez zara hasiko negarrez! Hobe zenuke zure gibela zaindu, eskandalutxo hauek antolatu baino! –eta Elisabeta Nikolaievna ile-apaintzailearengana joaten zen, izeba Dusiari gogorki agindurik bera kanpoan zebilen bitartean ez ibiltzeko Biktor Petrovitxen inguruan

tantak eta eskuzapiak eskaintzen, lanari ekiteko baizik: asteko kontuak prestatzeko... Hemen, harengandik urrun, haren bizkar zuzena eta burua harrotasunez atzerantz botata gogoratuz, ulertu dut, azkenik, beste pertsona bat etengabe, ezin saihesturik eta erabat menderatze horrexek eragiten ziola bere buruaz halako uste handia izatea. Pertsona bat bakarra mendekotu zitzaion, bat baizik ez, baina hura guztiz, erresalburik gabe, zeharo. Eta horixe nahikoa, bere burua balioes- teko.

Zenbat murgilaldi ez zizkidan galarazi! Horregatik gogoratu naiz hartaz gaur, iritsi nintzenetik lehenengo aldiz ahalegintzen nintzelako murgiltzen. Eta hemen ere, harengandik ehun kilometrora, haren bortizkeria eta zakarkeria gogoratzen ditu nire arimak, eta han, hirian, Katiuxak, bere etxeko lanak egiten ari den bitartean, hormaren beste aldetik ahots gogor hura entzuten duela seguru jakiteak murgiltzea eragozten dit.

Eta, hala ere, gaur izan dut lehenengo murgilaldia. Saio bat besterik ez da izan, saio labur bat. Ahalegintxo soil bat, nire aldetik, zertan beldur izanik ez dagoela konbentzitzeko. Gela ikusten ari nintzen oraindik ere. Oraindik ere aldian behin ordulariari begiratzen nion. Behean ate-kolpe bat jotzen zutenean, ikaratu egiten nintzen oraindik. Nire arima interferentzia orotatik babesten zidan ur-masa ezin barneratua itxi gabe zegoen oraindik nire buruaren gainean, ez zen tartekatzen munduaren eta nire artean.

Baina orain seguru nago: itxiko da.

...Ez al da harritzekoa hondoraino urperatze hori, Leningradekin, Katiarekin, Neva ibaiarekin gaeuz, isiltasuna eta oroitzapena bat egitetik sortzen den eta neuk beste inork ezin uler dezakeen hots sekretu ho-

rrekin batera, gero, tintaren, paperaren, tipografiaren laguntzarekin gorpuztea eta «liburua» bezain izen arrunt, eguneroko eta denentzat iritsi-erraza hartzea?

–Ez al duzu irakurri oraindik *Urpean murgildu*?

–Ez. Zertaz da: urpekarien lanaz?

–Ba, ez irakurri: aspergarri totala da.

–Ez da egia, irakur ezazu hutsik egin gabe! Liburu horrek badu zerbait. Nahi duzu ekartzea? Ez da urpekarietarako buruz.

Liburua... Apalean egongo da, besteekin batera, eskuan hartuko dute, gainbegiratu bat egin eta bere lekuan utziko dute. Hautsa kenduko diote: hautsa eta Alioxaren ahotsa eta Katia haurtxoaren negarra dakartzidan gaurko hemengo isiltasun hau...

Ni nintzen liburua, nire arimaren, nire oroi-menaren akidura, inork ikusi ezin dezakeena, migraina bat, nire begiko oinaze-puntu bat, adibidez, ikusi ezin daitezkeen bezalaxe; baina liburu bilakatua, azal, argitalpen-albiste eta, nire urperatzea beldurrik gabe egiten badut, arima berri bat bilakatua beste norbaitengan. Arima horretan batuko dira Alioxaren ahotsa eta Katiaren negarra; horiek osatuko dute arima hori.

«Basoa bezalaxe –pentsatu dut gaur–. Bai, bai, urki-baso bat, zuhaitz-buruak orain zeruan xuxurlaka eta gero sutarako egur bilakatu eta berogailuan erreko direnak, eta ondoren, ondoren gar beroari begira dagoena berotuko dutenak»...

Gainerakoan, ergelkeriak. Nire garrari inork ez dio begiratu. Zertarako urperatu behar dut, hortaz? Zeren, ateratzen dudana eskuizkribu –paper eta tinta– bihurtzen bada ere, inoiz ez baita liburu bihurtuko. Ni hil baino lehen ez behintzat.

Zertarako urperatu, hortaz? Neure buruari ihes egiteko?

Ez, ihesi noan lekua beldurgarriagoa baita niretzat hemengo hau, ur azaleko hau, baino. Han, Alioxa daramaten soldaduen pauso astunak, gure eskaile-ra, bera, haien artean, pauso arin, bizkorrez jaitsi eta gero ibilian biratu eta irribarre egiten, beldurrik izan ez dezadan, han gure atea, feltroz estalia, hura joan ondoren, dagoeneko urratsak entzuten ez direnean, sarraila eta kisketa guztiak, ez dakit zergatik, kontu handiz nola ixten ditudan. (Zertarako itxi, ordea, eraman dute-eta?)... Han Katia haurtxoa ere, hark ohetik atera eta azkeneko aldiz bere kontra estutu zuenean esnatu ez zena. Han kartzelako atean bata bestearen ondoren, bata bestearen ondoren argiak itzaltzen dituzten auto isilak ere.

Han izango da nire urte askotako galdera hertsagarria: nolakoa izan zen haren azkeneko unea? Nola igaroarazi zuten bizia izatetik hila izatera? Dagoeneko ez dut galdetzen zergatik. Gauza bat baizik ez dut galdetzen: nola? non? noiz? Eta non nengoen ni une horretan? Berekin? Bera nuen gogoan?

Eta non dago hilobia? Zer ikusi zuen azkeneko gauza, bizitza alde egiten ari zitzaionean?

Hor doa gure eskaileretan behera, soldaduen artean, eta biratu eta irribarre egiten dit, beldurrik izan ez dezadan. Zer gertatu zen gero? Kartzelako atea. Ezagutzen dut. Haren aurrean egon nintzen zain. Gero galdeketa. Hori ere ezagutzen dut. Errealitatean eta ametsetan. Eta gero?

Ez, ez dute utziko nire oroitzapenak liburu bilakatzerik. Eta ezta barrena jaten didaten galderak ere.

Zertarako egiten dut, hortaz, urperatze hau?

Anai-arrebak aurkitu nahi ditut; ez orain, etorkizunean baizik. Bizi den orok nahi du anaitasunen bat, eta horixe nahi dut nik ere. Han, urruntasun ezezagunen batean bada ere, anai-arrebak bilatzeko ari naiz idazten liburua.

...49ko otsaila

Egun asaldagarria, gaurkoa. Baliteke pozgarria ere izatea, baina asaldagarria. Berrero munduan banengo bezala, eta ez hemen, izeitxo berde baten babespean, irudipenezko bizitza honetan.

Tearen ondoren, literatura-munduko albiste batzuk kontatu dizkigu kazetariak (luze eta gogor egon da hitz egiten Moskurekin). Aldaketa handiak espero dira Idazleen Elkartean¹⁷. Zuzendaritzak ez du behar bezain irmo gidatu kosmopolitismoaren kontrako borroka. Hemendik aurrera ez da Belenki izango idazkaria, Zemskoi baizik. Eta *Sobietar Idazlea* argialetxean¹⁸ ere erredaktore-aldaketa bat espero da... Bilibinen aurpegia ilundu egin da une batez, egiazko interesa nabarmendu zaio begietan.

–Tukmanovek jarraitzen duen badakizu? –galdetu dio bizkor (Tukmanov bere editorea du).

17 Idazleen Elkarteak: sobietar idazleen erakunde ofiziala, haien zuzentasun ideologiko eta politikoa begiratzen duena. Lidia Txukovskaia 1973ko abenduan Elkartetik kanpora egotzi zuten Aleksander Soljenitsinen aldeko jarrera adierazi zuelako.

18 *Sobietar Idazlea* (*Советский писатель*) argialetxea 1938an sortu zen sobietar olerkigintza, antzekigintza eta eleberrigintza zabaltzeko.

–Baietz uste dut –erantzun dio Sergei Dimitrievitek–. Hari buruz ez didate ezer esan, nolana ere... Eta zer moduz doa zure liburua?

–Ba, goizero zazpiak inguru horretan hasten naiz lanean... Editoreak agindutakoa betetzen... Hemendik moztu, handik luzatu. Burua jaso gabe ari naiz idatzi eta idatzi... Makinaren hotsak traba egiten dizu, Nina Sergeievna?

Nondik edo handik beti sartu behar ni.

–Ez, bai zera.

Oso aurpegi bitxia du. Aldiko desberdina. Sos-laitik begiratuta, zorrotza dirudi, aztore batena. Aurrez inozoa, ia femeninoa. Bi baztanga-marka sakon dituela erreparatu diot gaur, bat kokotsean, bestea masailean. Aldiko gauza berriren bat aurkitzen diot. Bekainak motzak eta makurrak ditu, azentu-markak balira bezala, begien gainean, eta finkoa, sarkorra egiten diote begirada. Jaiki eta jantera joan naiz. Pasierako ordua nuen, murgildu aurretik. Goizean egina nuen egunero egin beharreko itzulpen zatia, eta tearen ondoren gainerako guztiak zinemara joandakoan, murgilaldi bat egiteko asmoa nuen. Zerua, elurra eta airea mahairaino ekartzeari lortzen baldin banuen, erraz murgilduko nintzen, lehenago iritsiko nintzen garbi ikustera. Baina Bilibin nirekin batera altxatu da eta hain naturaltasun bareaz atera da nire atzetik, non bazirudien aurrez adostuta geundela elkarrekin paseatzeko. Hallean adeitasunez luzatu dit berokia. «Alderdiko ordezkariaren zatia luzatzen ari haiz!» pentsatu dut haserre, berriro haren begi hori, sosegatuetara begiratuz. «Lortuko duk... Komediantea halakoa».

–Ez dizut traba egingo, zurekin banoa? Behin eta berriro aholkatu dit sendagileak, tearen ondoren batez ere, afal aurretik.

–Ez, ezta gutxiagorik ere –erantzun diot berriro.

Atera gara. Hotz, ilun egiten zuen, labain zegoen. Hotz heze samarra. Ez izarrik ez ilargirik. Bilibinek besotik heldu dit. Isilik joan gara etorbidetik errepide-raino. Nire onetik ateratzen ninduen isilik zegoelako, eta are gehiago isiltasun horrek asaldatzen ninduelako.

–Egia esateko, Nina Sergeievna, oraindik ezin izan dut ondo pentsatu –hasi da Bilibin bere ahots ederraz, bideko faroletara iritsirik, eskuinerantz biratu eta zubirantz jaisten hasi garenean.

–Zertaz pentsatu? –galdetu diot besoa askaturik.

–Lehengoan hementxe, zubi honetan, izan genuen solasaz. Nolako oldarrez eraso zenigun Sergei Dimitrievitxi eta niri! Gero, amorraren amorruz, neure burua zubitik behera botatzeko gogoia ematen zidan, poesiari dagokionez gustuetan ados ez gatzelako. Zinez esaten dizut! Hainbestearaino gustatzen zaizu Pasternak hori?

Haren ahotsak oso bihotzetiko doinu egiatia zuen. Baina ahots hark, ahotsak beharbada ez, baina bai doinuak, bazuen huts egiten zion zerbait.

–Kontua ez da hainbeste gustatzen zaidan ala ez –esan diot egonarriz–. Ez dit hark pena ematen, zuek baizik. Zein erraz baztertzen dituzuen gure gozagarri handiak, hutsaren hurrengoa zirikatzen bazaituzte...

–Baina gustuak eta koloreak, nork bereak, esan ohi da. Gustuez eztabaida gutxi...

Espero nuen erantzun hutsal hori. Eta ez naiz eztabaidatzen hasi, nahiz eta, egia esan, zertaz eztabaidatu behar du jendeak, gustuez ez bada? Olerkari batekiko zaletasuna edo gorrotoa, edota, nolabait esateko, harekiko ezaxola ez al datoz bada gure arimaren barren-barrenetik, ala halabeharrezkoak dira? Ez al

dago bada horretan banalerroa, muga? Zertan oinarritzen da hobeto gure adiskidetasuna edo etsaigoa, gure urruntasuna edo hurbiltasuna, gustatzen zaizkigun ala gustatzen ez zaizkigun olerkietan edo olerkietako bertsuetan ez bada?

–Badakizu zer –esan dit bat-batean Bilibinek–, jo dezagun bidezidor honetatik basorantz. Begira, ilargia atara da. Handia, betea. Ez izan beldurrik, ez du ilun egingo.

Bidezidorretik jo dugu. Berriro heldu dit besotik, irmo, sendo. Bidea estua zen, eta elkarren ondo-ondoan ibili behar izan dugu. Ilargia, urdin-horikara, eroso asko pausatzen zen izei-adar baten gainean, mende oso bat balerama bezala hantxe pausatutik. Argi-istiltxo batzuk mugitzen ziren elur-tontor pikoetan. «Hauxe pasiera ergela basoan, ilargipean, xarma handiko gizaseme batekin –pentsatu dut–. Ludmila Pavlovnari gustatuko zitzaiokeen... Zertaz hasiko ote da orain hizketan? Olerkiaz hitz egin dugu dagoeneko. Maitasunaz hitz egiteko txanda da. Filosofia-maila abstraktuan, jakina... lehenengo aldia denez».

Baina ez du maitasunaz hitz egin, inola ere. Pasiera ez zen bainuetxeko flirten kanonen arabera gertatzen ari.

–Begira zein hondatuta dagoen basoa hemen –esan du–. Zuri, hiriko biztanlea zarenez, etorri eta baso trinko ezin ederrago bat ikusten duzula irudituko zaizu. Baina, egon, sitsak janda daude zuhaitzak.

Bertan utzi nau, bat-batean, zanga gainetik jauzi egin eta, elurretan orkatiletaraino sarturik, izei handi baten azpian gelditu da. Ilargiaren argitan, larruzko zamarraren paparra zabalik, gaztea zirudien. Haren aurpegiak, ilargiak argiturik, ez zuen zimurrik; kokotseko eta masailetakoko baztanga-markak desagertuta

zeuzkan. Inspiratua, gaztetua zirudien... Beste aurpegi bat, berriro.

Elurra gainera eror ez zekion adarrak kontu handiz bereiziz, enborrerraino ondoratu da. Azaletik auka pixka bat kendu eta esku artean birrindu du.

–Ikusten? –esan dit, biraturik–. Respigoa da. Liken mota bat. Orain badakigu nola desagerrarazi, hegazkinetatik produktu kimikoak zabalduz. Baina lehen baso osoak suntsitzen zituen. Ikusi al duzu inoiz enborren bat dena bixarrez estalia? Udan? Likenak jandako zuhaitz baten muina, hondarkiak dira.

–Basoa gustatzen zaizu? –galdetu diot–. Ala estepa nahiago? Edo mendia, beharbada?

–Lehen basoa gustatzen zitzaidan... –begiak erdi itxirik, ingurura begiratu du, ilargiari, elur-tontorrei, ilargiak argitzen ez zituen izeien adar ilunei; atseginenez egon zaie begira, geldiro, zigarro bati xurgada bat ematen ari balitzaio bezala...– Mendia ere gustatzen zitzaidan lehen.

–Eta orain?

Ez dit erantzun.

–Etixeratzeko ordua da, nik uste –esan du–. Kataplasma bat jarri behar didate oheratu baino lehen.

Etixerantz itzuli gara.

–Nik, oraintxe ere, nahiago dut basoa –esan diot–. Baina ez honelakoa, eta ez gauez, pinu-baso bat baizik, egun eguzkitsu batean. Pinu-basoan zero asko izaten da; basoa bakana izaten da, eta eguzkia ez da egoten gure buru gainean bakarrik; noranahi begiratzten den, han izaten da. Balirudike pinuek ez baina zeruak duela erretxina-usaina.

Berak isilik jarraitzen zuen. Ilun zegoen leku batean sartu gara, eta ez nion ikusten aurpegia.

–Hirian bizi zara, beti mahaiaren atzean eserita, eta ez duzu ikusten ez basorik ez zerurik –kexatzen nintzen, isildu ere gabe–. Horrelakoa izaten da gure lan eguna. Eta kostatzen zaizu imajinatzea zein ederra izango litzatekeen bizitza gure lan guztia basoan egingo bagenu... edo itsasoan, edo mendian... idazten ditugun hitzak oxigenotik sortuko balira... paperak pinu-orratzen usaina balu... lanean ari zarenean inguruan harkaitz gorriak edo pinu gorritzak bazeneuzka... Tolstoik idatzi zuen bezala: «ingurura begiratu, mendiak... burua jaso, mendiak...». Imajinatu: burua orrialdeetatik jaso, eta mendiak...

–Zuk lan egin al duzu inoiz... mendian?

Ez du pausorik aldatu, eta lehen bezain irmo ninderaman besotik helduta. Baina ahotsaren doinua aldatua zuen. Ahotsa kazetariari erredaktore hura bere lanpostuan geratu al den galdetu dion une hartantxe bezain garbia eta egiatia bihurtu zaio. Hori zuen bere egiazko ahotsa, zintzoa.

–Mendian inoiz lanik egin duzu? –errepikatu dit galdera–. Seguru asko, ez. Nik, berriz, urtetan. Inguruan bazen basoa, baina oxigenorik, han askorik ez, egia esateko. Lan behartuetan, jakina. Lagerrean. Meatzeetan. Soldatapeko langileak kanpotik hurbilago zeuden, lehenengo mailetan; gu, berriz, sakonenean, bederatzigarren, hamargarren mailan... Haiek bagoneta elektrikoak zituzten, teknologia! Guk eskuz garraiatzen genituen. Haiek zulagailuak zituzten, guk pikotxaz jo behar, antzinako modura. Haiek sei ordu, guk hamabi. Haiek pertsonak bezala jaten zuten, guk egunean lauhun gramo ogi, eta nahikoa. Kupora ez zinela iristen, berrehun gramo; berriro ez zinela iristen, ehun... eta horrela zeroraino. Alferren gurpila edo, zehazkiago esateko, heriotzaren gurpila. Zenbat eta

gutxiago ematen dizuten, lan gutxiago produzitu deza-kezu; zenbat eta gutxiago produzitu, gutxiago ematen dizute... Gehiago! Batzuek hildakoen gorpuak jaten zituzten: giharra kendu eta sukaldatu egiten zuten. Kontuz, adar bat.

Bidezidorrean trabes zegoen adar baten gainetik igarotzen lagundu dit, eta pasierako ibilera normal batez eraman nau. Beldur nintzen: eta kolpetik hitz egiteari uzten badio? Eta Alioxak izandako zoriaren atea zartada batez itxiko zen berriro. Haren ahotsaren, haren hitzen zain nengoen, ez ilargia ez zuhaitzak ikusi gabe... Handik etorritako lehenengo mezularia! Gustura presakatuko nukeen, gustura tira egingo niokeen besotik. Ez zaitez isildu. Zu zara mezularia. Adi naukazu. Ez zaitez isildu!

–Haurrak ere bazeuden! Zeren haurrak ere baziren han, hantxe jaiokak. Baziren lau urte bete arte ibiltzen ikasten ez zutenak, hitz egiten bost urte bete arte. Haien besoak, haien hankak ez ziren jende arruntarenak bezalakoak. Geuk ere, pertsona helduok, ez genuen ematen gizakiak ginenik. Zorne-zorroak goseagatik, beherakoak goseagatik. Zenbat ehortzi nituen han! Saxka ere bai. Hiru urtez ehorzle-brigadako burua izan nintzen. Saxka Sokolianski laguna nuen, anaia bezala. Gerra zibilekoan elkarrekin ibili ginen makietan, eta gero, kartzelan ere elkarrekin. Harengatik ez balitz, hilik nengoke: zenbat ere torturatu zuten, ez ninduen saldu. Hari esker bost urte erori zitzaizkidan, ez gehiago... Jatorra mutila, zintzoa, indartsua, total samarra izatea. Galdeketen ondoren hasi zen totalka egiten. Harengan totalkatzea ere atsegina gertatzen zen, haur baten totalkatzea...

Saxkarekin partekatzen nuen ogia. Ontzitxo batean perretxikoak egosten nizkion. Han jende asko

pozoitzen zen perretxikoengatik, gutxiengo nazio-
naletako jendea batez ere: ez zekiten perretxikoak
bereizten, ez ziren basotarrak, perretxiko pozoitsuak
prestatzen zituzten, eta beste mundura. Ni neu basoko
beteranoa nintzen, partisano garaietatik ikasia nintzen
perretxikotan, belarretan... Basoko belarren egoski ba-
tez zaindu nuen Saxka... Baina ez zuen balio izan...
Neure eskuez lotu nion oholtzoa hankan, eta neuk
ehortzi nuen... Ez hilobi komunean, izei zahar baten
azpian baizik, hilobi bereizi batean, eta izeiaren aza-
lean marka bat egin nuen.

Begiratu bat egin diot ilargiak argitzen zuen en-
borrari, markaren baten bila.

Bidezidorra hantxe bukatzen zen. Bidera atera
gara.

–Nire senarra han hil zen –esan diot–. Ez da-
kit non, ez dakit zergatik eta noiz. Zientzialaria zen,
odoleko espezialista. Sendagilea. «10 urte postazko ha-
rremanik gabe»; badira 12 urte eta arrastorik ere ez dut.
Zeuk ehortziko zenuen, beharbada, zure brigadak.

Zutik geunden bideko farol baten azpian, eta
isilik begiratzen genion elkarri. Farola ez da ilargia, fa-
rolaren argitan misteriorik ez dago. Eta berriro ikusten
zitzaizkion zimurrak, tolesak bekoki zabaleko aurpegi
handi hartan. Eta baztangak; ez, pustulen markak...
Erdi biratuta, bere larruzko berokiaren lepotik elurra
kentzen ari zen.

–Hogeita hamazazpian? –galdetu dit.

–Bai. Eta ondasunak bahituta. Gero nire bila
ere etorri ziren, baina ihes egitea lortu nuen. Alaba-
txoa senitarteko batzuenean utzi eta ihes egin nuen...
Emazteak dagoeneko atxilotzen ez zituztenean itzuli
nintzen berriro... Baina zuk ez zenuen topatu... ez da-

kizu... –ausartu naiz– non zeuden eremu berezi horiek, posta harremanik gabekoak.

–Ez –erantzun dit bizkor–, horrelako eremurik nik ez nuen ezagutu.

Edo hitz egiten jarraitzeko gogorik ez zuen, edo norbait sumatu du inguruan.

Etixerantz egin dugu. Gure aurrean pertsona bat zihoan geldiro.

–Zer moduz, pisatu zara gaur? –galdetu dio Bilibinek ahots goran, jantzitegiaren ondoan bufanda kentzen ari zen lodikoteari–. Pentsa, Nina Sergeievna, Ilia Isaakovitx egunero pisatzen da: azkenik zerbait argaldu den ikusteko. Eta, zer dio baskulak? Aurreratu duzu zerbait gaur? Bosten bat kilo kendu dituzu?

Bufanda hura ez zen bukatzen. Lodikoteak irribarre lotsati bat egiten zuen. Haren biboteek ere irribarre herabea zuten.

–Eskerrik asko, Nina Sergeievna, ni bezalako agure batekin pasieran ibili eta aspertu zarelako –abestu du ahots belusatu batez Bilibinek, eta nik nirera alde egin dut.

...Orain lotara noa. Gela isilik eta bero dago. Leihoz kanpoko izeia ez da ikusten; ilun dago. Eta ikusiko balitz ere, ezingo lidake sosegua itzuli.

Alioxaren lehenengo berria zen, eta nolako berria! Saxa Sokolianskik ez du haren antzik, baina hura da nolanahi ere. Perretxiko pozoitsuzko zopa. Hilobi komunak, Leningraden setiokoan bezala... Norbaitek utziko ote zuen marka bat pinu hartan? Ikusiko ote dut egunen batean?

Indarretxea tik-tak, tik-tak ari da. Non ote dago, zertan ari ote da orain Bilibin? Zigaroren bat erretzen? Ilia Isaakovitxekin xakean jokatzen? Jangelan gerrako gertaerak kontatzen? Billarrean jolasten, bere gerriaren

malgutasuna erakusteko billarrean jokatzen ikasten hasi den dama begibeltzarekin? «Badakizu gauza bat, distiratsu ari zara jartzen hemen –esan dio Bilibinek bere ahots belusatuarekin–, badira neguan loratzen diren loreak».

«Eta hori dena ez da egia, nik beste inork ez du ezagutzen horren egiazko ahotsa», pentsatu dut, masaila bururdiaren kontra estutuz.

...49ko otsaila

Gaur elurra adarretatik erortzen eta urtzen hasita dago. Leihoz kanpoan muinoa ez zait atsegina iruditu, nahasia, nabarra iruditu zait; badira horrelako behiak. Muinoko izeiak dotorezia galdu du. Baina, beste guztiak baino lehen bakarrik gosaltzea lortu eta bakarrik paseatzera ihes egin ondoren, herritxo aldera abiatu naizelarik, ohartu naiz ongi egoten zela herritik kanpo, aire zabalean, elurra urtzen ari duenean. Haizetxo epel batek masailak ferekatzen zizkidan. Eskularruak erantzi, eta haizeak leunki ukitzen zizkidan behatzak. Gustatu egiten zitzaidan leuntasun hura, eta ez dut basorantz jo, hura ez galtzeko. Zerua urdintzen ari zen Bukovorako bideko gurpil-marka sakonetan, zimurrez estalitako istiletan, eta zeruan lainoak igerian zihozazen, paperezko ontzitxoak bailiran. Haizetxo epel bat zebilen hara-hona bidean, soroetan zehar, eta trokaren beste aldeko urki-familia busti, tenteak astintzera urruntzen zen. Adarretatik tanta biribilak nola kentzen zituen, nire lepotik behera nola jausten ziren imajinatzen nuen, eta hotzikara bat eragiten zidan sorbalda-hezurren artean. Belar-meta busti bateraino joan eta atzera bueltatu naiz, orain nora jo ez nekiela.

Belar hura hartu eta beso artean estutu izan banu, ura isuriko zukeen, esponja batek bezala. Haizeak nekatuta nengoen. Etxetik urrutira gabe, bidezidorretako batean zegoen eserleku urdin batez gogoratu naiz, eta hara jo dut. Baina eserlekua hartuta zegoen. Veksler zegoen eserita, egunkari bat irakurtzen, gerra inguru hauetan egin zuela kontatu zidaten judu olerkari, dominaduna. Haizeak eserlekuan bere ondoan zituen paper batzuk mugitzen zizkion.

Nire ibileragatik garbi zegoen, nonbait, eseritzeko asmoa nuela; olerkaria bertan zutitu eta bere eskutxo gorrituz paperak arrapaladan biltzen hasi da. Traba egiten ari nintzaion, jakina, baina asmo oneneko zalaparta haren ondoren, ez zirudien gizalegezkoa aurrera jarraitzea.

Begi gazte, bizi-biziak zituen, ile zuri zutia, eta zahar-aho mehe, sartua. Gaztetasuna eta zahartasuna nabarmen ari ziren borrokan aurpegi hartan.

–Nire olerkiak dira –azaldu dit bertatik, paperak, presaren presaz, patrikan sartzen asmatu ezinda, jakaren ertzetik barrura nola sartzen zituen begira nengoela ikusirik–. Edo, hobeto esanda, nire olerkien itzulpenak.

–Lanean ari zinen, bistan da, eta nik traba egin –esan diot. Gustatu egin zait orriak ukitzean eskuek ikara egiten ziotelako–. Irakuriezadazu zerbait, mesedez, hemen kalean irakurtzea asko kostatzen ez bazaizu. Gustatu egiten zaizkit olerkiak.

Zalantzez begiratu dit; nola irakurri horrela, besterik gabe, ezezagun bati? Baina paperak atera ditu. Ezpainak pixka bat mugitu zaizkio, agure bat balitz bezala. Begiak gaztea bailitzan hasi zaizkio distiraz. Orri bat zabaldu du.

–Ez, irakurri yiddishez lehendabizi, gero kontatu errusieraz, eta ondoren irakurri bertsozko itzulpena –esan diot–. Orduan hobeto ulertuko dut.

Berriro busti ditu ezpainak. Garbi ikusten zen irakurri nahi zuela, baina finko begiratzen zidan, mezezi ote zuen pentsatuz.

Baina hasi egin da.

Agure-ahoa ezabatu zaio, ekintza ausart bate-rako erabakia hartutakoaren begi adoretuak geratu zaizkio: arrotz bati bere buruaz hitz egin. Yiddishez irakurri du. Hizkuntza hori, orain arte beti itsusia iruditu izan zaidana, ederra zen irakurraldi hartan, beste edozein hizkuntza bezala, seguru asko, kaos batean ez baina ongi egituratuta entzuten denean... Zalantzez, hitzak ezin aurkiturik –berriro ikusi ditut haren aho sartua eta urdintzen ari zitzaizkion behatzak–, irakurritakoa berriro errusieraz adierazten hasi zait.

Gerrari buruzko bertsoak ziren. Frontera iritsi berriak diren hemezortzi urteko gazteak hurrengo goizean, argitu bezain laster, gudura bidali behar dituen komandante baten –komunista, bera– gauari buruz. Badaki fronteko beste nonbait, beste komandante batek –bera bezala, urtetan aurrera doan gizona, komunista hura ere– goiz horretantxe, bere hemezortzi urteko semea gudura bidaliko duela. Kontatu ahala, hitzak bilatu ahala, Veksler, ohartu gabe, zutik jarri da, eta ni ere bai harekin batera; eta landan zehar, gorpil marka bustiei jarraituz, herritxorantz abiatu gara. Bere bertsoak prosaz errezitatuz, eguna argitu aurreko iluntasun sakonaz eta lotan daudenen aurpegiez ari zen mintzatzen; nola agertzen diren egunsentian ilunaren artetik haien haur-bekokiak, haien garondoak, haien bekainak, haien masailak. Eta aurpegi haien artean, nahi gabe ere, bere semearena bilatzen du ko-

mandanteak, bere semea handik ehunka kilometrora dagoela jakin arren. Ni istilak saihesten ahalegindu naiz; berak, arin baina baldarki egiten zuen salto haien gainetik, emozioagatik. Bertso bat yiddishez errexitatu, eta gero errusierazko hitzak bilatzen zituen. Belar-pila berde-arre haren ondoan aurkitu naiz berriro. Mutilak ilaratan daude, komandanteak adi-adi begiratzen die aurpegira, eta aurpegi bakoitzean soldadu haren eta bere urrutiko semearen zoria aurreikusten saiatzen da. Vekslerek bere kondairak hunkitu egin nauela ikusi du, eta horrexegatik hasi zaio eskua dardaraz, haizeari bizkarra emanez zigarro bat erretzen hasi denean.

–Zure bertsoetan gaua eta gaubeilaren garratasuna entzun egiten dira –esan diot–. Eta semearen hazpegiak ere irazten dira besteen aurpegietan zehar. Ongi, oso ongi, jatorrizkoaren hotsagatik eta zure azalpenagatik juzga dezakedan bezainbatean. Orain irakuriezadazu, mesedez, bertsozko itzulpena.

Orri batzuk atera ditu. Oi, zein itsusia gertatzen den gure hizkuntza, zein zakarki sarrarazten diren hitzak bertsoetan, nola ukatzen diren elkarren ondoan egotera, nola aldatu nahi duten beste leku batera! Eta ez gaurik, ez etsimenik, ez itxaropenik, ez aurpegi gazterik lotan, lerro okerrak baino ez. Hitzak baino ez, neurrian beharturik tartekatuta, baina ez gaua, aurpegiak, beila, aitaren eta semearen arteko uruntasuna, samina.

Bukovoko etxe apalen teiltatuak hurbiltzen ari ziren. Gizonezko botinez jantzitako emakume bat, blai eginda, beroki zikin batez jantzita, atera zaigu bidera, abar lehor batekin. Haren aurpegi hezurtsu, bustia ikusirik, bazirudien inoiz ez duela berriro eguzkirik eta eguraldi onik egin behar. Eta ez elurrik ere, ez liburu-

rik, ez gela bateko berorik... Eta bertso beharrik ez dela izango.

Eskutik orria kendu eta neu hasi naiz irakurtzen, itzulpeneko bertsoen itsustasuna eta pobretasuna banan-banan azalduz. Biratu egin gara. Irrikaz ari zen erretzen. Testu haren lehortasuna, zehaztasunaren alfertasuna ikusarazten, hitzen talka hila ohartarazten ahalegindu natzaio.

–Nola hitz egiten duzun poesiaz! –esan dit, ameslari, eta berriro mugitu ditu ezpainak–. Zeuk ere bertsoak idazten dituzu, seguru asko.

–Ez –gezurra esan diot–. Baina irakurtzea gustatzen zait.

–Eta inoiz ez dituzu idatzi?

–Inoiz ez.

Zutik gelditu da.

–Ai, zu bezalako erredaktore bat banu –esan du doinu praktiko eta prosaiko batean–. Zu bezalako bat. Olerki hauek *Emes*¹⁹ aldizkarian argitaratuko dizkirate yiddishez, eta errusieraz *Novy Mir*²⁰ eta *Znamia* aldizkarietan. Neu ere ohartzen naiz itzultzaileei ez zaiela ateratzen hori, baina ezin dut zehaztu... Ez dakit behar adina errusiera... Hilobi hau ikusten duzu? –eten du–. Hementxe hil zuten eta hementxe ehortzi ere, Koptiaiev tenientea, nire laguna. Egunero etortzen naiz.

Zanga gainetik jauzi egin eta itxituraren ondoan gelditu gara. Hemen, noranahi zoazela, hilobiak daude alde guztietan; hasieran ez dira ikusten; gutxien uste denean agertzen dira haien bizkar biribilduak eta hiru giako obeliskoak urkien enborren atzean edo

19 *Emès* (yiddish-ez: *Egia*): Yiddish hizkuntzako literatura argitaratzen espezializatutako argitaletxea. 1948an itxi zuten.

20 *Novy Mir* (*Mundu Berria*): 1925ean sortutako literatura-aldizkaria. Stalin hil ondoren, Aleksandr Tarkovskiren zuzendaritzapean, errusiar literaturako joerarik liberalenaren ordezkaria izan zen.

hanka aurrean, lurrean. Honek zurezko itxitura bat zuen inguruan, kolore urdin argiz margotuta, ibai gaineko zubitxoren baranda bezala, etxe ondoko hariztiko glorieta bezala. Horregatik ez naiz ohartu, urrutitik begiratuta, hilobi bat zenik... Itxituraren atzean zurezko hirukitxo bat zegoen zutik, urdin argiz margotua hura ere.

Nire ezagun berriak kapela kendu du. Haren aurpegiak espresio serioa hartu du, haizeak astintzen zizkion ile zurien azpian. Deseroso sentitu naiz. Bekokia zimurturik, tiroen ziztua, lurra belauenen azpian, sabelaren azpian, bularraren azpian imajinatzen, herrixo hura azpitik, lurretik ikusita, metrailagailuen errepika imajinatzen ahalegindu naiz, baina ez nuen lortzen. Itxituratxo urdin argia eta gizon barregarri, goizegi zahartu hura baizik ez nuen ikusten, aurpegia urduri zuela.

«Eta non ote da Alioxaren hilobia?» –pentsatu dut, beti bezala, edozein hilobiren tontorraren aurrean beti bezala. «Bilibinek kontatu zidan lekuan... mendian?... Ala basoan... Ba ote da tontortxo bat han?».

Adinak zenbat aldatu nauen pentsatu dut. Haurtzaroan eta gaztaroan konbentzitura nengoen ez zegoela hilobi beharrik. Orain, berriz, Alioxaren hilobia aurkitzea iruditzen zait nire bizitzako gauzarik garrantzitsuena.

–Zer duzu? Goazen! –esan dit Vekslerrek artega, gogoetak igarri izan balizkit bezala. Elkarren ondoan gindoazen eta alboka begiratzen zidan denbora gutxian, lepoa txori-mugimendu bizkor batez biratuz.

–Konta iezadazu nola borrokatu zinen hemen –galdetu diot, ohartu ez zedin. Gutxien uste nuenean arreta gehiagoz begiratu eta barruan zer nuen ikus ez ziezadan!

Artilleria non zegoen, infanteriak nondik erasotzen zuen, erasoak, miaketak kontatzen hasi zait. Bere doinu bereziaz hitz egiten zuen, azentu-okerrak eginez. Arreta handiz entzuten nion, begiez haren behatzari jarraituz, begirada tontorretan eta basotxoetan pausatuz, ezertxo ere ulertu gabe. Ez haren doinuagatik, jakina, zenbakietarako eta topografiarako dudan ezgaitasunagatik baizik. Kilometroak, arma-kopuruak eta operazio militarrek aipatzen zizkidan. Nik buruaz baietz egiten nion. Eta Stalinek alemanak Mosku inguruan garaitzeko zuen planaz; oraindik aspaldi ez dela ulertu omen du azkenik plan haren jenialtasuna.

–Nire semea hil egin zuten –esan du azkenean. Hori ulertu diot–. Ukrainako frontean. Hemezortzi urterekin. Gu hementxe, Bukovoz arduratzen ari ginen egun berean.

–Seme bakarra zenuen?

–Bai. Liutik. Emazteak asmatu zuen izen hori. Badakizu, bada horrela deitzen den lore bat.

Etxe aldera jo dugu.

–Olerki gehiago entzungo didazu? –galdetu dit oinetako zikinak atariko alambrezko alfonbran garbitzen ari ginen bitartean.

–Bai. Ez izan dudarik.

Egongelan zarata zegoen, irratiagatik, jendearen hotsengatik, dominoko fitxek mahaiaren kontra egiten zuten klaska-hotsengatik. Nire gelak ohea ongi eginda, leihoaz beste aldean basoa ilun ikusten zela, isiltasunez hartu nau, baina atzo piztutako larritasuna baretu gabe daukat oraindik.

Bart gaueko solasaldiaz geroztik ez dut ikusi Bilibin. Nolako ahotsez hitz egingo ote dit orain? Egongelako ordulariaren joaldi melodiatsuak entzunez, jateko ordua noiz joko egon naiz. Denak eragozten zi-

dan irakurtzea: eskumuturreko erlojuak, korridoreko pausok eta urrutiko hotsek; denak larritzen ninduen.

–Jatera, mesedez! –esan du azkenik Ludmila Pavlovnak, ahots eutsi baina ozen batez, nire atetik ez oso urruti.

Egongela hutsean zinema-zuzendaria zegoen, irratitari betileak mugitu ere gabe begiratuz, tximiniari begiratuko balio bezala.

«Agerian jarri da estetizismo burgesaren jarraitzaileen jarduera kaltegarriak bere habia egina zuela Leningradeko Errusia Guztiko Antzerki Elkartean» entzun dut.

Nire ondoan lodikote hipertentsioduna ari zen eskaileratik behera jaisten. Bat-batean kuzkurtzen, bizkarra estutzen ikusi dut (bizkarretik behera tanta hotzak eroriko balitzaizkio bezala) eta espasmo hura neuri ere sartu zait, nahi gabe. Ez dakit zergatik egin duen ikara berak; nik «bere habia egin...» hitz haiengatik. Hogeita hamazazpiko usaina hartzen nion... Baina, ibilian, ez dut harrapatu nork eta non egin duen habia oraingo honetan.

Bilibin eta Sergei Dimitrievitx beren lekuetan eserita zeuden dagoeneko. Bilibin zutitu, agurtu, nire aulkia mugitu eta berriro eseri da.

–Pasiera egin duzu? –galdetu dit adeitsu-. Ai, gaztea izatea zer den... entsalada horri ekiteko aholkatzen dizut... ez ni bezala, agure zaharra: geroz eta gehiago geratzen naiz nire gelan.

Begiak zabal-zabalik begiratu diot. Beraz, lehen bezala hasi da berriro, atzo ezer gertatu ez balitz bezala!

–Zein dira gaur irrastian esan dituzten kritikari estetizista horiek? –galdetu diot-. Bada ulertu ez dudan zerbait.

–Antzerkikoak –erantzun dit Sergei Dimitrievitxek, bekozko ilunez–. Talde bat aurkitu dute, ez dakit zein... Badakizu, hala izaten da gure artean, gauzak muturrera eramatea gustatzen zaie. Gehiegi esajeratu dute, nire iritzian. Antzerki-kritikarien artean badira egiazko marxistak, antzerki gaietan benetan adituak direnak... Nik ez dut ezer txarrik aurkitu izan haien artikuluetan. Zelenin, Samoilov... Adituak dira, talentua dute. Eta orain nori eta horiei eraso... Hori astakeria!

Bilibinek platerera hurbildu dit entsalada-ontzia.

–Uzten? –eta koilarakada oso bat atera dit.

Sergei Dimitrievitxek nabarmenxeago azaldu nahi zuen bere haserrea, baina Bilibinek moztu egin dio.

–Gure erregimentuan bagenuen sukaldari bat –hasi da bizkor, ahozapia alkandora-lepoan sartuz–. Artista bat, magialaria... Behin zer zen ez nekien zerbait jarri zidaten platerean. Usaina hartu nion; gustagarria; probatu nuen; ona, baina ezin jakin zer zen. Galdetu nion: «Zer eman didazu gaur jateko, adiskidea?». «Ba, triku emea, komandante kamarada, triku emea»...

Sergei Dimitrievitxek algara egin du. Nik ez.

–Triku emea zen –errepikatu du Bilibinek, bere begi horiez niri begiratuz.

...49ko otsaila

Gaur izei harrigarri bat ikusi dut basoan. Nola ez ote dut erreparatu lehenago! Handientsu, ahaltso altxatzen zen, urki-zirkulu ñimiño batean. Preso. Gaitibutasun zorionsu batean. Algara batean hasi naiz, ikusi dudanean. Urkiak, neskato apainduak bailiran, izeiaren inguruan jolasean. Gabonak ospatzen igarotzen dute bizitza osoa.

Basoa gris-grisa zegoen, lokaztuta. Oinpean, lokatz urdinkara. Baina hemen, aire zabalean, lokatza ere ederra zen, zilar-kolorea; lastima ematen zuen zapaltzeak. Ingurura begiratu eta bakar-bakarrik nengoela ikusirik, olerkiak errezitatzen hasi naiz. Urki haietarako, elur hauskor hartarako hotsak probatzen.

Puxkin, Pasternak, Nekrasov, Akhmatova probatu ditut. Bai, hemendik datoz denak. Hona datoz denak. «Zuzen», telegrama bat egiaztatu ondoren idazten den bezala. Lur honetan, hemengo airea arnastuz, zerurantz luzatuz hazten dira hitz guztiak, urki hauek bezala. Irakurtzean, bertsoaren xarma ez ezik, bertsoa nola akitzen eta nola alaitzen den ere sentitzen dut.

Nire ezpainak pozik zeuden hitzak topatzen zituztelako, eta hitzak ezpainak topatzen zituztelako.

Bisutsak gogor jotzen zuen.
Eta leihoaren kontra jaurtitzen elurra.
Eguzkia atsekabez jaikitzen zen.
Goiz hartan koadro triste baten lekuko.

«Izotza, sudurra gorri»²¹ musika hutsa da, musika-isuria; ez ote nuen horregatik negar egingo txikitan bertso horietako bakoitzarekin? Hitz arrunt batzuk «leihoaren kontra jaurtitzen elurra» hartu, eta sinfonia bat sortzen du!

Ahotsa entzun dut atzean eta isildu egin naiz. Haiek ere entzun egin didate, seguru asko, eta, neure gustuz olerkiak errezitatzen entzuten didatenean, barrerria iruditzen zaie. Kazetaria eta haren emaztea zetozen atzetik, eta harrapatu egin naute.

Senarrarekin hiru egun igarotzera etorria da. Gaur bertan ikusi dut urrutitik. Emakume garai, indartsua da, polita, seguru asko, hanka orekatuak eta gerri lerdena eta trinkoa edukitzea baldin bada edertasuna. Garaia iruditu zait, hortz zurikoa, indartsua, kazetari bizkar-estu eta betaurrekodunarekin alderatuta. Ez neukan nora biraturik, eta elkarrekin jarraitu dugu aurrera. Kito nire pozak, han hondatu da nire pasiera. Nekrasoven olerkian gauza zoragarriak zeuden aurre-rago! Arrotz zaizkidanek beldurra ematen didate eta ez zaizkit gustatzen, eta segituan antzematen diet.

-Zu al zinen bertsoak errezitatzen ari zena?
-galdetu dit kazetariaren emazteak.

-Bai. Ni nintzen.

21 Nikolai Nekrasov (1821-1877), errusiar olerkariaren olerkia.

–Eta norentzat ari zinen erreztatzen? –galdetu dit bere pauso bizkor, arina geldia gotu gabe, ilararen aurreko muturrean zihoala.

–Neuretzat –esan diot–, norentzat bestela?

Kazetaria gure atzetik zetorren, geldiro eta baldar. Zubi gainean aurpegia ikusi nion une beretik, ia pentsatu nuen igaraba-larrua eta bastoiaren eskutoki filigranaduna bazitekeela ez izatea berariaz aukeratuak eta ez zutela inolako zerikusiz zuzenik berekin. Orain, ordea, emaztearen irudi dotorea, poltsa, soinean gurutzatuta, eta haren ahotsa eta barrea entzunda, pentsatu dut: ez, igaraba eta eskutokia ez dira nahi gabekoak. Lotura dute.

Emaztea gelditu, patrikatik hazi eskutada bat atera eta eskua zabaldurik eskaini dizkit:

–Nahi?

–Ez. Eskerrik asko. Azkazalez zuritzeko, eskuak izoztuta dauzkat, eta hortzez ez naiz gauza.

–Baina, zer diozu! Ahoaz gozamina da. Eta ahal den urrutiena tu egin eta jaurtitzea! –eta, barrez, tu egin eta azal mordoxka bat jaurti du bidean aurrera. Bi edo hiru azal urki baten enborrari itsatsi zaizkio.

–Eta zer ari zinen deklamatzan? –jakin nahi izan du–. Esenin?

–Ez, zergatik Esenin? Edo Puxkin, Pasternak, Nekrasov.

–Pasternakek oso ilun idazten du. Lehengo batean Serioxa eta biok irakurtzen aritu ginen; gogoratzan, Sergei, stepanovtarrenean? Lehertu ginen barrez. Ez zaio ezertxo ere ulertzen.

Kazetariari begiratu diot. Aurrera jarraitzen zuen, bizkarra herabez makurtuta. Ez zuen zertan beldur izanik: ez nuen eztabaidan hasteko gogorik.

«Zenbat gauza uzten dituen agerian emazteak» pentsatu dut, izter lerden haien eta txistukada alai haien ondotik nindoala. «Ahoaz gozamina da», grazia iruditzen zaio; zaldia baino sendoagoa delako eta pausoa arina duelako ederrak iruditzen zaizkio; barre ergel hori naturaltasuna iruditzen zaio. Txistukada horiek naturalak, atseginak, haur-jolasak eta, litekeena, herriarengandik hurbil egotea, iruditzen zaizkio, nonbait, senarrari.

Etxean sartu gara. Emazteak kontu handiz begiratu du non eta nola eskegi dituzten berokiak, non utzi dituzten botinak eta bastoia. Ni gelara etorri naiz.

Bilibin bakarrik zebilen korridorean hara-hona, tabakoa errez.

–Pasieran zinen? –galdetu dit bere ahots leun ederraz-. Arrosak dituzu masailetan.

Begiratu egin diot. Zergatik hitz egiten dit horrela? Basokoaren ondoren! Atzokoaren ondoren!

Segituan ohartu da doinu okerra erabili duela eta utzi egin dio irribarre egiteari.

–Goazen tearen ondoren. Atea joko dizut. Nahi duzu? –galdetu dit, zigarroa baztertuta, irribarrea baztertu duen bezala.

–Bai, mesedez.

Bainatzera joan naiz bizkor-bizkor. A zer gozamina, bainu bat aire izoztuaren ondoren, azuleju distiratuak zure gorputzaren soslaia lausoki islatuz, ur bizigarriarekin batera zure gorputza biltzen duen erretxina-usaina. Horrez gainera isiltasuna izan balitz, plazer betea.

Ez, ordea; ondoko kabinan –oihal zurrun izurtu batek bereizten zuen nire kabinatik Valentina Nikolaievna emakume begi-beltzaren ahotsa entzun dut. Ez ahotsa, ahostxo bat baizik.

–Luzerako dut oraindik? –txapladatxoak jotzen zituen uretan–. Eta gehiago nahi ez badut?

Barregura eman dit. Segituan ohartu naiz, doinuagatik, ez zidala niri hitz egiten, ezta Galia, bainuaren arduradunari ere. Zertarako, bestela, plisti-plasta hauskor, haurren moduko hura? Baita izan ere; gugandik ez oso urruti baxu-ahots baten eztula entzun da. Zinema-zuzendaria, itxuraz.

Ondoko bi kabinetan –bat nirearen ondokoa eta bestea gure ilaran azkenekoa– abentura liburuen bi egileak berriketan ari ziren, bainua hartuz. Batek abentura-liburuak eta zientzia-fikziozkoak idazten ditu, besteak abenturazkoak bakarrik. Behin baino gehiagotan ikusiak ditut jantokian, xake-taula baten aurrean isiltasun nabarmen batean murgildurik.

–Olimpia duzu? –galdetu du haietako batek.

–Ez, «Korona»; serie berrikoa, eramangarria.

Isilaldia. Arnasotsa. Plisti-plasta uretan.

–Eta zenbat orrialde egiten dituzu egunean? –galdetu du abenturazkoak baizik idazten ez dituenak.

–Ba, zertaz den... –erantzun dio fantasiako egileak–. Izadiaren deskribapenak badira, izan daitezke hamabost-hogeiren bat... Pertsonaien psikologiaz bada, orduan bizkor joaten da. Baina gauza teknikoren batez bada... orduan geldiroago, jakina. Zailagoa da.

Isildu egin dira. Literaturaren teoriaren alorreko beste galderaren bat pentsatzen ariko ziren.

Valentina Nikolaievnaren kabinan gurgur bat entzun dut. Kanila zabaldu eta bainura ura sartzen uzten ari zen, nonbait.

–Ez da ur berorik gehitu behar. Sendagileak ez du uzten. Ur hotza, nahi duzun guztia –esan dio Galiak zorrozki.

–Eta beroa nahi badut? –esan du Valentina Nikolaievna eta plisti-plasta egin du-. Sar dadila sendagilea ur hotz honetan; niri beroagoa gustatzen zait. Horrelakoa naiz ni: gauza guztiak bero gustatzen zaizkit.

Kostata eutsi diot barreari.

Banekien Valentina Nikolaievna, Idazleen Elkarteko langile ohia (langileen departamenduan lan egin), Stalin saria irabazitako Zaborovekin ezkondu zela aspaldi ez dela. Senarra bere emazte ohiarekiko negoziazioak bukatzen ari da: norentzat datxa, norentzat etxebizitza; elkarrekin konpondu eta orduan eramango du Valentina Nikolaievna. Bien bitartean bainuak hartzen eta abentura-idazleekin eta zinema zuzendariarekin flirtean ari da Valentina. Dagoeneko xaketik billarrera aldatuak dira denak, harengatik; zientzia-fikziozko liburuen idazleak bere eleberrian etorkizuneko emakume gisa deskribatuko duela agindu dio.

–Gauza guztiak bero gustatzen zaizkit –errepikatu du Valentina Nikolaievna.

Abentura-liburuen idazleek, nolana ere, beren sorkuntza-problemetan murgildurik, ez zieten erantzuten haren deiei. Ladok baizik ez dio erantzun. Ez ditut ongi entzun haren hitzak, baina Valentina Nikolaievna pozez oihuka hasi da: –Ai, lotsagabe galanta, zu!

–Eta eskuizkribua bukatu duzunean –galde-
tu du abentura-idazleak–, inori erakusten diozu ala zuzenean eramaten duzu inprimatzera? Literaturan adituren bati erakusten diozu?

–Ezta inori ere –erantzun dio serio fantasia-
idazleak–. Esteta hutsak dira denak, lehenengotik azkenekoraino, ez izan dudarik. Irakurle arrunta, hori

beste kontu bat da... Segituan egiaztatzen dut irakurle-
ria orokorrarekin.

–Ba, nik emazteari erakusten diot –esan dio, besterik gabe–; hark ez du ikasi goi-mailako eskola horietan, baina gustua ezin finagoa du.

Gelara itzuli naiz. Leihoaren beste aldean bisutsa nire muino gaineko izeitxoaren esgrafiatzen ari da eta, seguru asko, urkien artean preso daukaten basoko izeia ere bai. Oso mugimendu zehatzez, beti alde berera, alde berera. «Ongi dago bisutsa egitea –pentsatu dut–, eta ez euria. Elurretan ibiltzeak mesede egingo digu».

Bainuaren ondoren etzan eta segituan hartu dut lo. Esnatu naizenean, bisutsa baretuta zegoen, eta haren ordean ilunabarra arrosa-kolorez ageri zen leihoaren beste aldean. Berehala ilunduko du. Orduan izango da pasiera egitera ateratzeko ordua.

Tea hartzera ez naiz jaitsi. Mahaian eseri naiz, itxaron bitartean irakurtzeko. Eta etorriko dela zalan-tzarik ez dudanez, ez zait kostatzen itxarotea. Interes biziz ari naiz irakurtzen. Eta adi nago korridoreko pausoak entzuteko. Batak ez dit eragozten bestea.

Hona etorriko da, gela honetara, eta basoan zena bilakatuko da berriro. Eta gauza gehiago eta gehiago kontatuko dit beste mundu hartaz. Mezularia! Nola lortu zuen bizirik ateratzea, nola izan zuen horretarako kementa! Eusten zerk lagundu zion galdetuko diot.

Pauso asko entzuten ziren, baina ez harenak. Harrituta nengoen, zer eta dagoeneko haren pausoak hain ongi ezagutzen ditudalako: astunak baina bizkorrak eta iradokitzaileak, nolabait.

Behin bereak zirela iruditu zait. Ate ondoko zoruko oholek kirrinka egin dute, eta kirrinkaren batera

bihotzak jauzi egin dit. Honako ote? Ez, aurrera jarraitu dute.

Lotsatu egin naiz bihotzak jauzi egin didalako.

Eskuzorroa, eskularruak, bufanda hartu eta janzteko jaistera nindoan. Bakarrik aterako naiz. Ez du gauza gehiago kontatzeko gogorik, itxuraz, edo egin-dako tratua ahaztu egin zaio, horixe... Ulertzekoa ere bada. Gauza horiek kontatzea ez da atsegina.

Bide batez jantokian begiratu dut; bazitekeen han egotea. Ez. Eskaileran behera bi maila jaitsi naiz eta bat-batean, itxaron gabe, korridorean atzera itzuli eta zortzigarren gelara joan naiz...

Ate guztiak berdinak dira. Zenbakiei begiratu diet: 4, 5, 6. 8a, azkenik.

Atea jo dut.

Erantzunik ez.

Ez ote da zenbaki hau? Pauso bat atzeratu, burua jaso, begiratu... Ez, hauxe da.

Berrito jo dut.

Erantzunik ez.

Baina barrenetik hots arraro bat entzutea iruditu zait.

Ateari bultza egin eta sartu egin naiz.

Ohe apal, zabalean, manta gainean etzanda, Bilibin, jantzirik. Mahai gaineko lanparak ilargi-argiz argizatzen zizkion aurpegia eta bular zabala. Gertuago joanik, begiak zabalik zituela eta indar guztiaz begiratzen zidatela ikusi dut, eta eskuetako bat ohetik zintzilik zuela. Ondoratu eta gainean gelditu naizean ez da mugitu. Niri ez baina aurrera begiratzen zuela iruditu zait. Begiek geldirik ziruditen, beltz.

Ez, ez zidan niri begiratzen. Burua mugitu gabe, begiradaz jarraitzen zidan, ni ohera hurbildu ahala.

–Ondoezen bat duzu?

Haren ezpain urdinkarek ikara pixka bat egin dute. Zerbait esan dit, hitz batzuk ahoskatu ditu, baina ezin izan diot entzun zer. Irribarre eta guzti egiten zuen, burlaizez, gainera, iruditu zaidanez. Eta, zirkinik ere egiten ez zuen arren, ezpainez zerbait esan nahi zidala eta bere ahalegin guztiak alferrik zirela ikusirik, beldur handiagoa ematen zidan oihu egin izan balu baino.

Eta lanpararen ilargi-argi hura bere aurpegian eta eskuan!

Beso astuna hartu eta, kontu handiz tolesturik, bular gainean jarri diot. Neu ere izutu egin nau egin dudanak: hilberriei hala jartzen zaizkie eskuak.

Korrika jaitsi naiz, zerbitzu-gelara, sendagile baten bila. Sendagilea eta erizaina harrapatu ditut, biak emakumeak. Nire hitzak entzunda bat-batean biak batera zein baino zein lasterrago eskaileretan gora abiatu diren moduatik, berehalaxe ohartu naiz nik baino askoz hobeto zekitela haren gaixotasunaren berri. «Nola ez dio funtzionatu txirrinak! –esan dio sendagileak erizainari, lasterka zihoazela–. Ongi funtzionatu beharko luke, bere kasuan batez ere».

Egongelan eseri naiz, zain. Eserita egon naiz, eskuzorroa magalean nuela, sendagilea noiz aterako. Erizaina lasterka atera da, gero berriro itzuli da, lasterka orain ere, metalezko kaxatxo bat, anpulu batzuk, xiringa bat zeramatzala; nik eserita jarraitzen nuen, sendagilea noiz aterako.

«Zelenin-ek (Zelikson) –esan du irratiak isilunetxo baten ondoren– kritikatu egiten du sobietar antzerkia, modu ‘leundu eta samurgarri’ batean aurkezten omen duelako historia. Sobietar literaturak ez ditu asetzen esteta mokofin horiek, bere ustezko primitibismoatik».

Esatariak ez zidan uzten aurreko gelako hotsak entzuten, baina ez zait bururatu irratia itzaltzerik, eta eserita jarraitu dut, eskuzorroan behatzaz, oharkabean, esamolde finkatuei zegozkien estenografiako zeinuak marraztuz. «Sobietar abertzaletasuna, errealismo sozialistaren printzipioak –jarraitzen zuen esatariak– ez zaizkie gustatzen bitxikeria ustel horren jarraitzaileei».

«Bitxikeria ustela»: hitz horiek bereizirik idaztea komeniko litzateke beharbada. Horientzako zeinu bereizirik ez dago oraindik.

Sendagilea gelatik atera da, azkenean.

–Zer du?

–Bularreko angina. Eta txirrina hondatuta... Zortea izan du zu une horretan sartu izana; askoz okerragoa izan zitekeen. Bere kabuz ezin zuen mugitu... Kanforra, kardiamina sartu diogu... Atsedena, orain ez du besterik behar. Erizaina ondoan geratuko da, elektrizista bat bidaliko dut. Gaur gauean, nahi izanez gero, baduzu bisita egitea, baina baldintza batekin: ez utzi asko hitz egiten.

«Ez, ez diot utziko. Sartu naizenean zer esan nahi zidan, besterik ez diot galdetuko».

Gelara itzuli naiz. Eskuzorroa, eskularruak, bufanda utzi ditut, azkenik. Afarirako jaitsi naiz. Nire mahaian Sergei Dimitrievitx eta haren emaztea zeuden eserita.

–Zer izan du gure lagunak? Gaixotu egin omen da, gizajoa. Agurtu ezazu nire aldetik, ikusten baduzu.

–Eta agurtu nire partetik ere –esan du emazteak–. Esan diot Sergeiri: asko gustatzen zait! Azkazalak zaindu eta leunak ditu; gizon fina. Eta kopeta, bikaina! Zure idazle horretaz enamoratuta nago, zer nahi duzu, bada?

Sergei Dimitrievitzek jakinarazi dit tamalez ezin izango diola gaixoari bisitarik egin: ordubete barru Moskurantz abiatu behar duela emaztearekin.

–Zer bada? Zeren zuk behintzat alde egiteko asmorik ez baitzenuen.

–Ba, badakizu... bilera bat dago erredakzioan... Emazteak dioenez, ez legoke ongi. Parte hartu beharko omen nuke, oporretan banago ere. Zuzendaria ez da pozik egongo ezer esaten ez badut.

–Zeri buruz, ordea, bilera?

–Ba, gure kosmopolitismo-hutsegiteak direlata. Batzuk gauzak muturreraino eraman zaleak dira, jakina, baina aitortu beharra dago izan direla kosmopolitismo-okerrak... Gure zerbitzuan batez ere.

Bederatzietan berriro jo dut Bilibinen atea.

–Aurrera! –esan du erizainaren ahotsak.

Mantapean, kaleko jantziak erantzita zegoen dagoeneko, gerriraino tapatuta, lehendik ere zabala zuen bularraldea are zabalagoa egiten zion atorra batez jantzita. Lanparak argitzen zuen aurpegia ez zen lehengoa, ez zen grisa, ezpain urdinekikoa. Begiek lasai eta arretaz begiratzen zuten. Aztoze baten moduan.

Poztu egin da ni ikusita; esertzeko gonbita egin dit.

–Hemen zaudenez, zaindu ezazu gure gaixoa, ni afaltzera jaitsi bitartean –esan dit erizainak eta atera egin da-. Zerbait gertatzen bada, jo txirrina.

–Bihotzekoa dut –esan dit Nikolai Aleksandrovitxek, ahotsik gabe-. Oraingo honetan gogor eman dit. Zu hemen egon ez bazina, beste munduan nengoan dagoeneko. Lehen «kaput» esaten zen, orain «infartua». Bigarrena dut. Nitroglizerina ondoan nuen, baina ezin nintzen mugitu...

-Zer ari zinen esaten gelan sartu naizenean?
Zerbait esan nahi zenidan?

-Begira zer ondorio dakarren mendiko lanak
-esan dit silabak ia banaka ebakiz.

Berrero zuzen begiratu diogu elkarri, basoan, bi-
dezidorrean bezala, begiak jaitsi gabe.

...49ko otsaila

Gaur elurra bota eta bota ari du, eta bisutsak arreta hunkigarri bat duela dirudi. Batetik eta bestetik jo eta arrastoak estaltzen ditu. Etxetxoei, izeiei, guri esaten ari balitzaigu bezala: egin lo, maiteak, pasako da, «ez da ezer»...

Basoa ez da kristalezkoa dagoeneko, biguna, abegitsua, adarrez, lumaz betea baizik. Ponpaz harrotutako elur-pilaz beterik dena.

Elur-hautsezko geruza bigun batez estalita-ko bidezidor sakonean marka bat bera ere ez dago, eta kontuz eta arretaz nenbilen: lehenengoa nintzen. Elurrak bigunki estaltzen du arima ere, bidezidorra bezala. Arantzak kendu eta urruti jaurti ditut: egunkarian kosmopolitei buruz zekarren mordoiloa, bere ahotsaz Katiari bizitzako airea zikintzen dion Elisabeta Nikolaievnaoren oroitzapena. Distirarik gabeko zurtasun bigun, harro honek bakea dakarkit arimara.

Goizean goiz, artean denak lotan zeudenean, aise murgildu naiz, eta luzaro lan egin dut. Idatzi gabe egotea zailagoa gertatzen zitzaidan idaztea baino. Oroimenak adeitasunez ekartzen zizkidan aurpegiak,

ahotsak, momentuak. Gero, gosaldu ondoren, basora atera naiz. Gauza izugarriez ari nintzen idazten, baina gaur aise aurreratzen nuen; 8. gelan Bilibin ohean eta nire zain zegoela banekielako, seguru asko. Nire zain dago, baina ez naiz laster joango. Basoa bete-beterik zegoen haren itxarroteaz, eta bidezidorrean kontuz ibiliz hark bere gelan kontatzen zituen minutuen igarotzea entzuten nuen. Zer du hark niretzat? Zer da bera niretzat? Ez dakit. Baina zalantzarik ez dut basoan igarotzen ari naizen ordu hauetan nire falta sentitzen duela; eta horrexegatik gertatzen zait gaur hain erakar-garia basoa eta egiten dit hain ongi paseatzeak. Eta pentsatzeak; baina ez hartaz. Eta ezta mundu honetako berriez ere.

Urkiei begira gelditu naiz. Laino gris baten barruan zeuden, baina goreneko aldean arrosa-kolorezko ukitu arin bat zuen gris hark. Zerura begiratu dut; egun-sentiak distira egiten ote du nonbait oraindik ere? Ez, zer dela-eta egin behar du, izan ere, egun-argi betean! Blok²² gogoratu dut:

Bat-batean inoiz ikusi izan dudana
zirkulu purpura-gris hori
pizten zaizu gainean.

Bertso horiek irakurrita harritu egin izan naiz beti: zergatik purpura-grisa? Zer zela-eta? Izadian ba al da, bada, purpura-grisik? Eta gaur urkien gailur grisak arrosaz koloreztuta ikusi ditut.

Hortik abiatu eta Blok gogoratzen hasi naiz, ez haren errusiar urkiak, haren errusiar bidea baizik, gure idazle handi guztiek –Tolstoi, Dostoievski, Nekrasov, Gogol– nahitaez topatu eta poesiaren zerutik moralaren lurrera amilarazten dituen bide hori. Zerumugaz

22 Blok (1880-1921): errusiar olerkari sinbolista.

harantzik, urruti, bat egiten dute zero horrek eta lur horrek... Han aurkitzen du musika nahigabeak, eta han abestiak justifikazioa.

Zerbaitengatik goresten du belaunaldi bakoitzak
hiltzeraino laidoztatutako jeinua...
Eta denak laidoztatzen dira, bera bezala
bere bihotzean, bere bihotz abeslarian...

Blokek, hori.

Poesiaren zeruetatik komunismora amiltzen naiz
hura gabe ez baita maitasunik niretzat

esan zuen Maiakovskik²³, hiltzeraino laidotu-
tako hurrengo belaunaldiko jeinuak. «Komunismo»
hitzak justizia esan nahi zuen harentzat, eta justizia-
rik gabe ezin izan daiteke ez maitasunik, ez arterik, ez
inspiraziorik ere. Batak zein besteak egindako bideak
antzekoak dira, errusiar ibilbide eta bukaera guztiak
antzekoak diren bezala: poesiaren zeruetatik amildu
ziren lur hura leize baten moduan zabaldu zitzaizen az-
pian eta irentsi egin zituen.

Berriro biratu diet urkiei. Kolore grisa ilundua
zen, arrosa kolorea desagertua.

Etxean, nire gelan, une batez berogailuaren
ondoan eseri eta eskuak eta hankak berotu ditut. Eta
Bilibinengana abiatu naiz.

Gelatik irtetea aurpegiz aurpegi topatu dut
Veksler. Ez zait gustatu nirekin topo egitea egin duen
irribarre lotsatu, are triste samar hura.

–Zer moduz? –galdetu dit–. Non zabilta, zeren
ez baitzaitut ikusi ere. Paseatzen ari zinen?

–Ez –erantzun diot–, itzuli naiz. Orain Nikolai
Aleksandrovitxi bisita egitera noa.

23 Maiakovski (1893-1930): eskola futuristako olerkaria.

–Eta lagun diezazuket?

«Hi aurrean hagoenean kontatuko ez dituenak entzutera noak! –erantzungo niokeen gustura–. Leku hartako berri entzutera noak. Alioxaren berri beste planeta batetik. Zer dik ikusteko hirekin? Bilibin nirekin fidatzen delako, hi ez hau ezagutzen».

–Aldiko pertsona batek bisitatzeko agindu du sendagileak, neka ez dadin –bururatu zait–. Bihotzeko larria izan du, badakizu? Infartua emateko arriskua du, bigarrena. Orain ni egongo naiz berekin, eta zu afalaurrean joan zaitezke.

Veksler urrundu egin da, txikitxo, xaharturik, erreberentzia gisako bat eginda, edo soinak jasoz.

Atea jo dut.

–Egun on! –hasi da oihuka–. Gogoratu zara hortaz zure ondoko bizkiaz: etorri zara azkenean bisita egitera? Zer, gaur moussea izan duzue ala ez? Niri ez didate ematen: gelatinak kalte egiten omen dit. Sinistu sendagileei eta goseak hilko zara.

Ni isilik egon naiz, berriketa-jario hutsal hura noiz agortuko.

–Bihotzeko gaixotasun hori han harrapatu zenuen? –galdetu diot.

–Bai. Infartua geroago etorri zen, gerran, baina hasi, han hasi zen dena. Eta nolako osasuna nuen lehenago! Ikusiko baninduzu!

–Eta bost urteak meatzean egin zenituen lanean?

–Ez, lehenengo biak arbolak botatzen igaro nituen –esan dit, gelako aterantz eta, zerbaitengatik, sabairantz zeharka begiratur–. Hasieran basoan egon nintzen, eta handik bi urtera meatzean. Gerrak salbatu ninduen. Gudarostean aritu nintzen, Berlin hartzerakoan.

Eta ahots beheran hitz egiten hasi da.

Ez Berlini buruz. Ez Mu-Mu 2-ei buruz.

Seguru asko ez zuen sarri izaten lagerraz hitz egiteko aukerarik, nik berari entzuten nion irrika asezin berberaz hitz egiten baitzidan berak niri.

Ez zen kontaketa jarraitu bat; bazirudien aldian behin hutsune batzuk zituela oroitzapenetan, kanpora ateratzen zitzaizkiola eta orain koskak egiten zituztela nireetan.

Abere-garraioko tren bat. Jendea zutik gau eta egun. Hildakoak bizien bizkarretan erortzen. Iragaitzazko eremu batean –Moskun zen oraindik–, bazen begirale famatu bat. Presoei lo hartzen ez uzten jostatzen zen. Gauean bati bizkarreko bat eman, esnatu eta lurretik zigarrokin bat jasotzera behartuko zuen. Edo belarrian oihuka hasiko zitzaion, besterik gabe. Horrelaxe, jostatzeko. Zertarako gabe. Nola ikaratzen zen ikusteko.

Behin arazo bat izan omen zen. Bilibinek basoan lan egiten zuen garai horretan. Goizean ilaratan jarri zituzten, lanera eramateko. Soldadu batzuk, eta txakurrak ere bai, zituzten zaintzaile. Alsaziar txakurrak. Txakurrak, inork ilaratik kanpora pauso bat egiten bazuen, haren gainera oldartzeko irakatsita zeuden. Preso batek –Leningradekoa zen, oker ez banago–, emaztearen gutuna jaso zuen bezperan. Eta barrakoian ezin izan zuen irakurri, nonbait, edo berriro irakurri nahi zuen, ez diot ulertu. Ezkutuan gutuna patrikatik atera eta irakurtzen hasi zen. Dagoeneko ilaratan zeudenean. Horretan haizeak papera eskutik kendu eta eraman egin zion. Eta bera atzetik, ilaratik aterata..., orduan txakur bat gainera oldartu eta hagingka hil zuen.

Bilibin isildu egin da. Ni ere bai. Eserita egonez nekatuta, etzan eta den bezain luze luzatu da ohean.

–Hobe Alioxaren helbidea ez ezagutu izana –esan diot–. «Postazko harremanik gabe». Horrela ez zion ihes egingo nire orriak. Txakurrak ezin izango zuen haginka hil nire erruz.

–Ekarri gerturago zure aulkia –eskatu dit Bilibinek bat-batean.

Gerturatu dut. Burua geroz eta barrenerago hondoratzen zitzaion bururdian. Gainera makurtu naiz. Bizkor-bizkor eta gogorki, min egiteko beldurrez eta beldur hori irmoki gaudituz, Bilibinek azaldu dit –ahots profesional moduko batez– irudi okerra dudala Alioxaren azkenaz. Ez zutela inora eraman, ez zutela mehatxatu ez bagoiez ez txakurrez. Hori baino askoz lehenago bukatu zela dena. «Hamar urte postazko harremanik gabe» hori fusilatzea izendatzeko adostutako esamolde bat besterik ez da, Nikolai Aleksandrovitxen ustez. Leihatiletan «fusilatua», «fusilatua» sarriegi esan beharrik ez izateko eta ilaretan negarrik izan ez zedin.

–Inon ere ez ziguten uzten posta-harreman asko izaten –esan dit–. Baina era horretako lagerrik, «hamar urte postazko harremanik gabe», inon ez zegoen. Ezta horrelako sententziarik ere. Hori seguru esaten dizut.

Begiak bildu ditu.

–Horrela hobeto –esan diot–. Txakur alsaziarrik gabe. Berdin dio, handik ez zen bizirik aterako. Oso gizon indartsua zen, eta adore handikoa, baina ez zen egokia... zuhaitzak botatzeko. Indartsua, baina ahula.

Bilibinek ez du hitzik esan.

Ez dakit zer ikusten zuen berak, baina nik horma bat ikusten nuen. Alioxaren azkeneko urratsak eta soldaduak agindua entzuteko zain.

Gauetz izan zen? Egunez, eguzkitan? Non nengoen ni une horretan? Gogoan laguntzen nion?

Badirudi, hala ere, gaur egun beste era batera egiten direla gauza horiek. Molde horiek XIX. mendeko gauzak dira: soldaduak, horma. Gaur beste era batera da.

Bilibinek begiak zabaldu ditu. Zer gogoeta nerabilen igarririk, esan du:

–Uste ez denean egiten dute. Ibilian zoazela. Garondoan.

Hori esatean, burua bururdien kontra estutzen zuen. Une horretan bere garondoa sentitzen ari zen seguruko asko, ni nirea bezala. Bururdiaren ertzak zabaldu egin dira, eta burua barrenean zeukan orain.

–Hori da dena –esan dit–. Horra.

–Eskerrik asko, zeure buruaz eta nireaz errukirik izan ez duzulako.

–Ez duzu negar egiten?

–Ez. Zuk... beste pertsona batzuek... hori dena jasan ahal izan baduzue, ez dut zilegi negar egitea.

–Zatoz bihar, lehentxeago.

Eskua luzatu diot. Geldiro, kostata altxatu da ukalondo gainean, bere gorputz astuna alboka nekez biratu, eta nire eskua berean hartu dit. Muin eman dit eskuan, ondoren niri begiratu eta berriro muin eman dit.

Nik alde egin dut.

...49ko martxo

Beraz, hil egin zuten, besterik gabe. Eta alferrik izan ziren Leningraden eta Moskun ilaran egin nituen ordu guztiak. Eta eskaera guztiak. Eta gutunak. Eta auzia berrikusteko eskaerak. Berandu, denak. Artean leihatila batetik bestera nobilela, aspalditik zegoen Alioxa lurpean.

Non lurperatu ote zuten?

Hil ondoren, urtetan jarraitu zuten niri gezurra esaten.

«Berrikusteko oinarririk ez dago». «Zigorra betetakoan, berak idatziko dizu». «Hil delako jakinarazpenik ez da jaso». Eta azkenekoa, orain bi urte: «Baliteke bizirik egotea, baliteke hilda egotea, nola jakin nezake nik? Ez gara erregistro zibila, andrea. Ez digute heriotzen berri ematen. Zoaz erregistro zibilera».

Harrigarria badirudi ere, gauean lo egin dut.

Alioxarentzat horrela hobeto, ezta?

Eguna ez da atera lanerako egokia, kezkarria baizik. Larritasun gehiago eta gehiago ekarri dit, erretilu batean bezala, bai gosalduek ondoren irakurri dudana egunkarian, bai pasieran eta etxean. Gaur ez dut beste

murgiltzerik egin; Bilibinekiko topaketa alferrikakoa izan da. Denak larritzen nau.

Jangelarakoan, egongelan *Literatura Aldizkaria*-ren azkeneko alea bilatu eta, bakar-bakarrik gosaltzen ari nintzen bitartean, goitik behera irakurri dut.

Editoriala: «Jaso dezagun konpromiso boltxebi-kearen ikurrina!»

«Aitortu beharra dago *Znamia* aldizkarian jaitsi egin dela argitaratzen dituen lanen kalitate ideologiko eta artistikoa eta ideologiaren aldetik galgarriak eta artearen aldetik eskasak diren eta kosmopolitismoaren eta desbideratze formalistaren usaina duten lan parrastada bat argitaratu duela».

Literatura Aldizkariko bilerari buruzko txosten bat, eta hartan, beste eraso batzuen artean, gure Sergei Dimitrievitx adeitsu, leunaren mintzaldia:

«Kamaradak, zintzotasunak eta alderdiko kide izateak agintzen baitidate, aitortu beharra dut, oso berandu bada ere, azken egunotan erori zaidala begietatik, alderdiko prentsaren aldetik etorri zaigun kritikari esker, adiskidetasunak jarri zidan errezela».

Bigarren zutabea: «*Antzerkia* aldizkariko kosmopolitak»:

«Idealista eta formalista, eskola konparatibistaren aldele amorratua, atzeritarra den orenen zale sutsua delarik, Xumilov (Schneiderman) irakasleak, jakinaren gainean adierazi ditu bere bizitza guztian sobietar nortasunaren duintasuna laidoztatzen duten teoriak, eta gure gazteen buruak aberriaren eta zientziaren kontrako adierazpenez kutsatu ditu».

Hirugarren zutabea: «Kosmopolita bat sobietar antzezle miresgarri batez mintzo».

Beira garbiaren beste aldean begiratu bat egin diot izeitxoari, elur-geruza distiratsuzko malda leunari, aitaren egingo banu bezala babesa eta laguntza eskatuz. Baina artikulua haietako hitzak ziztaka ari zitzaizkidan garunean, aspaldidanik han egon eta orain barrenerago eta barrenerago sartzen zitzaizkidan arantzak balira bezala. «Ideia hutsalak», «eskolatxoak», hori dena garai hartan ere irakurria nuen. Eta baita «Jaso dezagun ikurrina!»; orduan, ordea, bijilantziarena zen. Eta baita «amorratua» ere; baina orduan «hipokrita» edo «etsaia» izaten zen ia beti (estenografia-ikurrak: «Jaso dezagun bijilantzia boltxebikearen ikurrina!» eta «hipokrita amorratua»). Eta «ideologiaren aldetik galgarri» adierazpenaren beldurgarrizko lotura hori, hori ere garai hartakoa... Formula finkoak, ezerezean itzulipurdika.

Kosta egin zait gazta zuria irenstea. Iruditzen zitzaidan egunkaria berriro egongelara itzuli, hantxe utzi, basora joan eta aire garbia arnastuz gero, alde egingo zidala pozoiak, aire kirastua joaten den bezala. Baina basoan topaketa topaketaren ondoren izan dut, zein baino zein saminagoa. Denak desberdinak eta denak gauza berari buruz gauza bera errepikatzen zutenak, zinema-zuzendariren batek nahita antolatuta izan balitu bezala, nire larritasuna larriagotzeko.

Korridorean maiz ikusi ohi dudak neska bat zertorren nireganantz: garbitzailea edo erizaina, ez dakit. Oso gaztea, baina beti gainean duen goibeltasunak zahartu egiten du. Haren aurretik trostan sei-zazpi urteko neskato bat, lasterka. Jantzi guztiak handiak zituen, erabiliak, inorengandik jasoak: botin handiak, zamar krakatsu, handiegi bat, botoirik gabe, buruko zapi handi, beltz bat, bularrean lotua, korapiloa aurretik ia belauneraino erortzen zitzaiola. Buru-zapiak

masailak, kopeta, behin ezkerreko aldea, hurrengoan eskuinekoa, estaltzen zizkion, eta nik arretaz begirata ere ez nion ikusten aurpegia... Biak, nagusia zein txikia, elurretara baztertu dira, ikusi nautenean, bidea niri utzirik, eta txikitxo hondoraino sartu da elurretan.

–Zoaz etxera oraintxe bertan! –agindu dio hotz eta motz zaharrenak, eta bizkor-bizkor abiatu da bainuetxerantz-. Lagundu didazu! Orain etxera, esan dizut! Vitka oihuka ariko da dagoeneko! Etxera, entzun?

Neskatoak begiak kliskatu eta mukiak xurgatu ditu, mahukaz buruzapia kopetatik kentzen ahalegindu da.

Galtzarbeetatik heldu eta bidezidorrean pausatu dut berriro. Zaharrenari begiradaz jarraitzen zion; hura urrats lasterrez zihoan urkien artean.

–Ahizpa duzu? –galdetu diot, makurturik.

–Lehengusina –erantzun dit gogo onez-. Gure abizena Simakov da, horiena Lastoxkin.

–Eta zuk nola duzu izena?

–Liolka.

Zutik jarraitzen zuen, bere lehengusinaren bizkarrari begira. Hura eraikinera iristen ari zen dagoeneko. Aurpegia urdinkara zuen, esne gaingabetuaren kolorekoa.

–Egin ditzagun, bada, elkarren ezaguerak, Liolka –esan diot-. Zergatik ez zara behin ere etortzen guregana? Bisita egitera. Non lan egiten du zure lehengusinak? Eraman zaitzake zinemara, oso film interesgarriak izaten ditugu.

–Biltegian lan egiten du... Eta debekatuta daukagu eraikinean sartzea.

Biratu eta bidezidorretik atzerantz abiatu da, eta ni haren atzetik. Elurraren erdian, bere buruko zapi beltzarekin, narras jantzita, estropezuka, bere botin erraldoi haiekin, txorimalotxo bizi bat zirudien.

–Eta zergatik daukazue debekatuta eraikinean sartzea?

Gelditu eta biratu gabe erantzun dit Liolkak:

–Han idazleak bizi dira... Eta lokatzez zikinduko genuke. Ludmila Pavlovnak esan zidan: «Ikusten bazaitut, belarria moztuko dizut!». Eta Tonkak: «Ez ibili nire atzetik, bestela lanetik botako naute, zure erruz».

–Eta ama non dago?

–Kartoi-fabrikan lan egiten du. Zagorianski-n.

–Eta aita?

–Desagertua.

Bertan geratu naiz, zutik, nola urruntzen zen ikusten. Han zihoan, urkien artean beltz, epaitondotxo bat bailitzan.

–Ikusi arte, Liolka! –oihu egin diot. Biratzen saiatu da, baina buruzapiarekin katramilatua da eta ni-reganantz ez baina aurrerantz egin du oihiu:

–Hurrengo arte!

Saihesbide batetik jo dut. Adar beltzetan eroso pausatuta zeuden kuxin zuri bigunak. Batzuk ez zen ulertzen nola mantentzen ziren han: adarrak meheak eta biluziak ziren, eta adartxo horietan bola bigun bat! Hantxe kokatuta, adarra ozta-ozta ukituz, eta hantxe geldi, ezer gertatuko ez balitz bezala. Izeitxoek, elurrak epel-epel bildurik, ibiltzera ateratako haurtzaindegi ongi zaindu bat ziruditen. «Lokatzez zikinduko genuke» hura arantza bat bezala sartuta neukan bihotzean. Eta amorruez begiratzen nion modako beroki beltz batez eta lumatxazko xalez jantzita nireganantz zetorkidan andre sendokoteari. Ludmila Pavlovna zen.

«Hara, otsoa aipatu, eta otsoa atarian! Interesgarria, eta basotik ere ez ditu uxatzen?», bururatu zait.

Haren ibilera arina ikusirik, oraindik aspaldi ez dela lanean traba nola egin zidan gogoratu dut. Jende guztia zinemara joan eta bi orduz iraungo zuela banekien isiltasun trinko bat sortu zelarik, mahaian eserita nengoen, «murgiltzeko». Eta, horretan, iraganetik berreskuratu nahi nuen egun hura oso garbi agertzen ari zitzaidanean, dena ezabatu zitzaidan, korridoreko ateetako sarrailen kraska-hotsengatik. Norbait geletako atea zabaltzen ari zen; haietan sartu, berriro atera, atea itxi eta beste batera joaten zen. Sarrailek ixtean hotsa egiten zuten eta zabaltzean ere bai.

Luma eskuan nuela atera nintzen korridorera.

Aurreko gelan (Ladoren maitalea ostatatzen da han), Ludmila Pavlovna ispilu aurrean zegoen, bere ile horiaren orrazkera harroarekin, bere bular betearekin eta bere aldaka itzelekin erdi biraturik, behin batera gero bestera begira.

Gelaren jabea ez zegoen gelan.

–A, zu ere joana zinela uste nuen –esan zidan Ludmila Pavlovnak, durduza pixka batez–. Gaur film interesgarria ematen dute, han daude denak; baina oso gogorra da eta ez naiz joan, gehiegi emozionatzen naiz... Nahiko sufrikario dut bestela ere bizitzan...

Korridorera atera eta atea itxi zuen.

–Erabat nahastu naiz –azaldu zidan, nire galdezko begiradari erantzunez–. Gela hauetako batean bada meheago egiten nauen ispilu bat, hain bete agertzen ez naizena... Denak filma ikusten ari diren bitartean, etorri eta bila ari naiz... Barregarria dela, baietz. Baina emakumea emakume beti, baita 40 urte dituenean ere, ez da egia, Nina Sergeievna?

«Hik ez ditun berrogei, berrogeita hamabost onak baizik –pentsatu nuen–. Eta ez haiz etorri geletara ispiluan begiratzera bakarrik, haietan inor ez dagoe-nean heure giltzaz zabalduz».

Hori dena etorri zait berriro gogora, Ludmila Pavlovna hurbiltzen ikusi dudanean. «Ez haiz mehetzen ari, gizentzen baizik», poztu naiz, poz gaiztoz. Baina niregandik hamarren bat pausora zegoenean, joan egin zait amorrua. Ludmila Pavlovna negarrez ari zen. Pakete astun bat zekarren besapean, beste eskuaz begiak xukatzen zituen, musuzapitxo busti bat pilota bat bailitzan estutuz... Basoan inorekin ez zuela topo egingo usteko zuen seguru asko, eta libre jaregin die malkoei. Eta han nengoen ni. Elurra, elurra bidezidorren alde bietan... Ezin inora desbideratu.

Bistakoa zen astuna eta deser osoa zela kaxa: ia arrastaka zekarren; aldaka mamitsuan jotzen zion; malkoak ugari zerizkion eta errimelak bidetxo beltzak marrazten zizkion aurpegi zuri-arrosa kolorekoan.

–Zer duzu, Ludmila Pavlovna? Utz iezadazu, eramango dizut pixka batean... Edo edukiko dizut. Eta zuk atsedena hartu... Utz dezagun hementxe, epaitondo honetan... Ez zaio ezer gertatuko... Eta zu eseri hementxe... Hementxe... Garbituko dizut.

Ez nekien zer egin edo zer esan. Epaitondo zabal batetik elurra garbitu, eskuzorroa gainean zabaldu eta haren gainean esertzeko eskaini diot Ludmila Pavlovnari. Eta musuzapi garbi bat eman diot. Mukiak kendu, malkoak xukatu eta izututa begiratu digu, niri, bidezidorrari, eraikinari; azkenean hitz egiten hasi da. Postatik zetorren. Baldarki hitz egiten zuen, ahots beheran, bere epaitondoan ezinegonez, eta niri eskutik heldurik. Azalpenetatik ulertu diodanez, badu ahizpa gazteago bat («aspaldidanik umezurtzak gara eta ala-

ba banu bezala maite dut»), eta ahizpa hori zorionez ezkondu zen («hain senar jatorra; halakorik ez da geratzen... eta adorazioa zion... emaztea esertzen zen aulkari ere jelsia zion...»), eta 37an atxilotu egin zuten («entzungo zenuen horren berri, irakasle pila bat sartu zuten kartzelan; eta gizona kultura-maila handiko irakaslea zen, gaur egun halakorik ez da»), eta desagertu egin zen; eta emaztea lager batera bidali zuten. Iaz itzuli zen, ez Moskura, Moskun ez zen baimenik haientzat, Vladimirrera baizik; han aurkitu zuen lana («lan-ikasketarik ez zuen, eta haurtzaindegi batean hasi zen lanean») eta nahikoa ongi bizi zen, Ludmila Pavlovnak aldian-aldian paketeak bidaltzen zizkiolako batez ere. («Badakizu, Moskutik ezin daiteke, baina hemendik, postatik bai, bidal daitezke»). Eta, horretan, atzo postetxetik jakinarazpen bat jaso zuen eta gaur paketea itzuli diote. «Hartzailea ez dago» idatzita... Eta ilarako emakume bati bere amak Vladimirretik esan dionez, han gau batean berriro atxilotu eta iparraldeko norabait bidali omen dituzte deportatu ohi guztiak... («Hitz bat esan du... ahaztu egin zait... emozio hauekin guztiakin erabat galtzen da burua... berretzaileak edo horrelako zerbait, a, bai, «berregileak», alegia berriro... lehen ere han egonak»).

Ludmila Pavlovna isildu egin da. «Berregileak» hori buruan jo eta jo ari zitzaidan. Nire eskuzorroaren gainean eserita, isil zegoen, nire musuzapia orban beltez eta gorritz betez.

–Izoztu egingo zara hemen –esan diot, zer esan ez nekiela–. Goazen, lagunduko dizut paketea eramaten.

Berregileak. Libre utzitakoak berriro atxilotzen ari dira. Hara berriro.

Martxan hasi gara.

«Bilibin ere eraman dezakete, beraz»... pentsatu dut.

–Baina eraman helbidea zure aldera dela, hone-la –erregutu dit Ludmila Pavlovnak–. Bestela norbaitek helbidea ikusi eta segituan asmatuko dute... Vladimir da deportatu gehien dagoen lekua... Moskun erroldatzen ez zieten uzten, eta han erroldan sartzen zituzten... Eta orain denak eraman dituzte... Nik inprimakian ez dut jartzen. Gure zuzendariak iaz erizain bat kaleratu zuen: ez zuen adierazi senarra errepresaliatua zela. Zuri zer iruditzen zaizu, berriro barrura eramango dituztela? Eta judu horiengatik dena!

–Nola juduengatik? –galdetu diot, geldituta.

–Ez dituzu irakurtzen egunkariak? –esan dit Ludmila Pavlovnak xuxurlaka–. Konspirazio bat dago berriro, azpilanen batean sartuta daude berriro, kosmopolita batzuk harrapatu dituzte. Konspirazioak antolatzen dituzte (denek dute familiartekoren bat atzerrian), eta errurik ez dutenek ordaintzen dituzte horien erruak. Ez da erraz ulertzen. Kea bada, sua uruti ez... Paperik ez duten eta aberriari traizio egiten dioten arlote batzuegatik, pertsona zintzoek sufritu behar. Halakoak hainbeste izanda, erakundeek argi ikustea erraza dela uste duzu?

Ia-ia bota nion paketea elurretara, baina ez dut asmatu zer esan. Nola atera zabor hori haren garun gaixotik? Horregatik ari dira, hortaz, egunkariak eta irratia gezur zentzugabe horiek bota eta bota. Zeren hori ez baita berez sortutako antisemitismoa, ez da gerra garaian Alemania nazitik berriro iritsia, jendilaretan «juduek ez dute goserik», «juduek badakite moldatzen» esaten zenean edota Uzbekistango emakume zahar handientsu samar batek neure aurrean emakume judu zahar bati esan zionean bezala: «nire

uzbekistandar begiek ikusi ere ez zaituzte egiten...». Ez da berez sortutako eroaldi bat, iraganean jende ezjakinaz hainbeste aldiz nagusitu izan denean bezala: hau nahita, plan baten arabera antolatu eta zabaldutako eroaldi bat da, aurrez ongi pentsatutako asmo batez zabaldutako eroaldi bat. Gauza bat baizik ez diot esan, adorerik gabe: «Zertan sartzen dira horretan juduak?». Finlandiar etxetxoetako baten atarira iritsita geunden: han bizi dira langileak. Ludmila Pavlovna geldiro igo da atarira: paketea eman diot.

–Eskertzen dizut! –esan dit ozen Ludmila Pavlovnak, laguntzera joandako gizon prestu bat agurtuko balu bezala.

Unetxo batez han geratu naiz, orain nora joan ez nekiela. Hain garbi ikusi dut ezinbestelako lotura: berriro odola isurtzea ekarriko duen gezurra berriro. Biak eskuan banitu bezala.

Berregileak... Bilibin berriro. Hitz hori dagoeneko Moskun entzuna nuela gogoratu naiz. Iaz.

Goiz zen etxeratzeko. Bidezidorretik errepedirantz jo dut. Gaurkoz nahikoa nuela iruditu zait, baina gaurko eguna antolatu didan zuzendariak beste zerbait zuen erabakita.

Menditik beherako bidearen erditsuan lodikote hipertentsiodunak harrapatu nau eta ondotik jarraitu dit, arnasestuka. Ez nuen beste erremediorik; geldiroago jarraitu; berak ezin du bizkor ibili. Pauso batzuk isilik egin ditugu.

–Zenbateko tentsioa duzu gaur? –galdetu diot pentsatu gabe.

–Ez zait jaisten –erantzun dit lodikoteak–. 19 - 11. Ekaterina Ivanovna ikustera noa. Moskutik beste sendagai bat ekarriko didala agindu zidan.

Ekaterina Ivanovna gure sendagilea da.

–Ohean egon beharko duzu beharbada –esan diot, triste-triste zintzilik zituen biboteetara begiratzuz. Bilibin, kazetaria eta hirurok lehendabiziko aldiz elkarrekin paseatzera atera ginenean jaitsitako aldapa beretik jaitsi gara. Orain, ordea, egun-argia zen: basoa, elurrez estalirik, atoskor, onbera ikusten zen; eta, horrexegatik, iraganean urrun zegoen arrats ilun hura. Eta baita orduan Bilibin batere ezagutzen ez nuelako ere, baina orain...

Hilobiaren bizkar zuri, guriari, beheko zubiarri begira egon naiz. Hilobiko obeliskoa elur-esfera handi batek koroatzen zuen.

–Gaurko egunkariak irakurri dituzu? –galdetu dit lodikoteak, puzka-. Gure Sergei Dimitrievitxek hitzaldi galanta eman du...

–Bai, ederra nazkagarrikeria –esan diot, eta lodikoteari mahukatik eutsi diot, ia laprast egin baitu-. Norbaitekin egunero gosaltzen duzu, beste edozein bezalakoa da eta jendaila horren musika bera jotzen hasten zaizu bat-batean... Berak esan zidan, orain dela hiru egun, kritikari horiek oso adituak zirela antzerki gaietan...

–Zer nahi duzu bada egitea... Emaztea, haurrak ditu... –esan dit lodikoteak lasai, hasperen eginez-. Badakizu, familia duen pertsona batek ezin arriskurik hartu...

Gelditu egin da, amasa estuturik, eta bere bufanda gorri arunta, aldean zeraman jantzi bero bakarra, biltzen hasi da. Udazkeneko beroki eskas samar bat zuen jantzita. Beso motzak nekez altxatzen zaizkio, aurpegia gorritu zaio, begiak zabal-zabal egin zaizkio. Bufanda lotzen laguntzeko gogoia eman dit, haur bat balitz bezala, baina ez naiz ausartu. «Nola igoko ote du aldapa, jaisten itotzen baldin bada?» –pentsatu dut.

–Emaztea Moskun duzu? –galdetu diot, zerbait esateagatik.

–Ez –lodikoteak bufanda haztatu eta jaisten hasi da berriro, herrenka–. Alemanek erre zuten.

–Zer? –esan diot oihuz.

–Bai, erre egin zuten. Ghettoan. Minsken. Eta bi haur. Hiru seme-alaba genituen. Bi mutil eta neska. Grixax, Yaxax eta Sonia. Orain seme bakarra geratzen zait, Yaxenka. Izebarenean dago, ni hemen sendatzen naizen bitartean. Bestela elkarrekin bizi gara.

Zubitxora iritsi gara. Ez nuen zubitxoa ikusten. Erre egin zituzten, emaztea eta seme-alabak. Nola zioen Puxkinek? «Zirtaka berogailu piztua... Zein atsegin-a sutondoan pentsatzea»²⁴. Barandatik kuxin zuri handi bat erorarazi dut. Argi eta garbi imajinatu behar da hori: egurra erretzen eta haurrak erretzen. Baina bihotzak ez zuen nahi hori argi eta garbi imajinatzerik... Lodikotea zutik zegoen zubitxoaren erdian eta aurrera begiratzen zuen, sendagilea etorriko zela espero zuen aldera. Grixax eta Soniaren izenek arnasa estutzen zidaten. Ohiko solas batera itzuli beharra zegoen, berriro arnasa hartzen ikasteko...

–Moskuko zein aldetan bizi zara? –jakin nahi izan dut, haurrak erretzen dizkizutenean, batere garrantzirik balu bezala zein auzotan bizi zaren horiek.

–Krasnaia Presnia kalean.

Hantxe jarraitu dugu, zutik.

–Zure mutikoa, Yaxenka, eskolara joaten da? –galdetu diot, ergelaren moduan. Nire hitz guztiak faltsuak iruditzen zitzaizkidan. Zertaz hitz egin daiteke, zer galdetu dakioke aita bati, senar bati, emaztea eta seme-alabak erre dizkiotenean? Nik lehendik ere banekien, jakina, alemanek juduak erre izan zituztela,

24 Puxkinen *Neguko goiza* poemako bertsoak.

baina lehendabiziko aldiz ikusten nuen hori bizi izandako norbait. Lodikoteak tolesik gabe eta erabateko konfiantzaz erantzun dit. Bere seme bakarrak nolako notak ateratzen dituen, Yaxenkak goizean ohea nola egiten duen eta tea nola prestatzen duen kontatu dit.

–Eta... eskola ona da? –galdetu diot, isildu eta berriro Grixax eta Sonia gogoratzerax behartuko ote nintzen beldurrez.

–Ona –erantzun dit lodikoteak–. Kirolerako gela eta gosari beroa ere badituzte. Baina... nazioarteko hezkuntza hankamotz samar... Nire Yaxak «R» gaizki esaten du eta gainerako hurrek barre egiten diote.

Oso otzan esan du «gainerako hurrek» eta ez «pikaroe», eta ez du esan «antisemitismo» hitza, «nazioarteko hezkuntza hankamotz samar» baizik. Ez zegoen ohi baino itoago, eta begi biribilak ere ez beti baino irtenagoak. Nire aldetik banituen nahikoa eta sobera galdera, garuneko tiro, txakur, labe, berregile. Gure sendagilearen artilezko txanotxoax urrutitik ikusirik, gaixoa Ekaterina Ivanovnak zaindu zezan utz nezakeela erabaki dut. –Agur –esan diot–: bazkaria arte! –eta etxerantz jo dut.

Lehenbailehen egon nahi nuen nire gelan; ez, ez nire gelan, 8. gelan baizik. Eta dena kontatu: egunkarietakoa, Ludmila Pavlovnaarena, paketearena, lodikotearena eta, esateko indarririk banuen, baita haurrena ere. Baina, eztarrian malkoak nituela Bilibinen gelan sartu naizenean, zientzia-fikziozko eleberrien idazlea eta Valentina Nikolaievna zeuden han. Zientzia-fikziozko eleberrien egilea gure herrian sionismoaren erroak zein diren azaltzen ari zen, erro horiek erauzi egin behar direla esanez. Bilibin ez da hasi eztabaidatzen, eta etorkizuneko biztanleak zopez eta xerrez, barazkiz edo ogiz ez baina, elikagai-pastilla

bereziz elikatuko direla azaltzen hasi zaigu. Pastilla bat irentsi, eta egun osorako elikatuta.

–Hara! Horiek pastillak! Eta pasteltxo bat nahi badut? –esan du Valentina Nikolaievna, maite-jolase-tan.

–Esadazu eta hortxe izango duzu pastela zure oinetan –erantzun dio galai Bilibinek–. Edo ezpainen aurrean, hobeto.

Bost minutuz baizik ez naiz geratu han, eta nire gelara itzuli naiz bizkor-bizkor.

Afalondoan pasiera egitera joan naiz, eta bakarrik jaitsi naiz bidezidor ilunetik errekatxorantz. Berriro erasotzen zuen bidea baso ilunak, berriro, orduan bezala, nekez bereizten zen hilobia izei-adarren artean. Arroila ilargiaren argiz blai zegoen. Zubitxoan gelditu naiz, indarretxearen errepika entzunez. Zer sortzen du hark hemen? Indarra bakarrik? Denbora ez? Beste hamahiru egunez errepikatuko du, eta kito. Mosku hasiko da.

Indarretxearen tik-tak hotsen artean errekatxoarena entzuten ahalegindu naiz. Lehenengo gau hartan Bilibinek esan bezala: «Batzuetan bai, bestetan galdu egiten da». Uraren haur-hots garbia entzun dut. «Xuxurla maitea» pentsatu dut, eta etxeratu egin naiz. Lotara noa. Baliteke hitz horiekin errazago lo hartzea.

... Eta tentsioa hartu du berriro! Sendagai berrien bila dabil! Sendatu egin nahi du! Bizi egin nahi du, bizi, bizi, egur puskek balira bezala erre zizkioten haurren oroitzapena garraiatuz. Nola moldatzen da bere oroimena itozteko, lo hartzeko? Nola? Zeren ni ere Alioxaren azkeneko irribarrearen oroitzapenarekin bizi bainaiz, eta lo egiten dut, eta gaur bertan ere lo egin dut, garondoko tiroarenak jakinda. Eta Bilibin ere bizi da, Saxa bere lagunari hankan xafla bat nola lotu

zion gogoratzuz. Eta edozein unetan berriro han aurki daitekeela, «berregile» bihur daitekeela jakinik: lehenengo aldian zergatirik gabe, bigarreanean behin han egon zelako.

Lodikoteari seme bat geratzen zaio oraindik. Niri Katiuxa geratzen zait. Bizi beharra dago.

Ez, ez Katiuxa bakarrik. Baita etorkizuneko lagunak ere, dena kontatuko diedanak.

...49ko martxo

Goizean goizetik, lan egin ordez, gutunak idazteko eseri naiz. Ludmila Pavlovna arratsaldean hirira joatekoa da, eta botako dituela agindu dit. «Badakizu... gauzatxo batzuk bilatu nahi ditut dendetan... huskeria batzuk...» azaldu dit Ludmila Pavlovnak jangelan, baina Moskun bere ahizpari buruz zerbait jakin nahi duela iruditzen zait.

Gutunak idazten hasi naiz. Katiuxari idatzi diot, hitz bakoitzean bere izena entzun hutsarekin nolako samurtasuna sentitzen dudan komunikatzen saiatuz, eta hitz bakoitza talisman bat, babes-txartel bat izan dadin harentzat. Babes dezala zoritxarretatik eta ez-beharretatik. Gerra garaian txikia zen eta errazagoa zen zaintzea. Orduan fisikoki baizik ez zegoen babesgabe; ez zuten izutzen arrunkeriak, gisagabekeriak, salaketak; bonbetatik metroan, soto batean, babesleku batean ezkuta nezakeen. Neure kontra estutu, kulunkatu, bildu, eraman. Nirekin ez zuen ezeren beldurrik. Eskutik helduta, ez zion beldurrik izaten zeruan bi ezpata zuriren artean agertzen zen puntu beltzari, gure datxako lorategiko hegazkinen aurkako kanoien

orroari, egunsentia baino lehen metraila zatiek pinuen enborren kontra egiten zuten zartari. Ama ondoan zuen. Zer hori baino seguruagorik? Orain, berriz, ni ondoan egonda ere, nola babestu zaurietatik haren arima?... «Bi jarriko dizut notan!» egiten dio garrasi eskolako andereñoak. Bi garagardo balira bezala.

Katiuxari gutuna ez baina, pozik idatziko niokeen haren aldeko otoitz bat izaki ahalguztidunen bati.

Ez dut erregutzen nire arima mortuaren alde,
munduan inor ez duen erromes-arima honen alde,
birjina errugabe bat eskaintzen baizik
mundu hotz honen babesle samurrari.

Nola ondu ote zuen Lermontovek²⁵, artean mutil gaztea zela, husar bat zela, otoitz hau, amata-sun-zentzuz gainezka, bere ariman? Harengan dena da misterioa, bestalde.

Lagunei idazten ere ahalegindu naiz, baina ez zait ezer atera. «Ongi nago». Baina beste mundu hartako albistek? Eta Liolka? «Pasiera asko egiten dut». Baina hemen paseatzea benetan da paseatzea eta ez «bizipen pilatik zerbait ateratzeko ahalegin bat»? Eta ateratzen duzuna ez diozu postari fidatzen.

«Eta zer moduz zure itzulpen hori? Oso kezkatuta nauka argitaratzaileari egin behar diozun bisitak» idatzi diot Tania Poliakovari, neure buruaz ez idazteko besterik gabe, galdera pila bat eginez. Nolakoak izan behar duten gure gutunek! Itzulitakoan kontatuko diot dena. Tania eta biok eskolako mahai berean esertzen ginen garai batean; hark dena ulertzen dit, Alioxa go-goan du eta edozertaz hitz egin dezaket harekin. Hura

25 Lermontov (1814-1841): errusiar olerkari erromantiko handia. 22 urte zituela idatzitako *Bidaiariaren otoitza* izeneko olerki batetik hartuak dira bertso hauek.

kenduta, ez zait beste «ulertzailerik» geratzen. Katiuxa gaztetxoa da oraindik horretarako. (Eta kolpetik handia egin eta hark ere ulertzen ez banau? Eskolak ez ulertzen irakasten du, egunkariek ez ulertzen irakasten dute!).

Horretan txapin bigun batzuen pausoak eta ez-tulak entzun ditut ate ondoan. Isiltasun-segundo bat. Eta atea jo dute.

–Aurrera!

Banekien Bilibin ez zela oraindik ohetik jaikitzen, eta ezin zitekeela hura izan, baina, hala eta guztiz ere, pena hartu dut hura ez baina Veksler ikusita.

Zinta gorriekiko karpeta bat zekarren eskuan. Lotsatuta eta triste zegoen.

–Nire olerkiak entzungo zenizkidala agindu zenidan –esan dit, lurrera begira–. Baina ez zaitut inon ikusten... Idazten ari zinen, gainera... Lanetik atera zaitut... Hemen badirudi ez dela zuzena elkarri gelan bisita egitea, baina Bilibini bisita egiten diozunez... Ni ere etorri egin naiz.

«Bilibin gaixo dago eta ni ez» erantzun niezaiokeen, baina errukitu egin naiz eta ez diot esan. Pozik baztertu dut gutuna.

–Entzungo dizut! Eseri, mesedez, eta hasi irakurtzen.

Nire gutunari zeharka begiratuz, traba egiten baitzion, ezgaraian etorri dela gogoratzen ziolako, karpeta zabaldu eta olerkiak atera ditu. Jatorrizkoak, hitzez hitzeko itzulpenak eta azken itzulpenak ziren. Zerbaiten bila aritu da, bere buruari errieta egiten zion, barkatzeko eskatzen zidan. Hasi da, azkenean. Lehenengo yiddishez irakurtzen zuen, gero errusieraz kontatzen zidan, ondoren neuk hartzen nuen itzulpena eta ahots goran irakurtzen nuen.

Olerkiek entzutera behartzen zuten; bazuten ukitu bat haren esku ikaratiena, haren garaiz aurreko ile zuriarena, haren gazte-itxurarena. Gerrari buruzko olerki serioak, tristeak ziren.

Hitzetan, ideietan, neurrian eta irudietan ez baina denboran, urduritasunean, isiltasunean, bereizketan oinarritzen diren olerkietan ikusten da, beste ezertan baino gehiago, itzuli ezintasuna. Lerro beltzetan bakarrik ez baina arnasa arautzen duten bertsoen arteko tarte zurieta oinarritzen diren olerkietan... Nola itzuli bertsoen arteko tarte zuria, bi laudunen artean biriketan airea metatze hori?

Hementxe ederki: surmurrak eta kirrinkak;
goizetik goizera hotzago.

Gar zuri batean makurtzen da bedaxka,
arrosak antzizarrez distirari.

Eta galako elur gurietan
eski-arrastoak, gogoratuz bezala
joandako mendeetan
hemen ginela gu biok ibiltari.²⁶

Bertso bakoitza zilar izoztuzko antzizarra da hor. Baina lehenengo laudunaren bukaerako bertsoaren eta bigarreneko hasierakoaren arteko zuriunea da «xarmaren ardoa». Beste edozein bezalako zuriune bat dirudi, baina hortxe metatzen da biriketan aire izoztua, samin- eta zoriontasun-bihozkadaren akidura moduko batean:

Eta galako elur gurietan
eski-arrastoak, gogoratuz bezala...

26 Anna Akhmatovaren izenbururik gabeko olerkia, 1922koa. Bere lehenengo senarra, Nikolai Gumiliov olerkaria, fusilatu ondoren argitaratua.

«Bezala» hitz horretan ahotsa apaldu egiten da, gogoratuz bihotza ere apaldu egiten delako. Arrasto bat ariman eta arrasto bat elur bigunetan.

Itzulpenik zehatzena, musikalena egin ondoren oraindik ere ezin itzulirik geratzen den misteriozko zera hori da seguru asko poesia. Hitzak eta erritmoak itzul daitezke, baina nola itzuli oroimena gozoro zauritzen duen elurretako arrasto bat?

Ez naiz saiatu entzuten ari zitzaidan pertsona hari ideia lauso horiek adierazten, bistan da. Eseri eta zutitu ari zen, eta bere eskutxo izoztu, urdinkarak igurzten denbora guztian. Eta itzulpenak ozenki irakurri eta, haien erabateko eskastasunaz ohartarazi gabe, bertsorik naturalena, harmoniatsuena zein, eta baldarrena zein ziren adierazi diot. Hori nahikoa. Baina eragiketa bakun horrek berak ere harritu egin du nire solaskidea.

–Zein ongi ulertzen dituzun olerkiak –esan dit berriro, sofan eserita, nekatuta balego bezala–. Egia da ez duzula olerkirik idazten?

–Esan nizun ezetz.

Arreta handiz irakurri ditut ahots goran itzulpen guzti-guztiak, neuk zuzendu dizkiot gauza batzuk, irakurri ahala, beste batzuk itzultzaileari galdetzeko proposatu diot.

Jaiki eta bere paperak karpetan biltzen hasi da; eta neurritz goiti eskertu dit. Kordoitxoez korapiloak egiten ahalegindu da, baina motzegiak ziren. Paperak atera egiten ziren, gainera.

Kolpetik sekulako gogo sartu zait ea behingoz alde egiten zuen. Ohartzen bainintzen –nola ohartzen da bat horrelako gauzez– ez zuela niregandik urrundu nahi eta leku handia nuela bere bizitzan, berak nahi gabe, beharbada, bere gogoaren kontra. Niretzat 8. gela

den gauza bera dela beretzat nire gela. Eta handik alde egitean bereizi beharraren samina sentitzen zuela... Korapiloak ez zitzaizkion ongi ateratzen.

–Tearen ondoren paseatzera atera behar duzu? –galdetu dit, korapiloak azkenean bakean utzirik.

–Ez dakit oraindik... Gauzak nola dauden: biho-tza, eguraldia, lana, bainuak...

Zerbait esan nahi zuen, baina ezpainak busti besterik ez du egin, ez du ezer esan eta atera egin da.

Ezin izan ditut gutunak Ludmila Pavlovnak alde egin baino lehen idatzi eta Katiuxarentzakoa bukatze-ko baizik ez dut astirik izan. Vekslerrek alde egin eta segituan neska bat etorri da ohe-jantziak aldatzera, Liolkaren «lehengusina», «biltegia» lan egiten duena.

Gogogabe irakurtzen ari nintzenez, aldia behin begiratu egiten nion. Konturatu naiz ohe-barrenean eskuzapi garbiak zintzilikatzerakoan oin-puntetan zutitzen zela eta begi-ertzetik, nire mahaian zegoen liburuari begiratzen ziola zeharka. *Gorrotoaren gaztelua zen*²⁷.

–Irakurri duzu liburu hau? –galdetu diot.

–Ez, nola irakurriko nuen bada –esan dit, burur-dia azal garbi batean sarraraziz.

–Normalean asko irakurtzen duzu? Ala ez duzu astirik?

–Ez astirik, ez nondik harturik.

–Hemen liburutegi handia dago –esan diot.

–Handia, bai! –errepikatu du bertatik, halako irri maltzurrez, hainbeste denboran pilatutako amorruez, non deseroso sentitu bainaiz–. Liburuzainak herrikoei ez die berehalakoan libururik utziko.

27 Archibald Joseph Cronin (1896-1981): eskoziar idazlearen lehenengo eleberria. 1931n argitaratu zuten Errusian.

–Eta Moskura joateko asmorik ez duzu? Ikastera? Han egoitza emango dizute.

–Zuri bai, emango dizute! –erantzun dit erdeinuz–. Guri ez. Hemen urte eta erdiz egon ziren alemanak. Okupatutako lurralde batekoak gara gu. Guri ez digute uzten hiriko erroldan sartzen... Emango dizute ostatua, zaude horretan!

Garbitzeko arropa besapean hartu eta aterantz egin du.

–Zer adin duzu orain? Hamazazpi urte? Hemere-tzi? Alemanen garaian zortzi urte zenituen! Ez gehiago! Liolkak oraintxe dituenak! –hasi naiz oihuka–. Zer garrantzi du horrek orain?

Ez dit erantzun ere egin. «Zer, oraintxe erori zara zeruetatik, ala?», adierazi nahi zuen haren bizkarrak. «Atso ergela. Hortxe eseri eta idatzi! Eta zer idazten du ten beraiek ere ez dakite».

Atso ergela, bai horixe! Alemanen garaian 8 urte izan ordez 17, edo 25 edo 30 izan balitu ere, zer; zeren errua du, gudarosteak, erretiratzean, atzera egitean, etsaiaren errukiaren mende, eta nolako etsaiaren mende!, utzi zuenez. Hitler ez zen Napoleon. Abandonatu egin zituzten, eta orain beraiek errudunak! Napoleonen garaian horrek balio baitzuen: Errusia erdia utzi eta gero berriro konkistatu: bakezko jendea salbu zegoen. Hemen, ordea, erretiratzekoan Liolkaren ama eta Liolka ez zituzten utzi edonoren eskuetan, hiltzaileen eskuetan baizik. Basoak eta lurak konkistatzen dituzu berriro, baina jendea? Horrelako zenbat Liolka eta zenbat Liolkaren ama falta ote ziren garaipenaren ondoren!

Zenbat!

Hiltzaileak uxatu zituzten. Baina Liolkak gainean du zigilua: «Okupazio garaian hemen zen». Eta

Liolka, eta haren ama, eta haren «lehengusina» orain ez dira eskubide osoko herritarrak... Inon ez zaude galde-inprimaketatik libre: galde-inprimakia langa itxi bat da beren bizitzarako.

...Bazkalondoan bisita labur bat egin diot Bilibini. Dagoeneko ez zegoen ohean, besaulki batean baizik, mahaian, makinaren aurrean. Poztu egin da ni ikusita, esertzeko eskaini dit, baina lan egin nahi zuela ohartu naiz, eta nire gelara itzuli naiz segituan, gaur oraindik batere lanik egin gabe nengoen-eta. «Eta eskuizkribu hau... zertan murgiltzen naizen... erakutsiko banio» bururatu zait. Posible ote da nire bizitzan pertsona batek, Tania Poliakovak, baizik ez irakurtzea?... Gerta liteke izatez Taniak eta nik uste baino askoz ere «ulertzaile» gehiago izatea. Nork ulertu behar du, honen ezpada? Anaia bezala da guretzat.

–Bukatzen ari naiz –esan dit handikiro–. Azkenean kapitulua idazten ari naiz. Aurki gutun-azala itxi eta argitaletxera bidaliko dut.

Eta kezka-espresio bat herrestatu zaio aurpegiari, gabirai-aurpegi sosegatu horretan.

–Gauza bat erregutu nahi nizuke. Irakurriko didazu eskuizkribua, bukatzen dudanean? Vekslerrek dioenez, ezin adituagoa omen zara literaturan...

–Bai horixe, irakurriko dut. Pozik irakurri ere –esan diot. Gogoia nuen esateko: «Han, basoan izan zen bezala izango da berriro: zure egiazko ahotsa entzungo dizut». Baina gogoari eutsi diot.

...49ko martxo

Gaur goizean, gosaldu ondoren, nire itzulpenkuota arin-arin bukatu, bainu bat hartu, etzan eta, bainuaren ondoren, *Gorrotoaren gaztelua* irakurri dut elurraren distira itsugarriak argitzen zidan gela argitsuan; pasiera bat egin dut –errepideraino joan eta etorri–, izotzak trokako hurritzetan egindako filigranak eta, gose, adoretzu eta, zerbaitengatik, nahikoa pozik nengoela sentiturik, jantokira jaitsi naiz. Bilibin eserita zegoen dagoeneko, aho-zapia lotuta, eta bizi-bizi ari zen solasean Moskutik iritsi berria zen Sergei Dimitrievitxekin. Mahaikide berri bat ere bazegoen. Aurkezpena egin bezain laster –Piotr Ivanovitx Klovok, Moskuko aldizkari bateko kritika-saileko zuzendaria, itxura zenez–, kolpetik joan zaizkit animoak. Erkina, aurpegi kamutsa, izerditsua, koskorduna, oinetakoak modakoak eta bernizatuak, eta tximeleta gisa lotutako gorbata; ez zait batere gustatu. Harroputz lotsagabe bat. Ez zait gustatu erreberentzia eginez nola agurtu nauen, ahotsa nola goratu dion Lisa zerbitzariari zopa behar bezain beroa ez zegoelako, nola luzatzen zituen galtzak tolesa doitzeko, nola esan didan, bere kopa

hustuz: «Zure osasunerako». Zoparen ondoren Mosku-ko literatura-albisteak kontatzen aritu zaizkigu Sergei Dimitrievitx eta biak.

Literatura Aldizkaria, Sobietar Idazlea aldizkariei, Idazleen Elkarteko batzordeei, aldizkarietako erredakzioei buruz zen solasa. Bilibinek ez zuen ezer esaten, isilik zegoen edo galderak egiten zituen, eta arreta handiz entzuten zien solaskideei, aldian behinka bere betazal erdi itxien artetik niri begiratzuz. Klokovek poz-
tu egin gaitu une horretan artearen arazoez lanean ari zela esanez, baina ez antzinako materialez, berriez baizik: Bubennov, Perventsev, Orestes Maltsev-en²⁸ lanen estiloa ari zen aztertzen. Sergei Dimitrievitxek barkabera nabarmendu du ezen artikuluaeren joera guztiz zuzena iruditzen bazitzaion ere, idazle haien estiloa, esan beharra dago, ez dela askorik egokitzen edukiarekin. Ondoren, erredaktore nagusiak *Literatura Aldizkariaren* bileran egindako hitzaldiaz hitz egin du.

«Ezin hobeto nabarmendu zuen kosmopoliten burutazio horien iturburu inperialista. Agerian utzi zuen. Ezin hobeto! Haren solasak gauza askotarako zabaldu zizkidan begiak, horra. Begira, esate baterako... Zelenin, nire adiskidea...».

–Izatez Zelikson den hori? –eten dio Klokovek, irribarre maltzur batez.

–Bai, Zelenin oso adiskidea dut, elkarrekin egin genuen soldaduska, eta orain elkarren ondoan ditugu datxak, eta maiz argitaratu izan dizkiot gauzak gure sailean... Ez adiskideak garelako bakarrik, jakina, bai-zik eta, badakizue, zientzietan lizentziatua delako eta aditu-fama duelako...

28 Bubennov, Perventsev, Orestes Maltsev: bigarren mailako errusiar eleberrigileak.

–Bai, horretan oso trebeak dira denak, beren kultura-mailaz harrotzen –tartekatu du Klokovek.

–Begiratu gabe argitaratzen nizkion gauzak, Flauberti, Stendhali... zien zaletasunaren atzean zer zegoen aztertu gabe. Eta erredaktore nagusiaren solasaren ondoren baizik ez zait garbi geratu norantz jotzen zuen. Kartetan ari ginen batean izan genuen solasaz gogoratu nintzen. «Frantsesak izan ez balira, Tolstoiren psikologismorik ez litzateke izango seguru asko» esan zuen Zeleninek orduko hartan.

Sergei Dimitrievitxek begirada serio, esanguratsu bat egin du mahaira.

–Ulertzen? Mundu osoan garrantzia duena ez da gure Tolstoi; frantsesen eragina izan zuen, nonbait.

–Bai, jakin dute bai beren ideiei eusten –esan du kritikariak, eta urrezko zigarro-kutxatila bat atera du–. Erre dezaket? –niri ari zitzaidan. Klaskatuz itxi du. Erretzen hasi da–. Herriaren kontrako ideia kaxkarrak aldeztu. Eta elkarri laguntzen ere ederki jakin dute. Gure aldizkarian nire ordezkioak jarraitzaile asko izan ditu... ilara luzea... Orain kanpora bota eta kargu hartu diote. Baina kargu hartzea aski ote da ikasteko? Hain lotura estua dute elkarrekin, non egon zintezkete lasai.

–Nola deitzen da? –jakin nahi izan du Bilibinek, zerbaitengatik.

–Landau. Ni oporretan nengoela, Meierovitx²⁹ argitaratu zuen. Eta Meierovitxek beste hura gores- ten zuen... nola zuen izena?... Mikhoels³⁰, gogoratzen zarete? Argitaratu egin zuen, eta orain gutxiagatik ez

29 Meierovitx: kazetaria eta kritikaria.

30 Solomon Mikhoels (1890-1948): antzezle eta antzerki zuzendari ospetsua, judua, 1929an Yiddish Antzokiaren zuzendari izendatu zuten. 1948an «kosmopoliten» kontrako esetsaldian antzoki hori itxi zuten eta Mikhoels handik hilabete batzuetara hil zen edo hil zuen NKVDk istripu batean.

naute neu ere sartu... Neuk ere... aitortu behar dut, begiak itsu nituen... harik eta prentsak argitu didan arte.

–Baina... zer argitu dizu prentsak... zehazki? –galdetu diot. Aspaldidanik bihotzak taupada bortitzak jotzen zizkidan eztarrian, belarrietan. Hain bortitzak ere, non une batzuetan ez baitzidan uzten hitz egiten ari zenaren ahotsa entzuten ere.

–Dena –Klokovek soinak altxatu ditu pixka bat–. Herriaren kontra zuten jarduera. Aberriaren kontrako izaera. Amerikarekin zituzten loturak. Sionismoak eginak zituen erro sakonak.

–Ba, niri –esan dut kostata eta ahots beheran–, alderantziz gertatzen zait egunkariak irakurtzen ditudanean, jende horri buruz idazten duten guztia gezur nabarmena dela, horrek uzten nau txundituta. Gezurra begien bistakoa izate horrek txunditzen nau, horrek jotzen dit begietara. –Eta gustura gehituko nukeen: «Eta hitz horiek 37ko hitzekin duten antzak», baina eutsi egin diot, Jaungoikoari esker–. Ez dira hitzak, hots hutsak baizik. Hutsak. Badakizue?, haurrei ematen zaizkien zupaki horiek bezalakoak. Esnerik gabe... Hitz horiek, berdin: edukirik gabeak. Mamirik gabeak. Ez dira esaldiak, zeinu-konbinaketak baizik.

Bilibinek mahaietik oinaz ukitu bat egin dit. Baina ezin nuen gelditu. Eskerrak urtea ez dudan aipatu.

–Zentzuzko hitz bat bera ere ez. Eta horrexegatik, garbi baino garbiago dago ez Zeleninek ez haren lagunek ez dutela ezeren errurik.

–Begien bistako gezurra? –galdetu dit berriro Sergei Dimitrievitxek–. Zupakiak?

–Ezin da, ezin da, Nina Sergeievna, ezin da bigun jokatu eta den-denen bermerik eman –esaten zuen Klokovek irakasle-doinuz–. Barkabera jokatu...

Nazioarteko erreakzioa indartzen ari den une honetan, oso-oso arriskutsua da, oso-oso arriskutsua.

Zenbat aldiz ez ote nuen entzun argudio horixe 37an! «Eman al daiteke, bada, den-denen bermerik? Hain ongi ezagutzen al dituzu, bada, den-denak?». Ez ditut ezagutzen, jakina; milioika dira «etsaiak». Nola eman haietako bakoitzaren bermerik? Baina bai eman nezakeela gezur horren sortzailearen markaren bermea. Beti nabaritzen dut haren zigilua. Zenbat aldiz jarri ote den martxan, nire bizitzan, gezurrak asmatzeko fabrika hori! Nola ez antzeman?

Une horretan gorrotagarri ari zitzaizkidan gertatzen Klokovek zerabiltzan harri handiekiko mahuka-bikiak. Sardexkaz ogia zulatzen zuen eta bikiek distira egiten zuten.

–Ezin dituzu denak ezagutu eta denen bermea eman –errepikatu du Klokovek, bere altzairu koloreko hortzetan irribarre onbera bat erakutsiz–. Denena. Ez da?

–Ez dakit, salatutako horietako bat bera ere ez dut inoiz ikusi begien aurrean, denak askoz ere gutxiago –esan diot–. Baina horiez idazten diren hitzetan egia-tanta bat bera ere ez dago. Hori bai segurta diezazuket... hori segituan nabaritzen da... Klixe hutsak baitira, ez iritziak. Beren berdintasunean... hitzen ordenan... joskeran... doinuan... intonazioan... antzematen zaie.

Klokovek aurpegian barre egiten ez bazidan, arrazoi bat bakarragatik ez zidan egiten: aspaldi ez dela, gai horretan aditua denen batek, andrazkoekin, mahaian batez ere, eta guztiz ergelak badira batez ere, beti adeitsu jokatu behar dela azaldu ziolako, hain zuzen.

Sergei Dimitrievitzek errukiz eta txundimenez begiratzen zidan. Egia eta gezurra hitzen tonuaren arabera, ez edukiaren arabera, baizik eta doinuaren eta antolamenduaren arabera bereiz daitezkeela pentsatzea ere! Hori zentzugabekeria! Nolako astakeria ari nintzen esaten, itzultzailea, Idazleen Elkarteko kidea izanda, gainera... Ez da harritzekoa beste horren... Pasternak ulertezin horren poesia gustatzea.

–Hitzek konbentzitzen ez bazaituzte –esan dit Klokovek–, egizu mesede: hemen dituzu egintzak, errusiarrek ez diren zenbait nazionalitatetako talde... taldetxo... batzuek, beren ideiangatik, eta ez ahaidetasun ideologiko soilez, kritikari-kosmopolitekin lotura dutenek, herriaren kontra egin dituztenak. Herenegun *Emes* argitaletxea itxi eta zuzendari-taldea atxilotu zuten. Beste frogarik behar duzu?

Aulki baten mugimendu-hotsa entzun eta begiratu egin dut. Veksler gure mahaira inguratu da.

–*Emes* itxi dute?

–Bai, jauna, *Emes* –azpimarratu du Klokovek, duin–. *Emes*, hain zuzen.

Jateari utzi, eta harrokeria bereziki nabarmenez gorbata txukundu du.

Veksler zutik zegoen, isilik, gure mahaiaren aurrean.

–Eta zuzendaritzako bazkide guztiak atxilotu dituzte –errepikatu du Klokovek.

–Tira, kamaradak, geletara itzultzeko ordua dugu –esan du Bilibinek ozenki.

Denak jaiki dira.

...49ko martxoa

Bukatu dut, bukatu dut! Bukatu dut idatzia! Ez dakit oraindik nola deituko den; baliteke «Farolak zubian» edo «Alabatxoa», soilik. Hementxe daukat, aurrean, idatzita eta berridatzita, bukatuta. Orri-pasa egiten diot, zenbakiak zuzentzen ari naiz. Hementxe itsatsiko dut, nire egunkarian. Koaderno bat errazago ezkututzen da bi baino.

Berari buruz ez dut ideiarik ere: nolakoa ote da? Norbaitek irakurri eta esango balit!

* * *

Izarrak ñirñirka ari dira zeruan, urruti eta motel. Elurra isilik datza, oinpean kraskarik egin gabe, zoriontasuna, Eguberri bezperako haurren gaua ez gogoratzeko, seguru asko.

Zubiko farolak denak batera itzali dira, eta gau honetan gauza guztiak bezala, beldurgarriak iruditu zaizkit haien desagertzearen bat-batekotasuna eta isiltasuna. Bezperatik hartua nuen txanda: 715 zenbakia nuen. Goizeko bederatzietatik aurrera hasiko dira sartzen uzten, eta seiak ere ez dira oraindik: tranbien hotsik ez da entzuten. Emakumeak isilik dabilta hara-hona moilan zehar,

bazter-hesi izoztuari jarraituz. Badirudi hotzaren indar guztia sartua dela granitozko horma durunditsu honetan: ukituz gero erre egiten zaitu. Gauaren bukaera luzatzen ari da, baina inork ez du itxaropenik goizerako; iluntasuna zurbilduz doa unetik unera eta jendearen bizkarretan dagoeneko sumatzen hasia da zapien zurtasuna, eta etxeetan gailurren eta tximinien isla. Atari zikinetatik emakumeak ateratzen hasi dira, balantzaka, zigarroak piztuz; hantxe egon dira erdi lotan, bigarren edo hirugarren solairuko eskailburuetan, harrizko lauza izoztuetan. Baina zubiko masa zurbilean lehenengo txinparta urdinak distira egin du; tranbia baten txilin-hotsa entzun da –goiza da, inondik ere– eta argi tarte ilaunean aurpegi berdatsak eta izotzetara jaurtitako elur zikinezko pilak sumatzen hasi dira. Etxeetan leihoak pizten ari dira dagoeneko.

Tranbiak hasi direnean, bat-batean pilatu da jendetza. Zegokien sarrerara hurbiltzean, iritsi berriek papertxo zimir batzuk ateratzen zituzten beren poltsa, patrika eta eskuzorroetatik eta beren burua zerrendaren zainzaile izendatuari aurkezten zioten, eta sekulako iskanbila sortu da oraintxe: «Gau osoa egin dugu hemen izozten! –esaten zuen batek–; zuek lekua hartu eta berotzera joan zarete. Eta gu ilaran zuentzat! Ezabatu denak, eta kito!» –eta gaueko isiltasun behartu bakartian entzuten nuen gauza bera entzuten nuen hitz gaizto horietan: sinistuta zeuden arrazoirik gabe atxilotu zutela beren Petia, baina honako honen, eta beste horren, eta harako haren senarra, hura bai, aberriari traizioa egina, espiaren bat... dela. Utikan haiek, utikan.

Eguna argitu du. Eta ikusi dut zenbat emakume dauden hemen beren bularreko haurrekin. Haurrak eztulka eta doministikuka zein bere amaren besoetan, aurpegia estaltzen dien zapi zuriaren azpian, manta bero lodien azpian bihurtuta eta intzirika, eta amek, eskuak berotan sarturik, kezka ukitzen dituzte beren haurtxoak, kulunkatzen, bilgo bizi haiek beren kontra estutzen, eta etxeetako atarietara joaten bularra ematera.

Zortziak ingururako moilatik kalera aldatuak dira denak, eta hormaren kontra beldurrez estaturik eta ahalik

eta leku gutxien hartzen saiatuz, Etxe Handiko³¹ ate ofizialerako ilaran jarrita daude. Atea hain urruti daukat non ozta-ozta sumatzen baitut haren isla. Nire aurrean atso xahar judu bat dago, bi buruzapirekin, bata grisa eta beste zuria; eta bibotea antzizarrez estalita; eta, haren atzean, emakume ilehori gazte bat, bularreko haurra besoetan duela. Haurtxoa artezia harrigarri batez dauka bilduta, ongi estalita eta dotore: puntuzko mantatxo arrosa-koloreko bat, tul urdinkara, almidoitua aurpegitxoa estaliz, satinezko zinta zabal bat hankatxoei eusteko; eta amak, puntuzko txanotxo bat eta koloretako eskuzorroak, puntuzkoak; denak berak eginak, noski.

–Muttikoa? –galdetu diot.

–Neska –erantzun dit emakumeak; segituan ohartu naiz finlandiarra zela–. Ni beldur; hau katarro; gaizo... Lau hilabete.

Neskatxoak doministiku egin du laino urdin argi almidoitu baten azpian; amak tula jaso eta arrosa-koloreko aurpegitxo guri-guri bat ikusi dut, manta bezain arrosa-kolorekoa, hain guria non errauts-pikor bat masailean pausatuko balitzaio harri beltz astun bat bailirudikeen. Betileek, Jaungoikoaren bedeinkazio bat bezala, masailen erdia estaltzen zioten. Aurpegitxo ñimiñoa eta mantatxoan orpotxo gorri batzuk, behatz ñimiño batzuk, panpina-azkazalekin, eta neskatxoaren gorpuz txikitxo belusatu, garbi guztia.

–Estal ezazu bizkor –esan diot. Pentsatzeak ere beldurra ematen zuen hotzak aurpegitxo hura uki zezakeenik–. Aspaldi atxilotu al dizute senarra?

–Bi aste. Gauean kamiona herrira etorri eta gizon guztiak eraman. Gu finlandiarrak...

Ateak ez zituzten oraindik zabaltzen, baina goiza

31 *Etxe Handia (Большой дом)*, San Peterburgoko Liteyny Etorbideko eraikina, San Peterburgo edo Leningradeko oblasteko Errusiako Segurtasun Zerbitzuen eta Barne Ministerioaren egoitza. 1934an Barne Arazoetako Herriaren Komisariotzaren egoitze (NKVD) bilakatu zen eta, geroxeago, KGB izenez ezagutzen zen Estatuaren Segurtasuneko Batzordearen egoitza, eta hala jarraitu zuen 1991 arte.

berotzen ari zen dagoeneko, dirdira izoztuz eta elurrez distiratzuz, eta kalean jendetza ari zen biltzen. Neskatoak, binaka, hirunaka zihozazen eskolara, bulebarreko elur ukigabearen gainera, arduratsu eta garaiz, amak trebeki eta artezki, lan handiz, egindako txirikordekin, beren botatxo lodiekin, txutxu-mutxuka eta barretxoak eginez, eta mutikoak izotz-plaketan irristatzen ziren, batera eta bestera begira. Bat, zakutoa utzi, eserleku batera ondoratu eta kontu handiz tontor berri batean etzan da. Etzan, eta segituan aspertu da. Jauzi batez zutitu eta, elurra astindurik, luzaro egon da elurretan hondoratuta utzi duen irudiari begira. Mutikotxo batzuek, burua jaso eta pausoa nahasturik, gure aurpegi izoztuetara begiratzen ziguten eta lasterka joaten ziren gainerakoak harrapatzera, estropezuka. Eta pertsona nagusiak presaka zihozazen lanera. Adinekoetatik ia inork ez zigun begiratzen ez ezer galdetzen, denek zekitelako nor ginen edota bere administrazioko lanera presaka doanak jakin-minik izaten ez duelako. Saski bat zuen eta betaurrekoak listari batez lotuta zituen emakume batek bakarrik galdetu digu, bat-batean, ingurutik igarotzean:

–Zertarako da ilara hau, andreak?

Inork ez dio erantzun. Hormara edo lurrera begiratzen zuten denek.

–Zertarako zaudete hemen? –esan du berriro emakumeak, jakin nahita.

–Inbidia duzu, ala? –egin dio oihu ilaratik norbaitek–. Jarri ilaran, «nor da azkena; ni zure atzetik...».

Emakumeak alde egin du. Haren galderak oinazea eragin dit, gau hotz, ilun osoak baino oinaze zorrotzagoa. Mutu sentitu naiz. Ezin nion ezer erantzun. Gau honetan eta aurreko gau eta egun guztietan, ez nintzen penagatik samintzen, gauza okerrago bategatik baizik: zer gertatzen den ulertu eta izendatu ezinagatik. Pena? Hori zen pena? Penak badu izena eta, behar bezain ausarta baldin bazara, baduzu izen hori esateko indarra ere. Baina guri gertatzen zaigunak ez du izenik, zentzurik ez duelako. Ametsen bat da, amesgaiztoa? Ez, ez zaie fama txarrik jarri behar

amesgaiztoei... Burua biraka zebilkidala eta bihotza poliki-poliki astuntzen ari zitzaidala iruditzen zitzaidan, baina ez zutik igarotako hamasei orduengatik, gertatutakoa ulertzeko eta izen bat emateko ahalegin alferrengatik baizik. Gogoeta une bateraino iristen zen –esku arrotz batzuek haurren jostailuen artean arma bila miatzen zuten una zela iruditzen zitzaidan–; esku haietan eta, irudiei jarraituz, oilo-hanken gainean etxetxo bat muntatzen zen³² eta denak batera biratzen baziren ahuntz zuri handi bat eratzen zen kubo-joko batean pausatzen zen gogoeta; ahuntz horretan geratzen zen finkatuta, eta pauso bat ere ez aurrerago. Ez nintzen gauza aurrera jarraitzeko, belarriak mugitzeko gauza ez naizen bezalaxe. Ezpainak eta bekainak zimurtzen saiatzen naiz; alferrik, ordea. Zer mugimendu egin, zer gihar mugiarazi?

Nire aurreko ilara mugitzen hasi da azkenik: han, aurre aldean, ate astun batzuk zabaldu dira. Ilara isilik eta zuhurki sartu da leiho askoko areto handi batera. Ez zalapartarik, ez zaratarik, ez eztabaidarik, begirada izutuak besterik ez. Ez baita fiskaltzako eskailera edo korridorea, jendeak txistu egiten zuena, ezta kartzelako informazio-leihatilaren aurreko zurezko gelatxo krakatsua ere; hau Etxe Handia da, ministerioa, patua bera. Emakumeek, atletik barrura sartu baino lehen, bizkor-bizkor buruzapietako eta botetako elurra astindu dute, eta halako ikaraz igarotzen dute atea non bakoitzaren azpian tranpa ezkuturen bat dagoela baitirudi. Zutabe soil, itxura noblekoetan bermatzeko beldurrez, behin oin batean hurrena bestean bermatzen dira, elkarri zenbakiak galdetuz, eta horma kontra kokatzen dira, egun-argira zabaltzen diren leiho garai, zuzen, garbi-garbietara jasorik begiak.

Eta berehalaxe kartzelaburua agertu da aretoan. Ez da sartu, azaldu baizik zehazki, antzokiko eszenatokian zorutik azaldu izan balitz bezala. Egiazki esateko, kartzelazainez mozorrotuta dago, hiri txikietako operako gustu eskasaz. Giltzek tintin-hots astuna egiten diote gerrikoan. Errebolber-zorroa zabalik dauka. Gorputz-enborra luzea

32 Baba Yaga, sorgin gaiztoa, errusiar ipuin askotako protagonista, oilo-hanken gainean eraikitako etxe batean bizi da.

du, hankak motzak, bereak ez baina beste norbaiti alo-geran hartuak balitu bezala. Eta aurpegi puztu logalearen gainean, bekoki horixkaren gainean, kapelaren xingola urdina. Azaldu bezain laster ilaran ordena jartzen hasi da, bera gabe ere ongi ordenatuta zegoen arren, emakumeei oihuka, zaldiak balira bezala, bizkarretik bultzaka eta giltzez izterretan joz.

–Ea, andretxoak! Ilara horiek zuzenago! Ilaran! Bata bestearen atzean! Bata bestearen atzean! Amak eskui-
nean! Zer esan dut? Haurrak dituzten andreak beste ilara batean! Utzi pasatzen haurrak dituzten amei! Amak bostez behin! Bost emakume, ama bat! Lau pasatu, eta bosgarrena ama, ulertu? Txilinak jotzen duenean sartuko zarete... Nondik bildu da, baina, gaur honenbesteko jendetza!

Batzuek begiak jaitsi eta biratu egiten ziren, hari ez begiratzeko; beste batzuek irribarretxo herabe bat egiten zioten, lotsagabekeria negargarri batez, eta galderak egi-tera ausartzen zitzaizkion:

–Esadazu, kamarada kartzelaburua, informaziorik emango al digute hemen... zergatik atxilotu duten... zer salatzen dioten, zergatik?

–Esadazu, kamarada kartzelaburua, onartuko al didate eskaera... senarrak hirugarren gradua du... tuberkulosia...

–Barkamena eskatzen dizut, jakina –esan dio bibote-
dun atso juduak–, baina senarra deportatzen dutenean, elkar ikusten utziko digute?

Kartzelaburua galdetzen diotenei alboa emanez bezala kokatzen da, eta giltzez izterrak jo, eta areto erraldoi har-
tako isiltasunean durundia egiten duen ahots batez hitz egiten du:

–Zertarako etortzen zarete hona? Zeuek atsekabetu eta langileei beren lanean traba egin baino ez duzue egi-
ten. Senarrak eraman baldin badizkizuite, zerbaitengatik izango da. Zer gehiago nahi duzue jakin? Jende prestua ez dute eramaten arrazoirik gabe... Eta zuek, andreak, hona alferrik etorri ordez, hobe zenukete besteren bat bilatu. –
Begi-kliska bat egin du–. Emakume gazteak, politikak zarete.

Zain nengoen, papera esajeratuz, bi behatzez norbaiti kokotsetik noiz helduko zion.

Haurtxoa zeraman emakume gaztea niregandik bereiz aurkitu da: ni baino askoz hurbilago dago ateetatik, haurrak dituzten amen ilara berezian.

Harrera hasi da. Bi edo hiru minutuz behin txirrin-hots labur, argi, sarkor bat entzun eta norbait atetik barrena ezkututzen da, bularraren kontra nortasun agiria estutuz, ikono bat bailitzan. Ilaran dauden guztiek nahiko zuketean informazioa eman berri diotena ikusi, espia baten emaztearen kontrako higuina gaudituz, gainera oldartu eta zer esan dioten jakin, baina bat ere ez da itzultzen aretora: informazioa ematen duten gelatik bada kalerako irteera berezi bat, nonbait... Emakume gehiago eta gehiago ari da iristen. Aretoa geroz eta itogarriago dago; hankak astuntasun urtsu batez ari zaizkit handitzen. Leihoetako argi biziak begiak zauritzen dizkit. Hiru minutuz behin txirrinak jotzen du; hiru minutuz behin hurrengo emakumea sartzen da atetik barrura, bat-bateko hots hura zuzenean bihotzera iritsi izan balitzaio bezala... Haurtxoa daraman emakume gaztea ez dago urruti dagoeneko. Besoak zuzen-zuzen dituela neskatoa bere aurrean modu bitxi samar batean nola daukan eta ate garaiari, temati, betileak mugitu gabe nola begiratzen dion erreparatu dut. Baina ez dut gehiago pentsatu hartan eta haurtxoan, dagoeneko ez bainengoen atetik urruti eta iristen ari baitzitzaidan berehala esan beharko nituen hitzak behingoz prestatzeko garaia.

Gau luze guztian atzeratuz joan naiz informazioak ematen dituenarekin gaur zertaz hitz egingo dudan, zer galdetu behar diodan eta, batez ere, gauzak nola azaldu behar dizkiodan pentsatzea; azkenean leku beroren batean egon arte atzeratu dut. Eta orain bero itogarriak zerraldo bota behar nau. Baina ezin da gehiago atzeratu. Zehatz-zehatz prestatu behar ditut hitzak, behar den unean huts egin ez diezadaten. Buruz ikasi behar ditut, neure esperientziaz baitakit: mahai handi baten atzean, atxilotutakoaren deiturak dituzten fitxak berrikusten ariko den pertsona ikusi bezain laster, hitz guztiak alferrik di-

relako sentimendua nagusituko zait, erremediorik gabe. Behin baino gehiagotan gertatu izan baitzait dagoeneko. Eta garrantzitsuena esan gabe, esan behar nionaren erdia ere esan gabe aterako naiz oraingoan ere. Beste emakumeek erregutu, madarikatu, tematu, negar egiten dute, eskuak bularraren kontra estutuz. Eta ongi prestatzen banaiz, hitz guztiak aurrez bilatzen baditut, litekeena da pertsona horrek niri entzuteko izango duen gogo txarra gainditzea eta marka bat egitea bere ohar-koadernoan edo deitura duen fitxan...

Ezer ez ikusten eta ingurukoa ez entzuten saiatuz, berehalaxe izan behar dudan topaketarako prestatzen hasi naiz. Medikuntzan egindako ikerketa, lehenbazi. (Alioxaren azkeneko zientzia-lanez medikuntzako aditu handiek egindako aipamenak sartuta neramatzan nire dokumentazioan). Bigarrenik, irakaskuntza. Hirugarrenik, praktika... Ez dakit zergatik, ez naiz gauza ezer konbentzigarrik gogoratzeko, nori buruz ari ginen bertatik gogoraraziko dionik aurkitzeko. Txirrinak geroz eta maizago jotzen du: haurtxoa zeraman emakume gazteak atea igaro du; orain gauean, moilan, nirekin hitz egin nahi baina ausartu ez den larruz jantzitako emakumea dago ate aurrean; eta atso xahar judua, nire atzean, hasperenka eta, ohartu gabe, yiddishez ozen hitz egiten. Hari baino lehenago iritsi behar zait txanda, eta prestatu gabe daukat oraindik... Hurrengo txirrina niretzat izango da; ate ondoan nago; marroiz pintatutako atea eskuaz uki dezaket...

Txirrina.

Eskuleku astunari bultza egin eta uste baino errazago zabaldu da atea. Atea igarota ez dago areto bat, ez harrera-gune bat erretratuekin eta mahai handiekin ere, brontzezko eskulekua ikusita espero nuen bezala, zoko bat baizik. Eta ez inor ez ezer, ez aulkirik ez pertsonarik. Kontratxapatuzko ate bihurritu bat baizik ez, «Irteera» idazkunarekin, eta ezkerreko horman postetxeakoak bezalako leihatila bat, itxita. Leihatilara hurbildu naiz. Altu dago. Oin-puntetan jarri naiz, iristeko. Leihatila jo dut. Kontratxapatuzko itxitura igo egin da. Leihatila-etxean, kaskasoil bat, arrosa-kolore samur batekoa, urdaiazpi-

ko-gantzarena bezala; masaila gorrixka, mengelak, eta, haragi gorritzta hori bi aldeetatik gaindituz, bibote harro batzuk, elurra bezain zuriak.

–Jakín nahi nuke... –hasi naiz, oin-puntetan zutik.

–Norengatik galdetzen duzu? –oihu batez arrosa-koloreko buruak–. Izena, patronimikoa, abizena?

Esan dizkiot.

–Eta zu zer zaitu? Emaztea, arreba?

–Emaztea.

–Dokumentuak!

Nortasun-agiria luzatu diot leihatilatik, eta erreferentziak lurrera erori zaizkit. Hots bat, eta burua desagertu egin da. Nire aurrean ez dago ez biboterik, ez burusoilik, kontratxapatuzko itxitura leuna besterik. Hari begiratu, eta esan behar ditudan hitzak gogoratzen saiatu naiz.

Kontratxapatua igotzen da. Nortasun agiria zuzenean datorkit hegan aurpegira.

–Alekséi Vladimirovitx Pimenov zure senarraren auzia bideratzen ari da oraindik –egin du oihu buruak. Kontratxapatuzko ataka berriro beheratu da kirinka batez, eta aretoan txirrinak nola deitzen duen entzun dut.

Ateetan «Irteera» dago idatzita. Ederki, hemendik denez, atera egingo naiz. Patio bat agertu zait aurrean, elurturik, bidetxo zuzenak hondarrez estalirik. Hau askatasuna, aire hotz garbia arnastea! Eta izeiak eta adarretan elurra ikustea. Banoa, eskuan nortasun-agiria eta paperak estutuz, eta begietan ahuleriaren puntu beltzak dabilzkit hegan. Iruditzen zait inoiz ez dudala ikusi honen ongi garbitutako biderik, honen hondar hori distiratsuz estalirik. Patio ederra, are abegitsua ere. Elur eskutada bat hartu eta ahoan sartu dut. Bulebarrera atera naiz. Aulkietatik dagoeneko kenduta daude elur pilak; haietan haurtzain batzuk daude eserita, eta aulki inguruan haur batzuk, beroki-lepoa begietaraino jasota eta haren gainean bufandak, eta botinen gainean eskalapoiak, beren beroki lodietan ito beharrean, mugitu gabe, beso zabalik, burua biratu ezinda, pinguinotxo batzuk bailiran.

Puntu beltzak nagusitzen zaizkit eta hutsik dagoen eserleku batean jausten naiz.

-Zer, eman dizu informazioa, ezta? -galdetu dit xurla batean atso zahar juduak, ondoan eseri eta besotik helduta.

Bere musu zimurrez betea ondoratzen didalarik, elurra, haurrak eta haurtzainak ezkututzen dizkit.

-Nire senarraren auzia bideratzen ari da oraindik -erantzun diot.

-Nirearena berdin -esan dit atso zaharrak-. Zer ari ote dira asmatzen haren kontra, zer ari ote dira egiten, zer ote da gure kontura antolatzen ari diren espioi-kontu hori? Nire senarra akatsik gabeko boltxebike bat zen...

Eta kristala bezain malko garden bat irristatzen zaio zimur sakon batetik behera. Jaiki eta herrenka doa tranbiaren geltokirantz. Neuk ere negar egin behar dudala sentitzen dut -hanketako minagatik, elurraren distiragatik, nire pinguinotxo txintxoengatik (beren bufandek eragotzirik ere, makurtzeko eta elurra zulatzeko moldatzen baitira)- eta, horretan, malkoen bolatxo nabarretatik zehar, haurra zeraman emakume finlandiarra ikusi dut ondoko eserlekuan. Ez naiz segituan ohartu neskatoa ez daukala altzoan, ondoan baizik, eserleku gorri, izoztuan.

-Zer esan dizu, e? -egin dio oihu andre zaharrak, ondotik herrenka igarotzean-. Auzia bideratzen ari dela?

Emakumeak ez dio ezer erantzun eta andre zaharra, zertxobait itxaron ondoren, aurrera doa. Jaiki eta emakumearengana noa lasterka. Nire ingurura begiratzen du eta ez dut ulertzen haren begirada. Jarlekuaren ondoan esku-zorro urdin belusatu bat dago elurretan.

-Leihatila itxi didanean berriro jo beharko niokeen -esan diot, eta eskuzorroa jaso dut-. Gogor jo, zabaldu eta entzun ziezadan... Zuri ere itxi egin dizu leihatila? Eta ez duzu ezer esateko astirik izan? -galdetu diot eta eskuzorroa eskaini diot. Baina ez du hartu-. Zergatik utzi duzu haurtxoa eserlekuan? Hotz honekin!

-Auzia bideratzen -esaten dit finlandiarrak, lehen be-

zala begiratu gabe eta eskuzorroa eskutik hartu gabe.

Ondoan eseri eta kontu handiz neskatxoa altzoan hartu dut. Nire altzoan beroago egongo baita, nolana ere, eserlekuan baino. Emakumeak burua biratu ere ez du egin. Arrosa-koloreko bildukia nire kontra estutu dut. Haurrak ez du negar egiten, ez da mugitzen mantapean. Eskua mantapean sartu eta hankatxoak ukitzeko gogoia ematen dit, baina hotza sartuko ote diodan beldur naiz.

–Aspaldi eman diozu titia? –galdetu diot–. Etxeratzeko ordua duzu. Titia emateko ordua. Non bizi zara?

Isilik dago.

–Orain dagoeneko titia hartu beharrik ez du –esan du.

Poliki-poliki estalki almidoitua zabaltzen dut.

Aurpegitxo hil bat, bere ahotxoa erdi zabalik, eta begi bat ozta-ozta distira egiten diola, betazal bakarraren azpian, datza nire altzoan.

–Han ere hilda zegoen –esaten du emakumeak–. Han. –Eta irten berri garen eraikina seinalatzen dit eskuaz–. Baina ez galdu nahi lekua amen ilaran; informazioa nahi. Asko maite nuen senarra.

Jaiki eta laster bai laster goaz tranbiaren geltokirantz, norabaiteko presa bagenu bezala. «Maite nuen» pentsatzen dut; «maite nuen», lehen aldian. Besoan daramat hildako haurraren gorpu astuna. 9a. Emakumeak labur esaten dit:

–Eman! –neskatxoa besoetatik hartu eta tranbian sartu da.

...49ko martxo

Zenbat egun dagoeneko egunkaria idatzi gabe? Hiru? Bost? Ez naiz gogoratzen. Ez dakit eta ezta jakin nahi ere. Gaur zer egun dugun ez jakiten ahalegintzen naiz. Egunak maldan behera doazkit dagoeneko: abiatzeko ordurantz, bukaerarantz, eta ez ditut zenbatu nahi.

Bilibinek eta biok ordu asko igarotzen ditugu egunero elkarrekin, basotxoan, errepidean, izeidian, nire gelan, berean. «Farolak» Bilibini irakurri, ez irakurri pentsatzen ari naiz denbora guztian... Haurtzaroa eta gaztaroa kontatu dizkiogu elkarri dagoeneko. Haren iraganak nirearen inolako antzik ez du: ni baino hamarren bat urte zaharragoa da, 17an 20 urte zituen. Aita jenerala zuen; artean mutikoa zela eten zituen harekikoak; etxetik alde egin zuen, «iraultza egitera», esan ohi zen bezala; aldi batez zuzenbide-ikaslea izan zen, sozialista iraultzaileekin harremanetan ibili zen, gerra zibilean zurien kontra borrokatu zen, Denikinen kontra, partisanso talde batean lehendabizi, gero Gudaroste Gorrian. Bere bizitza guztia, bere giro guztia nirearen desberdina izan zen; baina bion haurtzaroek bazuten antz harrigarri bat, bakartasunean, samin-

tasunean; amak gazterik hil zitzaizkigun bioi, etxetik kanpo hazi ginen biok.

35ean hasi zen idazten eta argitaratzen; 37an atxilotu zuten.

Alioxa abuztuan, bera maiatzean, udaberrian.

Hemengo bizitza aldatu egin zait azkeneko egunotan. Eguneko bost orrialdeko itzulpenaz gainera, beste ezer ez dut egiten: ez gutunik idazten, ez libururik irakurtzen. Berekin ez banago, elkarrekin egoteko ordua noiz iritsiko, nire tratamendua eta bere erre-dakzio-lana noiz bukatuko zain egoten naiz. Urruti eta luzarorako joaten gara ibiltzera; bera ongi sentitzen da, ibiltzeko indartsu, eta jendeak ikusten gaituenean, ez zaigu hizketan hasten, ez berari ez niri, eta ondotik isilik igarotzen uzten digute, Bilibinek kapela mugitu eta laster oihu egiten badie ere:

-Zer, pasieran? Arintxo jantzita ez zabilzate? Lotu botoiak, hotz egiten du!

Basoa jadanik ez da bere baitarako bakarrik bizi, bere bizitza sekretuan, elurrarekin, haizearekin, hodeiekin; guretzat ere bizi da: elurretan gure pausoak markatuz, pauso horiek bisutsak ezabatuz, edo oina-tzak urez betez, gure buru gaineratik haizea mugiaraziz, zeruaren grisaz edo urdin argi distiratsuz bere begien kolorea aldaraziz. Geu mundu guztitik ezkutatuz, elkarri entzutea eragotzi gabe.

Ez naiz gauza ez irakurtzeko ez idazteko, ez zerupean, izarren pean, zuhaitzen pean bakarrik egoteko ere. Egunsentia basoaren gainean polita bada, bihotza estutzen zait: Nola adierazi? Zein hitz erabili? Zubitxoan elurrak oinetakoen azpian krask egiten badit, nola eraman haur-hots hori, herritxo bateko Eguberriko hots hori haren gelara? Baina olerkiek, olerkiek banantzen gaituzte. Horretan ez gaude ados. Berak

ez du ulertzen olerkia, ez zaio gustatzen. Behin esan zidan: «Hamasei urteko mutikoa nintzenean, nik ere idazten nituen bertsoak». Esan nahi du txantxa bat, jostagai bat bezala direla beretzat. Baina badut itxaropena gogoratuko dudala oraindik ere hunkituko duen olerkiren bat.

Nikolai Aleksandrovitxek eta biok Vekslerri bisita egin diogu, neuk eskatuta: Klokovekin izandako solasaren ondoren saminak gaixotuta dago. *Emes* aldizkariak olerkiak argitaratu izan dizkio, eta oso hurbil dago haren erredakzioarekiko... Baina oraingo honetan kontua ez zen hori, berariaz asmatu eta artifizialki puztutako kanpaina antisemita baizik. Ohean dago; olerki-orriak han eta hemen barreiatuta; pijama histu bat du jantzita, eta bere armadako jaka, dominaz betea, burumakur, itxurarik gabe, aulki baten bizkarretik zintzilik. Vekslerrek, ohean, orrialdeak berrikusten ditu, arkatzari hozka egiten dio eta gertatzen ari denari zentzu positibo bat bilatzen ahalegintzen da, itxura denez. (Gogoan dut neu ere nola ahalegintzen nintzen). Ulergarri, eta are onargarri ere, bihurtu.

–Ez baitakigu dena –dio, hasperen eginez–. Kosta egiten zaigu nazioarteko politikaren ikuspegitik zer dagoen zuzen eta zer ez juzgatzea. Goian hobeto ikusten dute. Ikuspegi zabalagoa dute. Stalinen altueratik mundu osoa ikusten da... Hor dituzu miliziak, adibidez. Garai hartan ez nuen ulertzen zertarako bidaltzen zen gudura behar besteko prestamenik, armarik ere ez zuen jendea. Zenbat intelektual hil zen orduan! Zerbitzu handiak eman ahal izango zituzketen. Eta urteak behar izan nituen Moskuren defentsarako Stalinekin zuen planaren jenialtasuna ulertzeko. Stalinekin prestamenik gabeko jendea bidali zuen gudura, eta bien

bitartean erreserbak iristen ziren, eta Mosku salbatu egin zen.

Eta gustura galdetuko niokeen «Emes ixtea ere nahitaezkoa al zen Mosku salbatzeko?» Baina ez diot galdetu. «Eta kritikarien kontrako gezurrak? Eta antisemitismoa xaxatzea?».

Baina isildu egin naiz. Ez dut eztabaidatzen. Bilibinek oso argi azaldu zidan bestela ere nik banekiena: zein zentzugabea eta arriskutsua den gai horiei buruz eztabaidatzea. Zertarako eztabaidatu Klovov bezalako artaburu batekin? Arriskutsua da, eta ez du erremedio-rik.

–Ulertu, nolana ere, ezer ez du ulertuko –azaldu zidan Bilibinek– eta makurra izango litzateke salaketaren bat egingo balu: «Halako eta halako egunez, halako lekutan, halakoaren eta halakoaren aurrean, aberriaren kontrako ideiak adierazi, eta alderdiaren prentsarekiko mesfidantza erakutsi zuen». Eta lekuko izateko deitzen hasten zaizkigula, gu, adiskideak, Sergei Dimitrievitx, ni... Eta zure kontra lekukotasuna ematen dudala! –bukatu zuen, barrez–. Ez, Nina Sergeievna, utzi hori! ez da horren sutsua izan behar. Izan ezazu zeure buruaren errukia, eta baita gu, bekatariona ere. Ez da izan behar horren sutsua.

Kontua da bera ere, Bilibin, lagunartean gehiegi hitz eginagatik esnatu zela behin lagerrean. Norbaitek salatu, eta hala hasi zela dena... Denei deitu zieten. Bat tematu egin zen, bik berretsi egin zuten. Eta bizitza hondatu.

Veksler bestelako kontu bat zen, inondik ere, harekin beldurrik gabe hitz egin zitekeen, baina zertarako eragotzi norbaiti zentzurik gabeko gaiztakeria bati misteriozko zentzu ezkutu bat bilatzea, horrekin bere

ariman bakea errazago gordetzen badu, tematzen zen esanez Nikolai Aleksandrovitx. Bego dagoenean!

Vekslerrean ez gara askorik luzatu. Ondo garbi zegoen nirekin bakarrik hitz egin nahi zuela. Jaiki naiz. Jauzi batez jaiki da bera ere sofatik, pijamaz eta galtzerdiz jantzita. Orriak lurrera joan zaizkio. Haiek biltzera oldartu da.

–Ez dut arrotzen bisitarik behar –esan dit goibelki, kokoriko eserita eta behetik gora mehatxuz begiratuz–. Zu ikusi nahi zaitut, nire olerki berriak irakurtzeko...

Vekslerrek pena ematen dit, noski, eta entzungo nizkioke olerkiak; Klokovek, aldiz, nazka ematen dit. Berak kontatu zigun behin, bazkalostean, nola ikasi zuen tiro egiten haurtzaroan, hamabi urte inguru zituenean: katu bat zuhaitz bati lotu eta eskopetaz tiro eginez. «Eta katua mugitzen zenean, salto egiten edo lasterka egiten zuenean, kosta egiten zen jotzea» –azaldu zigun–. «Ederra prestaketa lanbidez kritikaria izateko!» pentsatu nuen. Olerkiez hitz egiten zuenean, lehertu behar nuen barrez eta amorruez.

–Klasikoetan ere ez dira onak gauza guztiak –esan zuen atzo–. Nekrasoven hau, esate baterako: «Basoan aizkora entzun zen». Horrela hitz egitea ez da zuzena: kolpea baita entzuten dena, ez aizkora. Baina Nekrasov klasikoa denez, barkatu egiten diogu.

Gaur, bazkalondoan, lezio oso bat eman digu maitasunari buruz.

–Gure buruzagiek –jakinarazi digu– azaldu digute: gure prentsak, gure literaturak –zuzendu du– ez dio behar adinako arretarik eskaintzen maitasunaren gaiari. Bada garaia bizitzan eta literaturan dagokion lekua emateko maitasunari. Marxismoaren klasikoak ez zeuden maitasunaren kontra. Gurean, orain artean,

ez da behar bezain kontuan hartu maitasunak handitu egiten duela energia eta energia horrek balentria handiagoak egitera bultzatzen duela gizakia, eta balentria horiek komunismoa eraikitzen lagun dezaketela, bide batez... Marxek, Engelsek, Leninek oso aintzat hartzen zuten maitasuna, bultzagarria delako batez ere...

–Nina Sergeievna –esan dit Bilibinek, otoizka ari balitzait bezala, bazkalondoren eskaileran gora gindoazenean–, arren, goazen zangak egitera! Sentitzen ari naiz oraintxe energia nola pizten zaidan! Zerbaite-tara bideratu behar dut.

Barrez lehertu behar nuen, eta kostata iritsi naiz gelaraino.

Arratsa. Gelan eserita nago, Bilibinen zain. Seguru etorriko da. Indarretxea tik-tak, tik-tak ari da; gure uneak zenbatzen. Argiak piztu eta itzali egiten dira. Pauso ezagunen zain nago eta *Gorrotoaren gaztelua* irakurtzen ahalegintzen naiz. Baina ez nago irakurtzeko. Atzo arratsaldean Liolkaren isba ikusi nuen. Gaztelu guztiak baino interesgarriagoa zen hura. Terako ematen diguten pastela, gozokiak eta, uste ez nuela, bainuetxeko liburutegian zegoen errusiar ipuin-liburu bat neramatzan.

Bederatzi etxetxo dira Bukovon; 30 izan ziren, baina alemanek erre zituzten 40an. Itxiturak, lokatza, ahuntz argal batzuk, ilearen ordeztuta iztupa-mataza gisako batekin. Liolkaren isban trapu zikinak, lapiko zikinak eta, trapu zikinen eta haur zikinen gainetik, bozgorailu bat oihuka. Gelaren ikuspegia lapurrak sartu eta dena eramanez, eta geratutako traste zaharrak barreiatu izan balituzte bezalakoa zen: ispilu puska bat lurrian, azalik gabeko bururdi zikinak mahaietan. Liolka, oinutsik, ilea zapazto, urtebeteko Vitka lurrian arrastaka darabilela; jasotzen du baina irrist egiten dio.

«Nekazaritza ekipamendu tekniko horitzeko, alderdiaren eta gobernuaren laguntza handian oinarriturik –ari zen esaten irratia, sartu naizenean–, aurtengo urtean, ohi baino epe askoz laburragoetan...».

Irratia itzali dut, haurra ohean pausatu eta gozoki bat sartu diot ahoan. Baita Liolkari ere, eta ipuin bat irakurtzen hasi natzaio. Nola entzuten zuen! Eskuez, bekainez, belaunak urduritasunaz elkarrekin igurtziz, ahoa zabalik zuela. Ahoan pastel puska bat jarri diot eta ahaztu egin zaio mastekatu eta irentsi behar zuenik. Ipuinetako bat Finist, Belatz Zuriaren lumari buruzkoa zen, beste bat maltzurkeriaz artzain behartsu bati txirula magikoa lapurtu zion tsarina bati buruzkoa.

«Finist, belatz zuria, gauerdian hegan iritsi zen eta leihoaren kontra jo, baina odolez zikintzea eta hegaletan ebakiak egitea besterik ez zuen lortu.

»–Agur, neskatxa ederra –esan zuen triste-triste–. Banoa hegan munduaren bukaeraraino, urrutiko lurraldeetara, urrutiko erreinetara. Bila nazazu han, maite banauzu. Burdinazko hiru pare eskalapoi higitu dituzunean, burdinazko hiru bastoi gastatu dituzunean, burdinazko hiru komunio-opil³³ mamurtu dituzunean, orduan aurkituko nauzu.

»Hori esan eta hegan abiatu zen zerurantz.

»Baina neskatxoak ametsetan hitz desatsegin horiek entzun bazituen ere, begiak zabaltzeko ere ez zuen indarrik».

Bukatu eta presaka itzuli naiz: tratamendua egi-teko ordua zen.

–Liburutxo hori banu –esan dit Liolkak, haurra besoan hartuta bideraino lagundurik–, ez nintzen etzango, irakurri egingo nuke! Gau eta egun irakurriko nuke, begiak jaso gabe!

33 Errusiako eliza ortodoxoan ostiak ez baina opilak kontsaktatzen dira.

Haren hitzek ipuina gogoratzen zidaten; berriro hunkitu nau.

–Baina, irakurtzen ez dakizu-eta.

–Ikasiko dut! Efea badakit!

Botak jantzi ditut. Liolkak haurra zertxobait jaso du.

–Ni tsarina banintz –esan du emakume-ahots kantari batez–, ez nintzateke gaiztoa izango... Nik ez nioke kenduko txirula hori, behin putz egingo nioke, barre egiteko... Errukitu egingo nintzateke txirula eka-
rri zidanaz...

...49ko martxo

Motzondo batzuen gainean gaude eserita, basoko soilgune batean: ni motzondoaren gainean eskuzorroa jarrita, bera neguko txanoaz jarrita. Ez du haizerik egiten eta eguzkia berotzen hasia da. Basoa neguz jantzita dago, baina itzal urdin, sakonek erakusten dutenez, udaberria da dagoeneko! Elurra bigun dago gaur. Lastima eskulpitzen ez jakitea.

Kapelarik gabe dago eserita, zamarra zabalik, burua atzerantz, zerura begira, eta aurpegia desberdina du berriro. Zurrundua, espresiorik gabe, baina begiak urduri. Eta haizeak bekoki gainera harrotzen dizkio ile bakanduak.

Elur eskutada bat hartu eta estutu egin du.

–Jantzi ezazu kapela, hoztu egingo zara –esan diot.

–Badakizu Veksler zutaz maiteminduta dagoela?

–galdetu dit Bilibinek erantzun ordez.

–Eta?

–Erraza eta atsegina zaidala iruditzen zaizu?

–Nik ez dut pentsatu ere egiten harengan. Ezta behin ere.

–Eta niregan?

–Asko.

–Poesia bete-betea omen zara, artea omen zara, eta nik al dakit zertzuk gehiago esaten dituen.

–Jakizu zer ergelkeria esaten diren. Niri berdin dit.

Nikolai Aleksandrovitx jaiki, kapela jantzi, zigarro bat piztu eta pauso batzuk egin ditu soilgunean zehar. Motzondotik pinu bihurritu batera, pinutik motzondora. Ondoren zigarroa harrika bota eta atzetik ondoratu zait. Berokiaren lepoa bildu eta haren larru leunaz masailak eta belarriak kilimatu dizkit. Burua atzerantz okertu dit, eta azpitik ikusten nion kokots garbitua, ezpainak eta begi distiratsuak, biak adi, niregan finkaturik.

Astindu bortitz batez askatu dut burua haren eskuen artetik.

Eskuak jaitsi eta urrundu egin da; beroki-lepoa txukundu dut. Gero nire aurrean gelditu da; izeiak eta zerua estaltzen zizkidan. Une horretan oso handia iruditu zait.

–Esadazu, mesedez, zergatik ezin dizut musu eman?

Zer erantzun behar nion? Neuk ere ez nekien zergatik. Baliteke ez gustatu izana lehen zigarroa botatzeko egindako keinu praktiko eta erabaki hura. Ez dakit.

Jaiki eta zamarra astindu dut. Isilik abiatu gara etxerantz. Izeiek, elur astunaren azpian, triangelu zuriak ziruditela ohartu naiz. Bilibinek haserre-aurpegia zuen. «Zergatik, ordea? –pentsatu dut–. Pasierra hondatu diot. Baina errua ez da nirea... Nirea bakarrik ez behintzat... Ez baitago nire gogoaren esku... ahal iza-tea edo ezin izatea...».

–Ez didazu azaldu behar, hortaz, estatu-sekretu hori? –galdetu dit Bilibinek burlaizez.

–Ez zaitetz haserretu, Nikolai Aleksandrovitx –esan diot–. Ez da esplikatzeko erraza. Herzenek ere esaten du nonbait: «Hitzak gaizki adierazten du».

Bainuetxetik urrunera gabe Ludmila Pavlovna topatu du. Goizean itzuli da eta ni dagoeneko harekin topo egin nintzen. Ahizparen berririk batere ez du jakin. «Fiskaltzan sekulako jendetza zegoen, ezin kabiturik, eta ez zara ezertaz enteratzen». Baina itzultakoan iparraldeko lekuren batetik iritsitako telegrama bat aurkitu du; kandelak, pospoloak, azukrea bidaltzeko eskatzen zion ahizpak. Etxola-edo batean bizi da. «Ez dago lagerrean, Jaungoikoari eskerrak –esan diot–, telegrama bidal dezakeenez». «Eta zer iruditzen zaizu –galdetu dit Ludmila Pavlovnak, erantzunez–, norbaitek ikusi ote du telegrama?».

Orain segituan inguratu gaitu bere urrinaz eta bere irribarre herabetasunik gabeaz.

–Basoak ipuinetakoa dirudi gaur –esan digu, bere zapi belusatua txukunduz–. Bolxoi antzokiko eszenatokia balitz bezala.

Bilibinek, bere ohituraren kontra, ez dio musu eman bi eskuetan eta ez zaio hasi esaten palmondoa bezain liraina dela.

–Zergatik hasi zaizu Veksler barruan daramana adierazten? –galdetu diot etxera hurbiltzen ari ginean–. Zer dela-eta?

–Lehiakide zortetsutzat nauka, nonbait. Eta uste du kexuak eta deitorea jo ditzakeela nirekin...

Atarira igotzen ari ginen. Ni aurrean, bera atzean.

–Eta zuk? –galdetu diot, biraturik. Gure begiak parez pare zeuden.

-Nik zer?

-Haren lehiakide zortetsua zarela uste duzu?

-Lehiakidea, bai; baina ondotxo dakizu zorte handikoa ez naizela... «Hitzak gaizki adierazten du» -imitatu nau, nabarmen haserre-. Filosofatzen eta ai-puak botatzen ematen duzu egun osoa...

Ate astuna nire aurrean zabaldu eta atarian bertan bere ehizako bota garaiak isuski batez garbitzen hasi da.

Gaua da. Bazkalorduan eta afalorduan izugarri lehor egon da nirekin. Afalondoa, ohi bezala nire gelara joan, eserleku apal-apal batean eseri eta nire galderei isilduz edo beste xehetasun izugarriren bat kontatuz erantzuten egon ordez, egongelara joan da, eta han dago oraindik, eta imajinatzen ari naiz hementxe nola ari den bere esku handiez kartak banatzen. Aldian behin haren ahots ziurra iristen zait. Negar egiteko gogoia dut. Jainkoak barka diezaiola. Zein polita izan den azkeneko bi asteotakoa: egongelan dagoen ala ez, ez zait batere inporta. Arrotza zait, nahi duen lekuan egotea asko du. Eta ni ibil naiteke bakarrik basoan, urkien gainean biribil gris-gorritzat ikustean hari nola deskribatu pentsatu gabe; murgil naiteke, eta olerkiak irakurri, eta jendeari begiratu, eta gutunak idatzi... Orain?

Orain hartaz beterik dago nire bakardadea. Zein bortizki jaurti duen zigarroa han, soilgune hartan... Barkatuko ote dit gaurko eguna?

Eta zergatik generabilen, gainera, bat-batean hizkera ergel hori: «lehiakidea», «lehiakide zortetsua», «zorte gutxiko aurkaria»? Zertan aurkari? Nola behertu ote ditugu gure elkarrekiko esperientziak hitz zital horietaraino?

Gizakia «bere baitan itxita dagoen sistema bat da», eta nor bakoitza bakarrik dago bere sisteman. Eta, bat-batean, bekokiko estalkia zabaldu eta estalki horren atzean zer dagoen ikusiko balitz bezala da...

Eta mirari horren ondoren, zoriontsua ez dela esatera ausartzen da! Arrats hartan, bidezidorrean, orduantxe, bihotzekoa izan ondoren, lehenengo aldiz hitz egin zuenean? Bi asteotan, egunero gure oroitzenak elkarrekin trukutzen genituenean? Ez zen zoriontsua!

...49ko martxo

Gauean begietan argi-kolpe bortitz batek iratzarri nau. Burua jaso eta argi sorta zuri handi batek jo du aulkia, horman proiektatu da eta desagertu egin da. Zer ote zen?

Behean ate-kolpe baten zarata bortitza entzundut.

Auto bat! Norbait iritsi da autoz etxera. Haren argiak ziren.

Indarretxea gauez ez dabil. Ezin nuen ezer piztu. Etzanda jarraitu eta ilunpean dena entzun, besterik ezin nuen.

Gontz batzuen hots arina entzundut; sarrerako atea zabaltzen ari ziren. Eta geroago hots bera; ixten.

Etxe barruan zeuden, beraz.

Norenean? Noren bila?

Baina pausorik ez da entzun. Gure solairuan ez behintzat. Ametsen bat besterik ez ote zen?

Erabateko isiltasuna, guzti-guztizkoa zegoen etxean.

Baina handik hamarren bat minutura, berriro entzundut behean, sarreran, atearen kirrinka. Jau-

zi batez jaiki eta leihora joan naiz lasterka. Errezelak zabaldu ditut. Ez zen ezertxo ere ikusten, baina garbi entzuten zen autoa nola gidatzen zuten. Eta, horretan, argi batek, ez oso biziak, ahulak, zilar-kolorekoa bihurtu du nire beirako antzigarra. Norbait eskaileretan behera jaisten ari zen, eskuargi batekin. Hiru, ez, lau irudi ilun ikusten ziren. Eta autoaren atea klask egin du berriro. Motorra. Argiak: argi distiratsu bat elurretan.

Besterik ez. Eskuargiak kulunka igo ditu atariko eskailera-mailak eta berriro entzun da ate-gontzen hotsa.

Ludmila Pavlovna izango zen, seguruenik, eskuargiarekin. Zuzendaria hirian zegoen gaur.

Ludmila ez da hemen bizi, gure etxe honetan, langileen finlandiar etxetxoetako batean baizik. Beharbada hara joan zaizkio bila. Eta hona ekarri. Norbaitek zabaldu behar zien atea, eskuargia piztu, gela erakutsi! Zaratarik gabe. Isilik.

Norena?

Ez, 8a ez, ez da 8a izan, gure korridorean pausorik ez da entzun eta.

Behean: han daude zientzia-fikziozko eleberrigilearen gela, Vekslerrena, Valentina Nikolaievna, abenturazko eleberrigilearena, Sergei Dimitrievitxena...

Gau honetan argi bat agertzen ikusi dut leihoan, berogailuaren arduradunak berogailu-zentralera nola jaisten ziren entzun dut, eta berogailua burrunbaka hasten, indarretxea lehenengo triki-trakak egiten.

Zazpitan jaiki eta sotora joan naiz, bainuetara. Goitik behera garbitzen banintzen arinago sentituko nintzela iruditzen zitzaidan. Baina aurpegia, bizkarra, eskuak nahi beste igurtziagatik, iluntasun eta loezi-

nezko amaraun batek estaltzen zizkidala iruditzen zitzaidan.

Andre xahar baten aurpegiak begiratzen zidan ispilutik.

Ludmila Pavlovna nonbait topatuko nuela espero nuen; hark egia esango zidan. Paketearenak elkarrengana hurbildu gintuen. Behin edo berriro korridorera atera naiz, egongelan begiratu dut... Deus ez. Eta biltegi-joanez gero, Toniaren bila? Ez, hark ez du jakingo seguruenik; eta hari berdin dio denak... Zer gara gu harrentzat? Inoiz ez du gure liburuak irakurtzeko astirik izan; hitz bat bera ere ez zuen sinistuko. Ezertarako ez diren arrotz batzuk gara, eta haientzat lan egin behar. Jaunak. «Idazleak».

«-Idazlea, hartu entzungailua!» -esaten du telefonistak, konexioa egiten duenean.

«-Idazleek zinema dute».

«-Idazleei posta banatu diete?»

Bederatziak puntu-puntu gosaltzera jaitsi naiz.

Bilibin, goitik behera beltzez jantzita, zurbil, ezpainak urdinkara, zutik zegoen mahai ondoan, esku handiak aulkiaren bizkarrean bermaturik.

Hurreratu naiz. Aurrez aurre geunden. Une bat gehiago itxaron beharrik ez izatea eskertu diot.

-Ez zinen zu, beraz? -esan diot-. Ez zinen zu, beraz, ez zinen zu.

-Niregatik beldur zinen?

-Bai.

-Esadazu hori: beldur nintzen zuregatik -esan dit xuxurla batean.

-Beldur nintzen zuregatik -errepikatu diot.

-Emadazu eskua... Esango dizut?

Bazuen halako tema bat bere galderan eta niregan finko zuen begirada horiztan... Eskua hotz eta irmo zuen.

–Veksler.

Olerki-orri gaixoak, domina gaixoak, buru zuri bakun gaixoa! Liutik gaixoa.

Ez nintzen ezer jateko gauza. Hotzikarak nituen. Jangelan gu beste inor ez zegoen oraindik, eskerrak. Bilibinek kafe bero bat hartzera behartu nau. Elkarrekin igo ditugu eskailerak eta elkarrekin sartu gara nire gelan.

–Gizon zintzoa zen –esan dit Bilibinek ageriko interesez.

Negarrez hasi naiz «zen» horrengatik. Lehenaldian berriro, gizona oraindik bizirik egonda! Bilibinek fereka leun bat egin dit ilean.

–Zoaz, mesedez –erregutu diot–. Oheratu egin behar dut.

Atera egin da.

Ohean nago. Gaur ez naiz jaikiko. Bihotza etengabe ari zait taupadaka, eta malkoek aurpegia erretzen didate. Etzanda ari naiz idazten.

...49ko martxo

Urki-basoan hara-hona ibiltzen igaro dugu goiz osoa. Urkien buruak goialde urdinean bainatzen dira. Basoan bada lekua eta argitasuna, gure etxean bezalaxe. Itxuraz, gure gaurko pasiera izan da sakonena. Dagoeneko ikasi dugu elkarren ondoan isilik egoten. Ez dugu hitz egin ez gauaz, ez Vekslerrez, eta berregileez, ez beste 37 batetik bizirik ateratzerik ba ote legokeenez ere.

Eserlekuan eserita egon gara, zabaldi elurtuari begira, Bukovoko etxetxoan teilatuei begira. Eta geldiro itzuli gara etxera. Ideia bat barrutik ausikika ari zait denbora guztian: erakutsiko diot ala ez diot erakutsiko «Farolak»? Egunkaritik erauzi eta erakutsi...

Geroago erakustea erabaki dut, bere lana bukatzen duenean. Zeren inorenak zeurea idaztea eragozten baitizu.

Bainuaren eta bazkariaren ondoren, lotan geratu naiz. Esnatu eta, ordu horretan beti bezala, atepetik argi-zirrikitua bilatzen hasi naiz. Ez, ez dago argirik. Eta ez da entzuten indarretxearen hotsa ere, laurak eta erdietan beti hasten den arren. Ohi baino lehenago

esnatu ote naiz? Ez, etxe guztia jaikita dago. Iskanbila larriren bat ari da gertatzen: zalaparta alde guztietan, lasterketak, ate-kolpe eutsiak.

Ilunpean aulkiekin estropezu eginez, bata aurkitu eta korridorera atera naiz. Korridorea ere ilun zegoen. Leihotxo baten laukia baizik ez zen ageri argitan korridorearen muturrean. Eta, bat-batean, leiho atzean, elurretan, arrosa-koloreko zerbait dardaraz. Hegal-astindu bat bezala.

Leihora hurbildu naiz.

Aurre-aurrean finlandiar etxetxo bat erretzen, kiskaltzen, garretan, sutzar handi bat bailitzan. Garra arrosa-koloreko distira samur batez islatzen zen elurgeruzan.

–Jaiki zara? Zu esnatzera nindoan –esan dit Bilibinek, leihora zaratarik egin gabe, txapin hutsetan inguratuz. Hamabost minutu ziren su hartu duenetik, eta ia ezer ez zen geratzen. Eskutik heldu dit. Hantxe geunden, leiho ondoan zutik, elkarren bizkarra ukituz–. Non daude suhiltzaileak! 30 kilometrora! Unetxo bat, eta kito... Hemengo gazteak, Bukovokoak, Kuzminskoiekoak, alai eta pozik etorri dira lasterka: «Idazleak sutan daude!». Ez didazu sinesten? Sinesten ahal duzu. Eta inork ez du behatzik jaso. Hortxe daude, begira... Bero-ontzitxo batetik su hartu du.

–Eta barruan inor ez zegoen? Etxetxoan?

–Ez. Gauzak besterik ez.

Ganora gabe eta geldiro esaten zuen. Erlaitzean eserita, nire eskua askatu gabe, sute batean hori normalean balitz bezala.

Horretan, arrosa-koloreko distirak bizkarra, bu-larra, buru handia eta nire eskua berean blaitu ditu. Ez zen mugitzen, eskua geroz eta gehiago estutzen zidan, hori bakarrik.

–Norenak ziren gauzak?

–Erizainenak, Ludmila Pavlovnarenak. Negarrez dago, eta berogailua piztuta utzi duen erizainari kostu guztiak ordainaraziko dizkiola zin eta zin ari da.

Gustura nengoen suari begira zutik, Bilibini entzuten, haren eskuaren mende eta, baliteke neuk ere beldur pixka bat izatea, suaren eta garren bat-bateko hegaldi altuengatik.

–«Idazleak sutan» oihukatzen zuten hortaz?
–galdetu diot.

–Bai.

–Liolkak ere bai?

Ez dit erantzun. Arrosa-koloreko distira zurbiltzen ari zen dagoeneko, elurrak kolorea xurgatu izan balio bezala. Iluntasuna leihoz kanpo ere zabaltzen ari zen. Etxetxoia itzalita zegoen.

–Argia ematen dutenean kontakizuna eramango dizut –esan dit Bilibinek–. Zu lotan zeundenean bukatu dut. Horra.

Eta aire jostalari eta aginduzko batez ilea ferekarazi dit eskuaz.

...49ko martxo

Irakurri dut.

Atzo elkarren ondo-ondoan egon ginen leiho parean. Elkarren ondoan.

Eskuizkribu arrunt bat da, makinaz idatzia. Baina inoiz ez ditut ahaztuko haren letra-tipoak, inoiz ez; zintaren kolore morea eta atalen zenbakietako zazpi isats-luzea.

Inoiz ez dut ahaztuko ezta hitz bat ere.

Hasieran dena ezagutzen nuen, eta poztu egiten nintzen. Basoko hotsak, meatzeko zaratak, lur azpian, ilunpetan. Ilunpetako eta basoko denbora. Igo-gailuaren burrunba meatzean. Lurpeko hamargarren mailako isiltasuna. Bai, indar gehiago du gauzak deskribatzen, kontatzen baino... Eta pertsonak ezagutzen hasten ari nintzen. Hau Saxa Sokolianski –Boltianski zen hemen–, itxura oneko mutila, argia, eta totela izateak xarmagarriago egiten du. Kontakizunean meatzaria da Saxa. Eta beste hau? Espresio gabeko barre horrekin? A, hau beste begirale harengandik, preso

lo egitea eragozten zien harengandik kopiatua da seguru asko, hark ere espresiorik gabeko barrea zuen... Hemen ingeniaria da, eta sabotajegilea, nonbait... Mutiko bat ere badago: erkina, baina familiako iskanbilek abailtzen dutelako da horrelakoa. Eta pertsonaia nagusia: Piotr, meatzaria. Hori ez dut inondik ezagutzen. Bilibinek kontatutako guztian ez zegoen horrelakorik. Eta kontakizunaren haria... *Znamia* aldizkarirako prestatutako idazki batean ezin lagerrari buruz idatzi, jakina... Baina zertarako sartu, orduan, mendi haiek, baso hura, pertsona haiek... Gutunarena ere agertzen da: gizon bat bere emaztearen gutuna irakurtzen ari dela, haizeak orriak eramaten dizkiola, eta gizona hil egiten dela, ez zakurra oldartzen zaiolako, orriak biltzera lasterka doanean estropezu egin eta zulo batera erortzen delako baizik.

Meatzari-brigadak zein baino zein saiatuagoak dira lanean. Nazien gaineko garaipenak produktibitate-gorakada harrigarri bat eragin du lanean. Piotr meatzaria frontetik Fedosia, bere emaztearenagana itzuli da. Hark meatzeko igogailuan lan egiten zuen lehen, baina gerrarekin bestelako heldutasun bat lortu du ideologian eta lanbidean, milioika sobietar emakumek bezala, haien gainean oinarritu baita herrialde osoaren ekonomia. Hark bai jakin eltzetik babak ateratzen! (Herri-esaera asko daude eleberrian). Piotr guduan zen bitartean, Fedosiak lan egiten zuen, haurrak hazten zituen eta ikasi egiten zuen. Ingeniaria izatera iritsi zen. Teknologia aurreratua edukitzeko borrokatu zen. Bere brigada pikotxetik zulagailura eraman ez ezik, Moskura joan eta ikatza ateratzeko makina konbinatu bat eskatu zuen. Makina adimendun hark berak bakarrik ateratzen, kargatzen eta garraiatzen du ikatza. Bukatu zen aitonen garaian bezala lan egitea! Fedosiak

zuhurki zuzentzen du propaganda. Piotr haserre dago: hura pikotxarekin ohituta dago eta ez du berriro ikasten hasi nahi. Gerrako dominekin putzak hartuta dago. Eta ingeniari nagusiaren jeloskor dago, emazteagatik, inolako arrazoirik gabe. Emazteari ez baitzaio batere gustatzen ingeniari hura; alderantziz, haren sabotajea agerira ateratzen du...

Meatzean gogotik ari dira lanean; meatzariak Urriko urtemuga bezperako txandan sartu dira, baina Piotren etxean haserre dira, liskarretan ia-ia. «Aitta-esaten dio Piotri bost urteko mutiko erkinak-, ez jo ama; Stalini idatziko diot bestela. Hark babestuko gaitu, hark ez du utziko langile bati min egiterik». Etxeko eszena horietako baten ondoren, mutikoa, bere hanka ahulen gainean ibiliz, bisutsetan eroriz eta estropezu-ka, alderdiko antolamendu-idazkariarengana joan da. Hura Piotr zentzatzan saiatzen da, baina Piotr setatuta dago berean. Orduan, idazkariak gerran lau seme galdu dituen amona Mariari agintzen dio, hitz egiteko Piotrekin bihotz-bihotzez. Amonak ederki aurkitzen ditu Piotr hunkitzeko hitzak. Piotrek bere errua aitortzen dio Fedosiari.

«Eskuko behatzak ikaratan zituen zigarroa bilztean... Fedosia nirea! -esan zion ia ahotsik gabe-. Nirea da errua! Barkatu iezadazu, ergel honi. Okerreko bidetik nindoan. Baina andre xahar horrek zentzatu nau».

Irakurri ondoren, eskuizkribua itxi eta luzaro geratu naiz mahaian, karpeta txukunari begira. «Nikolai Bilibin. Fedosiaren garaipena. Kontakizuna» zeukan letra argi eta biribilez idatzita.

Hori ari zen, beraz, idazten, hemen, goizeko zazpietatik aurrera. Horretarako etorri zen hona, isiltasunera. Hori zen bere lagunari jasotako monumentua.

Horri buruz hitz egin nahi zien Toniari eta Liolkari, Vekslerri eta Ludmila Pavlovnari.

Nire bizitzan zehar behin baino gehiagotan gertatu izan zait pena sentitzea. Baina lehenengo aldiz sentitzen nuen lotsa.

Hainbesterainoko lotsa-sentipena, non denbora ere gelditu egin baitzait. Zoriontasunarekin ere horixe gertatzen da.

Ez dut pausorik entzun. Atea jo dute. Banekien Bilibin zela. Arin, kontuz deitzen du beti, azkazal-muturrez. Ibili ere oin-puntetan ibiltzen den bezala.

Ez diot segituan erantzun. Adorea hartu beharra nuen, eta ahotsa aurkitu.

–Aurrera –esan dut, azkenean–. Eseri, mesedez.

Aulki bat seinalatu diot, mahaiaren beste aldean. Gela honetan aulkitxo batean eseri izan da beti, nire ondoan. Harritu egin da, baina eseri egin da.

–Koldar hutsa zara –esan diot–. Ez, okerragoa: lekuko faltsu bat zara –jaikitzen hasi da–. Gezurtia zara. «Ez zara txetxeniarra, atso xahar bat zara zu...»³⁴.

Jaiki eta zutitu egin da. Begiak gainetik kendu gabe, begiratu gabe, eskua mahaira luzatu, eta haztamuka aurkitu du karpeta.

–«Eskuko behatzak ikaratan zituen zigarroa biltzean» –esan diot, eta neu ere altxatu egin naiz–. Horra. Joan zaitezke. Ez dut besterik zure literaturaz esateko... Agur betiko. Zergatik ez duzu isilik geratzeko duintasunik izan? Isildu, besterik ez. Inork ez baitzizun hau eskatzen... Benetan... zuk lurperatu zenituen guztien begirunez... ez zenuen bizimodua ateratzeko beste modurik?... Beste nolabait. Basoaz baliatu gabe. Mea-

34 Puxkinen «Tazito» poema bukatu gabetik hartutako bertsoak: «Ospa hemendik, ez zara nire semea / Ez zara txetxeniarra, atso xahar bat zara zu, / koldarra, esklaboa, armeniarra. / Ospa hemendik, madarikatua!»

tzeaz baliatu gabe. Haur hartaz baliatu gabe. Zure...
zure lagunaren toteltasunaz baliatu gabe?
Alde egin du.

...49ko martxo

Nola itzuli basora, lehenengo egunean egon nintzen baso hartara? Bakearen oparia egin zidan baso bedeinkatu hartara? Orain ez dut zeren eskerrak emanik.

Orain eskatu, eskatu, eta ez dit ezer ematen. Orain elur izoztu, distiratsuz estalita dago erabat. Baina bestelako zerbaitez bete dut, eta orain ez nau kontsolatzen, eta isiltasunik ez da bizi han.

Okerren bat egin diot nolabait, eta ukatu egin dit bere kontsolamendua.

Dagoeneko berandu da damutzeko eta laguntza eskatzeko. Etzi banoa.

Nola bizi bi egun hauetan Nikolai Aleksandrovitx bizi den sabaie berean? Bazkaldu, gosald... Eta ondoren bidaia elkarrekin egin berriro... Gaixo dirudi, gainera...

Gaur goizean bihotza pilpilka nuela sartu naiz jangelan. Baina Sergei Dimitrievitx bakarrik zegoen mahaian. Bilibinik ez zegoen.

–Gure kide ohoragarria gaixo dago berriro; joan zara ikustera? –galdetu dit Sergei Dimitrievitxek–. Zoaz

eta agur bat egiozu. Ni ere joango naiz. Bihotza nola-bait dabilkio berriro, erizainak esan didanez.

–Bai? Ez, oraindik ez naiz joan ikustera.

Gaur hiru aldiz joan naiz pasiera egitera. Aldiko berrogeita bost minutu. Zehazki. Barkatu gabe. Ordu-beteetan.

Bazkalondoren Liolka ikustera joan naiz. Ordu horretan bere anaia auzoko batzuenen utzi eta lasterka joaten da geltokira, ogitara. Topatu, zakua hartu, pastelak, sagarrak, txokolatea sartu dizkiot eta ia herri-raino lagundu diot.

–Moskun ibairik bada? –galdetu dit.

–Bai, bada. Moskova ibaia. Sakona da.

–Burua baino gorago?

–Ez dakit. Hirian debekatuta dago bainatzea.

–Orduan, zertarako duzue ibaia?

Neska mehea, begi bizikoa, zalua da. Zapi beltz batean ezkututzen ditu esku gorri, izoztuak.

–Laster zoaz Moskura?

–Laster, Liolka, laster.

–Eta eramango nauzu?

Gelditu, eskuetan putz egin eta begi handi-handiez begiratzen dit.

–Zer duzu, baina, Liolka! Nola nahi duzu eramatea? Ama hemen duzu. Hark ez dio utziko alabari joaten.

–Utziko dit! Beti ari da esan eta esan «Alde hemendik, Olga, alde! Ez zaitut ezertarako behar. Bat gutxiago zaintzeko». Eta dena egingo dizut... Badakit ontziak garbitzen eta lazoak lisatzen.

Hortxe dago zutik, begiratzen dit eta halako indarrez igurzten du sudurra mahukaz, non erabat ezabatu nahi duela baitirudi.

Buruzapia kontu handiz lotu diot, aurrean be-
launikatu eta hatsaz eskuak berotu dizkiot.

–Eskuzorro bat bidaliko dizut, seguru. Gutunak
idatziko dizkizut. Eta liburutxo bat ere bidaliko dizut.
Gero Katiari eta bioi bisita egitera etorriko zara.

Poltsa itzuli diot. Biratu eta herrixkarantz joan
da lasterka, txorimalotxo bat bailitzan. Poltsak hanke-
tan jotzen zion.

–Eta zer ipuin bidaliko didazu? Belatz disti-
ratsuarena? Eta txirularena? –egin dit oihu, berriro
biraturik.

Harrapatu eta aitaren egiteko, xarmaduraren bat
egiteko gogoia eman dit. «Jaungoikoak lagun diezazu-
la». Eta nire golkorako, ahots beheran esan dut: «Korri,
nire printzesa txintxoia, ez zaitut ahaztuko».

Soro artetik itzuli eta erre kara jaitsi naiz. Agur
esan behar nion. Ez zegoen izoztuta, urrumaka ari zen,
uso bat bailitzan.

Berriro etxeratuta, mahaian eseri eta itzulpe-
na aurreratzeraz behartu dut neure burua. Borondate
kontua baita dena, azken finean. «Norbere burua kon-
trolatzea da garrantzitsuena» esaten zidan ospitalean
andre xahar judu batek... Behartu dut, baina ez dut
luzaro lan egin. Horma-zehar ere ikusten baitut: ko-
rridorean, egongela igarota, bada gela bat eta, han,
bururdi handien artean, bada gizon bat, ezpainak ur-
din, atera begira. Haren atetik nirera hemeretzi pauso
daude, behin zenbatu egin nituen.

Baina orain hemeretzi kilometro bilakatu dira.
Ez gutxiago. Hemeretzi mende.

...49ko martxo

Bihar banao.

Gelan beste era batekoa da denbora, bihar bukatzen delako. Ez da luzatzen, ez airean igarotzen. Ez da existitzen, horra. Xurgatu egiten da, airea xurgatzen den bezala.

Ez nago nire gelan, inorenean baizik. Hau ez da dagoeneko aspaldidanik itxarondako nire Etxea, hotel bateko gela bat baizik, etzi beste norbait egongo dena. Errezelak ere inpersonalak dira, ez dira nireak, beste norbaitenak dira. Itxarongelatxo bat, geltoki batean, horra zer den, nolabait esateko.

Gaur ez dut gogorik ez paseatzeko, ez lan egiteko, ez bazkaltzera jaisteko bata kentzeko. Gustura geratuko nintzateke sofan etzanda, ezer egin gabe. Azkenean, zer! Bihar bukatzen da dena, azkenik... Hala ere, badira bazkaria, siesta, atepeko argi-zirrikuitua eta egunsentia bere lekuan leihoaz beste aldean, beste hogeita bost aldiz izan den bezala. Bilibin bera ere ikusi dut berriro.

Berak ni ez nau ikusi, baina nik bera bai. Goizean paseatzen ari nintzen. Ez naiz urruti joan, izeietarai-

no. Han gutxitan egon gara elkarrekin... Enbor busti, erdi izoztu batean nengoen eserita; zamarraren barrenak belaunak estaltzeraino luzatuta neuzkan. Bera bidezidorretik zihoan, bakarrik, kapela patrikan zuela, aurpegia aurretik jotzen zion egurats epelari erakutsiz. Honantz? Ikusi ote nau? Bihotza estutu egin zait zirrarakatik, eta zoriontasunagatik ere bai beharbada. Ez, ez zetorren honantz. Izei trinko, zabalak genituen erdian. Geldiro zebilen, nekez, aldian behin enborretako goroldioa kendu eta esku artean birrinduz. Haren hazpegirik xeheenak ere ikusten nituen egunaren argi distiratsuan: haren begi horiztak, haren ezpain urdinkarak, haren zimur-sare iluna. Haizeak kopetarantz bultzatzen zizkion ile arinak, basoko soilgune hartakoan bezala, eta bat-batean gogoratu dut: sutea izan zen egunean eskuaz burua ukitu nion: zein ile biguna! Haur batena bezalako! Zein arinki mugitzen zion orain haizeak. Zerbaitetan pentsatuz zihoan, goroldioa esku artean oharkabean birrinduz, eta bat-batean gelditu egin da. Haren esku handiek botoi bat bilatu dute bularrean, askatu, patrika barrutik atera, banekien zer!, nitroglizerina! Orratz batez tapoia kendu dio, eskuan ale bat bota eta ezpainetan hartu du... Une batez geldirik geratu da, oinazeari adi, eta, biraturik, etxerantz jo du astiro-astiro. Orain haizeak ilea ez zion nahasten kopetarantz, garondorantz baizik... Ohean etzatera zihoan seguruenik.

«Jantzi ezazu kapela, hoztu egingo zara» esan nahiko niokeen, orduko hartan bezala-. Zaude pixka batean, ez izan presarik, ea oinazea baretzen zaizun-esan nahiko niokeen, pasieretan hainbeste aldiz esan izan diodan bezala-. «Barkatu! -esan nahiko niokeen-. Ez nuen eskubiderik zu juzgatzeko; nork eta nik, zakurrik gainera inoiz oldartu ez zaidan honek, hildako

baten hankan oholtxorik inoiz ikusi ez dudan honek... Barkatu! Ez duzu berriro hara itzuli nahi, zuhaitzak botatzera, meatzera. Bigarrenez! Zure kontakizuna duzu zure ezkutu ahula, zure hesi hauskorra... Barkatu! Dagoeneko izan duzu bihotzeko bat; gaixotasun garestia da hori, dirua irabazi behar duzu. Eta nola irabazi behar duzu zuk, elbarria izanik? Idatziz. Klizezko gezurrak idatziz... Barkatu! Ez nuen eskubiderik zuri egia exijitzeko; nik osasun ona dut, eta isildu egiten naiz. Ez naute jipoitu gauez instrukzio-epailearen bulegoan. Eta zu egurtzen zintuztenean, ni isilik. Zer eskubide dut nik orain zu juzgatzeko? Barka iezadazu bihozgabekeria madarikatu hau, barkatu!».

Harrapatuko dut, deituko diot, esango diot?

Baina eserita geratu naiz, geldi, ahal nuen indar guztiaz beroki barrenak luzatuz, eta bera urruntzen ari zen geldiro, erremediorik gabe.

Nire bizitzatik irteten ari zen.

Lehenengo aldiz ikusten nuen haren bizkarra, haren ibilera. Haren bizkar sendoak eta haren hankak, motel-motel ibiliz, doblatu egingo balitzaizkio bezala. Geldiro, ziurtasunik gabe, zalantzaz daramate haren gorputz handia; haren sorbalda zabalak eta haren buru handia.

Pena ematen zidan, harengatik, neuregatik eta guztiongatik. «Errusia, nire aberria» pentsatu dut besteri mailegatutako bertsoz. Haren bizkarra astiro desagertu da zuhaitzen atzean. Harrapa nezakeen oraindik, deitu eta barkatzeko eskatu, han zegoen oraindik, elkarrekin geunden oraindik...

Agur, agur!

...Ilunabarrean, nire gela arrotza jasateko gauda ez, eta ibili bat egitera atera naiz berriro. Ez izotzik ez elurrik. Elurra kentzen hasita dago. Urtzen ari da.

Lokatz itsaskorra oinpean. Atzera itzuli, eskalapoiak jantzi eta hala ere palastaka atera naiz basorantz. Gure etxera. Han lehen bezala zegoen elurra, baina hezetasun-usaina zegoen. Belatxingek ozenki egiten zuten karranka. Inguruan xuxurlak, tanta-hotsak, mugimendu-hotsak entzuten ziren. Elur-tontorrek apalduta daude; haien azal iluna zuloz, poroz beteta. Basoak itxura narrasa du. Elurra zabarki dago adarretan banatuta, luma zikinetan, dagoeneko traban dagoen Eguberritako izei bateko kotoiaren moduan. «Gure iraganeko arrastoak ezabatzen ari da –pentsatu dut–; ongi dago hori». Ia-ia erori naiz mokor labain batean irrist eginda. Oina barreneraino sartu zait. Kosta egin zait ateratzea eta mokor labaina urruti jaurti dut.

Hiltzen naizenean hori bezalako mokorra bilakatuko naiz. Bera ere bai. Horretaz asko idatzi, esan, pensatu den arren, ezin ulertu. Eskuak lur bilakatuko dira, eta baita begiak, ahoa ere. Eta oroimena. Eta larritasuna. Eta bekatuak. Eta egia. Eta gezurra.

Eta orduan, hori dena azkenik gertatu denean, inork mokor horiek zapaltzen baditu, ez dio minik egingo.

...49ko martxo

Hamaiketan, gosaldu ondoren, erizain sudurmotz batek maleta autora eraman dit. Ludmila Pavlovna atariraino atera da lagun egiteko. Bilibin ere alde egiteko prestatzen ari zen: beraz, ez dago gaixo, nonbait. Sendatuta dago. Jaungoikoari eskerrak.

Agurtzerakoan Ludmila Pavlovnak alde batera eraman nau: «Ai, zein lepozapi ederra duzun... berezia... Segituan ikusten da ez dela gureetako... Mostorg-en eresia beharbada?... Mesedez eskatzen dizut, Nina Sergeievna –eskutik heldu dit–... hitz bat bera ere ez... ezta inori ere... ilaran egon gabe eman dizute benetan? Zorte handia izan duzu, egia esateko!... Zatoz berriro bisita egitera».

Ez gindoazen bakarrik, zorionez. Gidariaren ondoan eseri naiz, eta atzean lodikote hipertentsioduna, Nikolai Aleksandrovitxekin. Tentsioa hamaseira beherratua du, bere Yaxenkarengana doa berriro, etxera, poz-pozik... Zer kontatuko ote dio Yaxenkak? (Zeren eskolan ikasle nintzenean ez baikenuen antisemitismorik ezagutu. Gauza barregarria iruditzen zitzaigun,

antzinakoa, beste mende batekoa, alabarda bat bezala edo).

...Elurra urtzen eta urtzen ari da, atzo bezala. Elur-kizi pixka bat erori da izei-adarretan, eta elur-luma bidean. Soroak, urkiak, izeiak igotzen diren muinoak hegan datozkit, bideko lokatz morearekin batera.

Atzeko aulkian, nire atzean, gizonak erretzen eta ahots beheran hitz egiten zihoazen. Bilibinen ahotza, betikoa: sosegua, adeitasuna. Ez nien entzuten. Irten eta atzera itzuli ahal banu: beste behin joan basora, urkiek izeiari ingurutxoia nola egiten dioten ikusi. Haurtzaindegia estalki zuriaren azpian nola berdatzen den. Artean nirea zen gela hartan sartu berriro, hango leiho argietatik kanpora begiratu.

Berandu da. Hori ez da gehiago gertatuko. Geltozia bistan da dagoeneko.

Iritsi gara! Gidariak trenaren geltokitxora jaitsi ditu hipertentsiodunaren paper-zorroa eta maletak, nire maleta arina eta Bilibinen astuna. Billeteak erosi eta banatu dizkigu eta airean harrapatu du eskupekoa. Iritsi da trena. Zalaparta, bultzadak, bero sapa. Gidariak maletak bagoira eraman ditu: hipertentsiodunaren paper-zorroa apalera, maletak eserlekuaren azpira. «Bidaia ona egin!» eta jaitsi egin da.

Trena abiatu da.

Txoko batean eseri eta begiak itxi ditut. Ilia Isakovitx eta Bilibin xakeko problemaren bat ebazten ari ziren, *Ogoniok*³⁵ aldizkariaren gainera makurtuta. Haien ahotsak gurpilen zaratarekin eta beste ahots batzuekin nahasten ziren.

35 *Огонёк*: Errusiako aldizkari ilustratu zaharretako bat (1899an sortua), oraindik ere irauten duena.

Neurriz goiti berotutako bagoian badira esneketariak, beren marmiten eta zakuen artean eseri eta geldi; herritxoetako andre xaharrak; mutiko mukizuak; burdinbideetako enplegatuak; elbarriak; mozkor bat, eserlekuan etzanda, ahuspez, garondoa gora; bekain beltzeko neska gazte batzuk, ezpainak pintatuta, puntuzko txano berdeekin eta eskuzorro horiekin.

Urrutitik datoz guztiak; eta denak, lotan doana salbu, ondokoei gauzak kontatzen; geltoki batzuk lehenago hasitako kontakizun xeheren bat kontatzen jarraitzen dute.

–... Lau oilo jan zizkidan. Eta kutxa batean sartu zituen lumak. Hantxe aurkitu nituen. Opil-itxurako bi bururdi eta samovar hondatu bat kendu nizkion... Oiloen ordainez.

–Azaroan ospatu genuen ezkontza. Erroldan sartzen badute, orduan bai ederki. Horretarako esku ona behar da poliziarekin...

–Gure Zinaida agure batekin ezkondu da. Kontramaisua da trenbidean. Non bizia edukitzeko ezkondu da. Lehenengo senarrarengandik seme bat du umezurtz-etxean. Horrela, agureak hezurak uzten dituenean, semea etxera eramango du. Esaera da: amak bilatu behar du non bizi...

–Gure eskualdeko ospitalera joan nintzen; hango sendagileek ez didate ezer aurkitu. Pribatuan ere, katedradunarenean, ezer ez didate aurkitu. Nerbio-kontua omen da, esaten dute. Baina zer nerbio eta zer nerbio-ondo; euria egiten duela... bizkarreko mina segituan.

«Errusia, nire aberria» pentsatu dut berriro. Eta, isil-isilik, jendea aztertzen aritu naiz.

«Zer dute... barruan? Nola sartu hauen barrura, nola konektatu? Oilo horien atzean... klinika pribatuaren atzean... ezkontzaren atzean... Zer ikusten dute,

nork bere ilunpean, lo hartu baino lehen, betazalak biltzean?... Hauekin batera murgildu eta beraiek ikusten dutena ikusi ahal izango banu. Hori bai izango litzatekeela benetan murgiltzea. Beraiekin batera. Beren oroitzapenetan. Bagoi honetako oroitzapenetan baizik ez balitz ere. Horixe besterik ez. Zenbat pertsona daude hemen?».

–Ostegunean eskolara joateko deitu didate. Barrabas bat omen da. Eta nik diot andereñoa gaztea dela, esperientzia gutxi duela, haurrek barrabaskeriak egingen dituztela, eta nireak ere bai...

–Aberatsak edo ez, zaude ziur, segurtasun handiagoa dute bizitzeko zuk eta nik baino. Jaiak baino lehen, fruitu-kontserben eskaintza bat izan zen, ez ziren hemengoak, Bulgariakoak baizik; bost kilo hartzen ikusi nuen... Jendeak kilo bana hartzen zuen, hark bost... kalkulatu...

Ordubeteren buruan trenaren argi distiratsutik atera eta Moskuko geltokiko erdi ilunean sartu da. Esneketariak beren paketeak bizkarrean eta marmitak eskuetan hartu zituzte.

Lodikoteak lepozapi gorria lotu eta paper-zorroa apaletik jaitsi du, begiak zabal-zabal zituela. Bilibinek zamarra itxi du, nitroglizerina patrikan duela egiaztatuta. Nire maleta hartu nahi izan dut, baina ordurako berak helduta zeukan.

«Ez naiz eztabaidan hasiko –pentsatu dut-. Hutsik dago, ez da astuna».

Geltokian dagoeneko gaztea ez den andre bat etorri zaigu; aurpegi atsegina, ondo jantzia. Bilibinek eskuetan muin egin dio. «Emaztea, noski –gogoratu dut-. Marina Augustovna. Handik itzulita ezkondu egin zela kontatu baitzidan. Aurrezki kutxa batean kontrolatzailea zen, ezta?».

–Hau Marina duzu –esan dit Bilibinek, lehen-dabizi hari eta gero niri kezka begiratuta–. Hau Nina Sergeievna, nire kide atsegina, gutunetan hainbestetan aipatu dizudana. Eta hau nire xakeko aurkaria, Ilia Isaakovitz ohoragarria... Zer, zer moduz ikusten nauzu? Onera egin dut?

–Urte askotarako –esan dit Marinak, eta irribarre egiteko Bilibin baino okerrago ez dela moldatzen ikusi dut–. Utzi hori, Nikolai, ez zait ongi iruditzen, sendagi-leak erabat debekatu zizun pisuak jasotzea.

Nire maleta eskutik aginpidez kendu eta berak eraman du.

Nik ez diot kendu. Kendu beharko niokeen, baina ez nuen gogorik. «Eraman dezala, gustatzen bazaio. Niri berdin dit» –pentsatu dut.

Plazara atera garenean, Bilibinek taxi bati deitu dio. Hipertentsiodunak agur esan digu: handik hurbil bizi da eta eramateko ezer ez zuen. Bilibinek autoaren atea zabaldu dit eta sartu egin naiz... Bedi!

–Nora zoaz? –galdetu dit Marina Augustovnak lehengo irribarre adeitsu berberaz. Erraza da: hortzak erakutsi eta begiak zertxobait itxi. Gidariari helbidea eman diot.

Senar-emazteak isilik zihoazen: ni noiz jaitsiko zain zeuden.

Maiakovski enparantza... Puxkin enparantza... Moskun batere elurrik ez dago...

Elurra han, basoan zegoen, zuri-zuri. Hemen, dena beltz.

Bost minutu geratzen dira etxerako.

Nire etxe arrotzerako. Katiarengana iristeko. Ez, hura eskolan egongo da oraindik. Elisabeta Nikolaiev-narengana iristeko.

Autoa sarrerako ate aurrean gelditu da.

Bilibin jaitsi, nire maleta atera eta autoaren atea zabaldu dit.

–Ez zait kostatzen, ez zait kostatzen, ezer ez da... Utzidazu, eramango dizut atariraino. Mila esker zure konpainiagatik. Esan agur nire partetik zure alabatxo ederrari. Faltan emango zintuen, seguru nago! Eskola-tik itzultzen denerako amatxo etxean, nolako sorpresa! Ondo-ondo izan! Zorte ona izan!

1949-1957

ARGITALETXEAREN OHARRA LITERATURA, ELURRA ETA ISILTASUNA

*Oso olerki ezberdinetan ikusi zaitut harriak jartzen
Aspaldi suntsitutako etxeetan
Eta berreraikitzen dituzu lurra jotako tokiak,
Horregatik beldur naiz zure eskuak
Ez ote duen irudi bat seinalatuko, ez herrialde bat
Zure oinak ez duen lurra zapalduko, hitzak soilik.*

Bertolt Brecht

Liburuaren amaierara bota dugu oharra. Zergatik? Ahalik eta aurrejuzgu gutxienekin irakurtzeko eleberria. Ahalik eta gutxien baldintzatzeko bidea. Ahalik eta borroka gutxien egon dadin promesaren eta errealitatearen artean. Eta, baita ere, fikzioa ez dadin katixima bat bezala irakurri. Irudi luke, bestela, obra sortu den testuingurua azaltzeko besterik ez duela fikzioak eman, azaleko kazetaritzaren luzapen bat balitz bezala. Eta ez, literatura artea bada, transhistorikoa behar du. Testuingurua ezagutu gabe ez da ulertuko non sortu den. Baina artelana bada testuinguru horren isla izateaz gain bestelako zera bat.

Liburu hau, honezkero badakizu, 1949 eta 1957 artean izkiriatu zuen Txukovskaiak (nor zen *Sofia Petrovnako* oharrean azaldu genuen luzexeago, hura ere Josu Zabaletak itzuli zuen). Garai hartan, kosmopolitismoaren kontrako borroka gertatu zen SESBeko kulturaren eta Txukovskaiak jakin zuen bere senarra, Matvei Bronstein teorialari fisiko parta, hilik zegoela 1938tik. Zentzu horretan, zeharo ezberdina da ekarri dugun Txukovskaiaren eleberria nahiz eta *Sofia Petrovnan* dagoen muinaren berdina izan: senide baten desagertzea.

Alderaketa pertinentea da: *Sofia Petrovna* gertatu bitartean idatzi zuen, *Nina Sergeievna* (hala dei zitekeen *Urpean murgildu* lehenengo eleberrian bezala pertsonaia nagusiaren izenak izenburua eman izan balio liburuarri) gertaerak jazo eta hamar urtera idatzi eta kokatu zuen. *Petrovnan* pertsonaia nagusiak estatu-argitaletxe batean lan egiten du eta semea desagerrarazten dute, *Urpeanen* egilea idazlea eta itzultzailea da eta senarra desagerrarazi zioten. *Petrovnan* unean unekoa kontatzen da *Urpeanen* memoria eta ametsak dira kontakizunaren logikaren parte.

George Steiner kritikariak lore asko bota zizkion liburuari. Orduko iruzkina irakurrita, irudi luke, Gerra hotzean jaurtigailu gisa ikusi zuela Steinerrek. Eta, ordea, partidismo politikoa alde batera uztean, nabarmendu zuen *Urpeanek* badituela, zeharka, «Puxkin, Akhmatova, Mandelstam, Pasternak eta Turgenievi» keinuak. Turgeniev dagoela bereziki presente Txukovskaiaren lanean, *Hilabete bat landan* antzezlanarekin.

Baina hau ez da katixima bat, aurrez esan bezala, hau literatura da, bere zentzu osoan, ala Brodskik 1986an esan bezala: «Poetak nolabaiteko betebeharrak baldin badu gizartearekin, ongi idaztea da. Gutxiengo-

ren parte denez, ez du beste aukerarik. Betebehar hori ez badu betetzen ahanzturan murgilduko da. Bestetik, gizarteak ez du inolako betebeharririk poetarekiko.»

Izuaren, miresmenaren, literaturaren eta memoriaren antzezlan hau gozatuko zenuelakoan.

Laster arte.

Iruñea

2021eko otsaila



Liburu honen zuzenketa bukatu eta bi hilabetera, 2021eko maiatzaren 17an, 250 urte bete ziren Rahel Varnhagen idazlea jaio zela. Bere egongelatik pasa ziren Schelling, Alexander eta Wilhelm von Humboldt edota Jean Paul eta Friedrich Gentz. Hannah Arendtek liburu bat idatzi zuen Varnhageni buruz eta, aitortu zuen, bere lagun minena izan zela, nahiz eta idazle erromantikoak mende bat zeraman hilda.

